The Foloc or Church
(House of the Nuns)
Ruins of Chichen Itzá, State of Yucatán.


Julio 28 de 1887. 1r Estudio


THE RUINS OF MEXICO
CONSTANTINE GEORGE RICKARDS
VOLUME I

The Ruins of Mexico.

STATE OF YUCATÁN.

THE RUINS OF YUCATÁN.

The Palace of Layil.

Antiquities from the Ruins of Yucatán.

Site of the walls of the ancient Maya city of T'ho, now Mérida, the capital of Yucatán.

Tepeyac.
José M. Velasco.

Julie 17/84

¡PRIMERO DE MAYO 1952!
DIA DE LUCHA
trabajadores de México
Y DERECHOS

"El Norte" en el Rancho Blanco

1943

[redacted]

Rancho Blanco

18-4-43



BACARDI



MARINA
MARINA



EJERCITO
MEXICANO

EJERCITO
MEXICANO



EJERCITO
MEXICANO

La Jornada

Agentes de la Patrulla Fronteriza esperan a Mexicanos para ingresar

Denuncia, en declaración ante el TLCAN, ataques a la industria azteca

Se exportaron productos alimenticios y agroindustriales por 12 mil millones de dólares

Las exportaciones, por 1 mil 3 millones, aumentaron a partir

Segundo datos de la Casa Blanca ofrecen reformar el tratado comercial

Fuerzas en operaciones de rescate para caer helicóptero oficial en Puebla

Columnas

Desfiladero, Jaime Avilés

Dinero, Enrique Ochoa

De aba', Gloria Muñoz Ramírez 15

México A • Carlos Ramírez

Opinión

Miguel Concha 16

Iván Semo 6

Octavio F. 18

Ana María Aragón 8

Gustavo Gordillo 20

Arturo Brennan

Carlos Bonfil 11a

"Cierren Guantánamo", clamor en el mundo

Cumbaran el terrorismo por medio de la justicia, exigen manifestantes en ciudades de todo el orbe

DPA

WASHINGTON, DC, 11 de enero. Alrededor del mundo se realizaron protestas que exigen el cierre de la prisión de Guantánamo, iniciada el 11 de enero de 2002 con una docena de mil presos en territorio de Cuba, con quienes también se pretende violar los derechos de detenidos en Estados Unidos, para ser juzgados por tribunales regulares.

El grupo pro derechos humanos Amnistía Internacional (AI) inició una cadena en Estados Unidos en la que llamó a la población a vestirse de anaranjado en protesta contra esa prisión.

Paralelamente, el tribunal de apelaciones de Washington anuló una demanda por torturas presentada por un prisionero británico en Guantánamo.

Las protestas se dieron desde países como Londres, Roma, Atenas, Madrid, Suecia, Irlanda, Sydney, Washington y otras 200 ciudades estadunidenses, pasando por países como Paraguay, Filipinas y Bélgica, movilizaciones convocadas en cada caso por AI y otras organizaciones humanitarias.

La mayoría de los activistas manifestantes vestían formes naranjas, idénticos a los que son obligados a usar los detenidos en el campo de Guantánamo.

También hubo protestas en jaulas a cielo abierto, similares a las que fueron usadas en Estados Unidos para exhibir a esos prisioneros.

Los activistas se congelaron bajo una fría lluvia de invierno en la capital de la República, de acuerdo con los organizadores.

Los participantes en la movilización marcharán luego hacia la Corte Suprema de Justicia, cuyos miembros deberán decidir en los próximos meses los límites del poder Ejecutivo sobre los detenidos.

"Cierren Guantánamo, combatan el terrorismo por medio de la justicia", clamaron manifestantes al llamado de AI en Estados Unidos, quien también denunció en un discurso la prisión de Bagram en Afganistán, donde, dice, se practica la tortura.

Según organización de derechos humanos, en la base de Guantánamo se mantiene a 0 mil personas en condición de detenidos, de las cuales 10 mil están en estado de huelga de hambre.

Al cumplirse ayer cinco años que Washington abrió la cárcel de Guantánamo, militantes protestaron en decenas de ciudades, muchos con uniformes de color naranja idéntico a los usados en esa prisión. En Washington, un tribunal de Washington anuló una demanda por torturas presentada por cuatro ciudadanos británicos. En la imagen, manifestación en Sydney, Australia, convocada por Amnistía Internacional ■ Foto Reuters

del [illegible] de las libertades civiles [illegible] también será entregada a la Casa Blanca.

Se estima que por la prisión de la isla han pasado hasta ahora más de 800 hombres [illegible] menores de edad [illegible] sospechosos de terrorismo sin posibilidad de [illegible] y sin haber sido acusados o vertidos a juicio. En la mayoría de los casos, ni siquiera se han presentado cargos formales contra ellos.

Al mismo tiempo, miles de personas se manifestaron en ciudades de Estados Unidos, Europa, Asia, Oceanía y América Latina en repudio al campo de detención de Guantánamo, con la recolección de firmas.

La Jornada

DIRECTORA GENERAL: CARMEN LIRA SAADE
DIRECTOR FUNDADOR: CARLOS PAYAN VELVER

SÁBADO 12 DE ENERO DE 2007

La IFCA declara ilegal la huelga de los mineros de Cananea

Honores póstumos

Represión en Cananea deja 46 heridos

Arremeten 800 efectivos federales y estatales contra los trabajadores

Los obreros deben prepararse a morir, hoy, según el fallo de la junta

Grupo pro derechos prevé amparo, reporta que hay cinco desaparecidos



Un [illegible] 00 elementos de militares y policías federales y estatales se enfrentaron a miembros de trabajadores que custodian los principales accesos a la empresa Minera de Cananea, luego de que la JFCA declaró inexistente el huelga iniciada el pasado 30 de julio. Según autoridades federales, el sindicato minero no notificó de la determinación a las 10 horas. No obstante, a las 10 de la mañana [illegible] la primera embestida ■ Foto [illegible]

Gumersindo Rodríguez, corresponsal, y Carolina Gómez Mena ■ 3 y 4

Andrés Henestrosa fue despedido con música durante el [illegible] cuerpo, [illegible] que le rindió en Bellas Artes. En Oaxaca, el 10 de enero será declarado día de luto estatal por la muerte del [illegible] ■ Foto [illegible] Luis Humberto López

Alma A. Jiménez y corresponsales ■ 4a

Dar estatus de beligerancia a EPR y ELN pide Chávez

Rechaza inmediato de Colombia, son "terroristas"

Diputada panista niega aumento de precios; "bajaron tarifas aéreas

Opinión

¿Qué ha logrado el zapatismo?

Immanuel Wallerstein 4

Kamel Mendoza, amigo competente

Carlos Montemayor 13

FM

$$\frac{16700}{1200} = 1.39$$

$$32 \times 1.11 = 35.2$$

$$32 \div 1.11 = 29.09$$

F.L.

1.39

$$y^3 (1 \div 3) = 1.11$$

UTRAQUE VNUM
1749

HISPAN·ET IND·
FERDND·VI·D·G·
M
F

BURRITOS



Coleman

nada que perder
algo que perder
todo que perder

NUIT
BLANCHE
a glass
93

INRI

I
Julien Devaux
Noche Buena, 2015

II-III
Emilio Fernández
La malquerida, 1949

IV–VII
Luis Buñuel
Los olvidados, 1950

VIII–IX
Carlos Velo
Pedro Páramo, 1966

X–XI
Emilio Fernández
La malquerida, 1949

XII–XV
Joachim Koester
To navigate, in a genuine way, in the unknown necessitates an attitude of daring, but not one of recklessness (movements generated from The Magical Passes of Carlos Castaneda), 2009

XVI
Figura Jalisco
México, 200 (a.C) 500

XVII
Figura Colima
México, 200 (a.C) 500

XVIII
Tina Modotti
Perfil de mujer con aretes, s/f

XIX, XXV–XVII
Constantine George Rickards: The Ruins of Mexico, 1910

XX
Edward Weston
Tina Modotti con las manos en el rostro, s/f

XXI
Hermenegildo Bustos
Retrato de mujer, 1887

XXIII
Chantal Peñalosa
El rastro, 2015

XXVIII–XXIX
José María Velasco
Rocas, 1905

XXX–XXXI
José María Velasco
Peñas, s/f

XXXII–XXXIII
José María Velasco
Nubes, 1884

XXXIV–XXXV
Hermanos Mayo
Testimonio de una balacera, México D.F, 1952

XXXVII
Iñaki Bonillas
Archivo J. R. Plaza, 2005

XXXIX
José Clemente Orozco
Manos sobre el rostro, s/f

XL
Kati Horna
Museo de cera, s/f

XLI
Hermanos Mayo
David Alfaro Siqueiros, México D.F, 1949

XLII
Hermanos Mayo
Escuela Nacional de ciegos, México D.F, ca.1945

XLIII
Tina Modotti
Tehuanas en el río, 1929

XLIV–XLV
Jonathan Hernández
Vulnerabilia (JGL), 2014 -2016

XLVI–XLVII
Ricardo Rendón
Trabajo diario: mes de trabajo (Enero, 2008) [xehetasuna], 2008

XLVIII–XLIX
Chantal Peñalosa
Un año limpiando frijol, 2011-2012

L–LI
Jorge Satorre
El retroceso 12, 2013- 2014

LII
Real de a 4 de Carlos y Juana, acuñado en México de 1637 a 1555

LIII
Real de a 8 de Fernando VI, acuñado en México en 1749

LIV–LV
Eduardo Abaroa
Cera Perdida, 2015

LVI–LVII
Fernando Ortega
Colibrí inducido a sueño profundo, 2006

LVIII–LIX
Tania Pérez Córdova
We focus on a woman facing sideways Evening, 2015

LX–LXI
Cy Twombly
Angels' trumpets. Gaeta, 2008

LXII–LXIII
César Manrique
Epicentro, 1979

LXIV–LXV
Teresa Margolles
¿Por qué van corriendo esas putas?, 2012

LXVII
Dan Flavin
Untitled (to Paul Gredinger), 1990

LXVIII–LXIX
Mario García Torres
A brief History of Jimmie Johnson´s legacy, 2007

LXX–LXXI
Sharon Lockhart
Untitled, 1996

LXXII–LXXIII
Alan Glass
Counterpane [xehetasuna], 1994

LXXIV–LXXV
Fritzia Irizar
Sin título (Retrato de la burguesía), 2014

LXXVI–LXXVII
Gabriel Kuri
Untitled (Open table 1) [xehetasuna], 2012

LXXVIII–LXXIX
Francis Alÿs
Ensamblaje de óleos y láminas, 1997

LXXXI
Julieta Aranda
There has been a miscalculation (Flattened ammunition) [xehetasuna], 2007

LXXXII
Gabriel Orozco
Broken Sidewalk, Maunalco, México, 1992

LXXXIII
Gabriel Orozco
Ladrillo en varillas, 1993

LXXXIV–LXXXV
Edgardo Aragón
Efectos de familia, 2007-2009

LXXXVI
Roberto Ruiz
Tlachiqueros, s/f

LXXXVII
Alan Glass
Obscena Diana, 1994

LXXXVIII–LXXXIX
Carlos Reygadas
Este es mi reino, 2010

XCI
Diego Sanabria Domínguez
El Cristo Niño de la espina, s. XVIII

XCII–XCIII
Ignacio Zuloaga
Muchacho castellano [xehetasuna], 1907-11

XCV
Gerardo Murillo "Dr. Atl"
Erupción del Paricutín, 1943

ARGITARATZAILEA
MARÍA VIRGINIA JAUA

MEXIKO:

MITO BATI BURUZKO SAIAKERA

«EZIN DUGU GEURE BURUARI
BURUZKO IRUDIRIK IZAN.
IZAN AL DEZAKEGU BESTE BATZUEI BURUZKOA?
BAI, ZALANTZARIK GABE; BAINA, ZORITXARREZ,
EZ DUGU INOIZ JAKINGO EA ZUZENA DEN»
Angustia de un solo fin, EDMOND JABÈS

«ZER EGIN DEZAKEGU?
AGERTOKI BAT ERAIKI,
BERTAN DANTZARAZTEKO
MARTIRIZATZEN GAITUZTEN MITOAK.»
La conquista de México, ANTONIN ARTAUD

LIBURU HAU IBERDROLA DORREKO
MEXIKOKO GAI BATEN GAINEKO ALDAERAK
ERAKUSKETAREN ZATI DA; ERAKUSKETAREN KOMISARIOA GUILLERMO PANEQUE DA

Benetan atsegina da niretzat *Mexiko: Mito bati buruzko saiakera* liburu hau aurkeztea, 2016ko apirilaren 4tik ekainaren 30era bitartean Iberdrolak antolatuta Bilboko bere egoitzan ikusgai egongo den erakusketaren ildotik.

Erakusketa honek *Mexikoko gai baten gaineko aldaerak* izena hartu du, Luis Cernuda poetak 1952an argitaratu zuen prosazko poema-liburu batetik hartu ere. Haren bitartez, gure konpainia zabaldu den herrialdeei buruzko ezagutza zabaldu nahi dugu, haien kultur ondareak ezagutaraziz.

Iberdrolak harreman ezin estuagoa du dagoeneko Mexikorekin, ia hogei urte igaro ondoren herrialde horretako garapen energetikoari ekarpenak egiten; bada, gure enpresa-proiektua ulertzen dugun modura, harreman hori hango ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren garapenera ere zabaldu nahi dugu, borondate garbia dugulako hango biztanleen ardura, interes eta itxarokizunetan ere partaide izateko. Are gehiago hori, herrialde horrekin historian eta kulturan oinarritutako lokarri sendoak baititugu.

Asmo horrek Mexikoren nortasuna ulertzeko ahalegina egitera bultzatzen gaitu, eta horretarako halabeharrez ezagutu behar dira nortasun hori irudikatu nahi izan duten adierazpen artistiko, literario eta kulturalak. Baina nortasun horren irudi bat ematea oso lan zaila da, «mexikartasuna»-ren barruan hainbat gizatalde desberdinen arteko arrago bat dagoelako, zeinetan garai historiko desberdinak elkartzen eta uztartzen baitira.

Aniztasun hori irudikatu nahi du *Mexikoko gai baten gaineko aldaerak* erakusketak, eta horregatik biltzen dira bertan hainbat ikuspuntu desberdin –Kolon aurreko garaietatik hasi eta gure garaiotaraino–, euskarri desberdinetan: margolanak, objektuak, instalazioak, argazkiak, liburuak, filmak, bideoak...

Irakurtzen ari zaren liburu hau bera ere bada erakusketaren zati bat, haren osagai bat; biak elkarrizketan lotzen dira, erakusketan ikusgai dauden irudiekin batera Mexiko mito baten antzera irudikatzen duen testu sortatxo bat dela bitarte.

Bukatu aurretik, bihoazkie nire eskerrik zintzoenak Maria Virginia Jaua, liburuaren editoreari, Guillermo Paneque, erakusketako komisarioari, bai eta beren lanak utzi dizkiguten artista, museo, bilduma eta galeria guztiei ere. Haiek gabe nekez iritsiko ginen Octavio Pazek esandakoa egitera: «mexikartasuna aurkitzea, nonbait den barnemuin ikusezin hori. Ez dakigu zer den, ezta nondik iritsi bertara; oraindik ez da errebelatu, hori baino ez dakigu».

Ignacio S. Galán,
Iberdrolako lehendakaria

Mexiko *aurkeztea* eskatuta, hau da, herrialde handi, konplexu eta harrigarri hori egungo iruditerian izan litekeenaren *aurkezpena* egitea eskatuta, erronka hutsetik haragoko zerbait dugu aurrean. Izan ere, nola bete dezakegu –liburu txiki baten espazio laburrean– nazio batek historia eta kultura mende luzetan egin duen ibilbidearen kontakizun osoa, egiazkoa eta ezagungarria eraikitzeko eginkizuna?

Beharrezkoa izango da *aurkezpen* hori areagotzea, egotera modu aktiboagoan itzuli, eta gehiago *behatzeko* desira pizteko, dena *behatzeko* desira. Dagoen guztia eta egon daitekeen guztia begiratzekoa, behintzat. Eta hortik, galdera hau sortzen da: badago aukerarik Mexiko *osoa* behatzeko? Galdera horri baiezkoa erantzungo bagenio, eginkizun lorrezintzat jo behar genuke geurea; izan ere, herrialde bat, oso txikia eta sortu berria izanda ere, nahikoa da biblioteka mugagabe bat sortzeko. Eta zer esanik ez Mexikoren kasuan, nazio itzel bat izanik, jatorria aspaldiko garaitan duena eta barne hartzen dituena askotariko kulturak, hizkuntzak, paisaiak, keinuak, izaerak eta mundu ikuskerak.

Bat-batean, dena ikusteko desira zapuztuta gera liteke. Edo, aitzitik, desira hori gure begietan piztuko litzateke, erupzioan dagoen sumendia ikustean bezala. Ongi jakinik ez genukeela nahikoa denborarik izango haren aldaketa guztiei erreparatzeko eta betiko hipnotizatuta geratuko ginatekeela behatzeko desira amaigabe horren ondorioz, suak eta lurrikarak paisaian eragindako eraldaketa geure begiez ikusteko desiraren ondorioz; esperientzia haren hondar txiki bat, froga bat edo oroitzapen bat geureganatu nahi baikenuke begiradaren bitartez.

Orrialde hauetan, Mexiko apur bat aurkezteko desira eutsiezin horri erantzuteko asmoz, irakurleak esku artean duen liburuaren bitartez aurreko hori baino desira xumeago bat bete nahi izan dugu, baina hura bezain zorrotza eta asmo handikoa: hona ekartzea sumendiaren errautsa, zatiak, arrastotxoak, txikiak izanda ere sumendiaren berri eman diezaguketenak, sortu zenetik goren unera iritsi zen arte. Arrasto horiek irakurketa multzo baten bidez aurkeztu ditugu, eta irakurketa horiek Mexikok mito intimo eta pertsonal gisa izan lezakeen esanahiaren zehaztapen etengabe, obsesibo eta beti aldakorrari buruzkoak dira.

Mitoa, Barthesek emandako zentzu zabalean, adierazi bat eta adierazle bat elkartzen diren komunikazio sistema bat da, hitzetik, diskurtsotik eta are hizkuntzatik askoz harago doana. Mitoak «erreala» denaren nolabaiteko ezagutza adierazten du, eta ezkutatu ere egiten du aldi berean, eta ia beti lotura du historiaren bilakaeraren aldaketarekin, zeinetan bat egiten duten iraganak eta orainari zentzua ematen dion etorkizunak. Jakinduria horren bilaketan koka genezake, hain justu, Mexiko mito gisa aurkezteko ideiari buruzko irakurketa (ez) posible bat idazten saiatzeko grina.

Agian, beste begi batzuek Mexiko lehen aldiz «ikusi» zutenean herrialdeari buruz sortzen hasitako mitoa malgu eta mugatzen zailak abian jarraitu du –gaurdaino–, forma egoki baten bila. Forma horren aurkikuntza izango litzateke, hain zuzen ere, berrirakurketa honen xedea, eta ahots nahiz erregistroen sinfonia gisa ageri da hemen. Mitoa berregiteak berekin dakar argitalpenean erabateko askatasunez jardutea eta argitalpena idazketa mota bat izango balitz bezala hartzea. Idazketa ikusezin bat edo –nahiago izanez gero– «isil» bat, testuen aukeraketan eta haien hurrenkeran inplizitua dagoena.

Beraz, *Mexiko: mito bati buruzko saiakera* konposizio konplexu eta sotila da, hainbat garaitako idazle eta idatziena ez ezik, baita hainbat generorena ere: elkarrizketa poetikoa, kronika, literatura paseoa, poesia, gogoeta antropologikoa eta filosofikoa, eta narraziozko fikzio finena. Horiek guztiek elkartuta, kontakizun posible bat osatu nahi izan dugu, polifonia horretan ahots bakarraren kadentzia lortu nahi duena.

Alfonso Reyes, Octavio Paz, José Revueltas, Fernando Benítez, Sergio González Rodríguez, Alfredo López Austin, Luigi Amara eta Mario Bellatin mexikar idazleen eskutik, mexikarrek paisaia eta kultura nazionalari buruz idatzitakoak ezagutuko ditu irakurleak; baina mexikarren ahotsa ez ezik, idazle atzerritarrena ere ezagutu ahal izango du, Gonzalo Rojas txiletarraren, Malcolm Lowry ingelesaren, Georges Bataille eta Jacques Derrida frantsesen eta Luis Cernuda edo Luis Cardoza y Aragón erbesteratuen eskutik.

Liburu honen lehenengo kapituluak, «Mexiko lepoan», Mexikok intelektual eta artista askorentzat izandako garrantziaren berri ematen du; asko eta askorentzat, herrialde hau etxea eta inspirazioa baino zerbait gehiago izan zen: aurrera egiteko eta sortzen jarraitzeko arrazoi bat. Kapitulu horrek, halaber, mexikarren hospitalitatearen ikuspegi hedatua eskaintzen du –fikzioaren bidez–, amets utopiko batean Walter Benjamini bizia salbatu ahal izan zion hospitalitatearena. Bigarren kapituluan, «Sumendipean», mexikar idazleak bere paisaiari begira duen idealizazioa ageri da, Reyesen kasuan; bere naturaren inspirazioa, Pazen kasuan; kontzientzia soziala eta leherketa bolkanikoan beti ezkutatuta dagoen alderdi telurikoaren presentzia tragikoa, Revueltasen kasuan; hiriaren orainari eta hiritarren ohiturei buruzko lan «arkeologikoa», Luigi Amararen kasuan.

Hirugarren kapitulua liburu honen postulatu gisa egituratzen da, eta bertan betetzen da *eskaintzaren* promesa, hau da, idazketaren beraren *aurkezpena* opari gisa. Baina erritua ere ageri da, zeinaren bidez aktibatu eta eguneratzen den mitoa, hau da, kontakizunaren aztergaia eta konposizioa, liburu osoko hizkuntzaren lanketa. Horretarako, Georges Bataille eta Jacques Derrida pentsalari frantsesen pasarte bana proposatzen da. Lehenengoak bizia sortzeko baldintzatzat aurkezten du giza sakrifizioa; bigarrenak, berriz, ikertzailearen bitarteko eta xede gisa irudikatzen du eskaintza, eta ikertzailea irakurle kritiko gisa eta orrialde hauen ekoizle gisa ageri da; agian zu zeu izan zaitezke, *eskaintza* jaso eta oraintxe bertan orrialde hauek irakurtzen ari zaren hori. Bataille eta Derrida frantsesen testuez gain Sergio González Rodríguez mexikarraren testu bat ere badago, sakrifizioko odolak zenbait kulturatan duen erabilera magiko eta metaforikoari buruzko saiakera bat. Amaitzeko, Salvador Elizondok inspiratutako fikzio bat dator jasota, gauari eta hark ezkutatzen eta sortzen duenari buruzkoa: sorkuntzaren espazioari buruzkoa.

Sorkuntzarako beharrezkoa den gaueko espazio horretatik «jolas sakratura» igaroko gara. Horregatik, atal honetan, jolasak eta gizakion Lurreko bizitzaren orekak elkarren artean lotura zuzena dutela adierazten duen poema azteka bat ageri da; Alfredo López Austinen pasarte bat, non erdialdeko Amerikako kosmogoniako mito bat kontatzen den, pilota jokoari buruzkoa, eta irakurleari ere «jolas» bat proposatzen zaion. Eta sarrera horren ondotik, Antonio Casoren

gogoeta bat ageri da. Teoria estetikoaren ikuspegitik, mexikar filosofoak jolasaren eta artearen arteko erlazioa ezartzen du, berak *xederik gabeko helburu* deritzonaren azpian dagoen tentsioa, jolasaren printzipio askatzaile hori –animaliei berezkoa zaiena– erabat askatu eta punturik gorenera heltzen denean artearen baldintza immanente gisa.

Harreman jolas horien bidez liburu honi dagokion jarduera artistikoari berari buruzko gogoeta bat egin nahi da, oso lotura estua baitu aurkez ez daitekeen gauza bakarrarekin: artelana. Izan ere, adierazpenaren aporiatako beste bat, erakusketak ere saihestu ezin duena, zera da, artelanak bere buruari buruz hitz egiten duela, bere izaeraren berri ematen duela, baina inoiz egiaz izatera iritsi gabe. Hori dela eta, liburu honen jatorri den *Mexikori buruzko bariazioak* («Variaciones sobre tema mexicano») erakusketari buruzko kontakizuna Guillermo Panequeren beraren esku dago, zeinak lor dezakeen hemen ageri ez bada ere erakusketak «hitz egitea».

Bosgarren kapitulua da, agian, konplexuenetako bat. «Alderdi madarikatua» du izena, eta bertan Batailleren beste pasarte bat irakurriko dugu. Aztekek sakrifizioari buruz zer ikuskera zuten aurkezten du; aztekek kontsumoari, gastuari eta gozamenari buruz eta hortaz biktimari buruz zuten ikuspegia geurearekiko zeharo desberdina da; izan ere, sakrifizio prehispanikoaren azpian aberastasunari uko egitea dago, eta hori ulertezina da gaur egungo munduan. Hala ere, giza sakrifizioa aztertzeko modu horrek bide ematen dio pentsalari frantsesari zehatz-mehatz aztertzeko nola eraldatu den biziaren zentzua eta energiaren gastua soilik erabilgarritasunean oinarritutako ekonomia batera mugatuta. Kapitulua osatzen duten gainerako irakurgaiek, bai Cardoza y Aragónenak, bai Mario Bellatinenak, nagusien eta esklaboen artean oraindik indarrean dauden botere harremanak deskribatzen dituzte. Harreman horiek markatu dituzte eta markatzen dituzte oraindik laneko truke eta tratu asko; baita gaurko gizartearen barruan existentziarako beharrezkoa den energia trukea ere, dagokion indarkeria kargarekin.

Seigarren eta azken kapituluan, «Barre jainkotiarra» izenekoan, sakontasun handiagoz aztertzen da jolasaren eta artearen arteko harreman jatorrizkoa eta umorearen bidezko askapen beharrezkoa: barrea. Izakien barru-barrutik sortu eta denbora geldiarazten du bibrazio horrek. Estasiak eta haluzinazioak askatu egiten dute gizakia, jainko-jainkosekin konektatzeko; jainko-jainkosek ez dute *sinetsi* behar, *sortu* baizik. Eta, hala ere, barre egitean elementu suntsigarri bat sartzen dute, euren sorkuntzaren oinarriak ausikitzen dituena. Hori da Fernando Benítezek onddoekin izandako esperientzian deskribatzen duen euforiaren eta delirioaren hizkuntza, zeina Robert Smithson, Gabriel Orozco eta beste artista askok lortu nahi izan duten, bestelako bidaia batzuen bitartez. Halaber, gizakiak jainkotartasuna lortzeko duen grina ere bada, eta barrearen azpiko kontraesanean ezkutatuta dagoen boterea, barre ia nihilista, ahalmen suntsitzailea nahiz sortzailea duena eta mundua bera baino lehenagokoa dena –Octavio Pazek azpimarratzen duenez–. Barreak inauguratu zuen, hain zuzen ere, mundua, eta haren atzetik etorri ziren lana eta sakrifizioa, berezkoak zaizkionak erituari nahiz mitori eta, hortaz, baita idazketari eta liburu honetan irakurleari eskaini zaion orori ere.

AURKIBIDEA

[BAT] Mexiko lepoan
Laburbilduz
014 LUIS CERNUDA
Mexikoren gose
032 GONZALO ROJAS
Walter Benjaminen azken patua
037 MARÍA VIRGINIA JAUA
Anáhuac
041 LUIS CARDOZA Y ARAGÓN

[BI] Sumendipean
Izerdi-zapi beltz bat paisaia gainean
047 JOSÉ REVUELTAS
Mexikoko Harana
050 JOSÉ REVUELTAS
Anáhuacen ikuspegia
052 ALFONSO REYES
Zaborraren arkeologia
055 LUIGI AMARA
Eta txori batek txio egin zuen
065 OCTAVIO PAZ

[HIRU] Eskaintza
Kontsumoa eta azteken mundua ulertzea
067 GEORGES BATAILLE
Eskaintza zeiharra
072 JACQUES DERRIDA
Odolez eta eguzkiz
075 SERGIO GONZÁLEZ RODRÍGUEZ
Gauari buruzko *irakurgai* baten pasartea
084 EVOCACIÓN DE SALVADOR ELIZONDO

[LAU] Jolas sakratua
Zoritxarreko pilota jokoa
088 POEMA AZTECA
Jokoan azpimunduan
090 INTERVENCIÓN A UN TEXTO DE ALFREDO LÓPEZ AUSTIN
Jolasa eta artea
094 ANTONIO CASO
Mexikoko gai baten gaineko aldaerak
104 GUILLERMO PANEQUE

[BOST] Alderdi madarikatua
Biktima madarikatua eta sakratua
110 GEORGES BATAILLE
Zerbitzariak eta poetak
112 LUIS CARDOZA Y ARAGÓN
Nire ogibidearen paperak
118 MARIO BELLATIN

[SEI] Barre jainkotiarra
Jainkoa izatea pozoituta egotea da
139 FERNANDO BENÍTEZ
Kritikari bat eta artista bat elkarrizketan
140 BENJAMIN BUCHLOH Y GABRIEL OROZCO
Jainkotasunaren hizkuntza
142 FERNANDO BENÍTEZ
Onddoen esperientzia
144 FERNANDO BENÍTEZ
Barrearen ahalmen entropikoa
148 MARÍA VIRGINIA JAUA
Barrea eta penitentzia
152 OCTAVIO PAZ

[ZAZPI] Epilogoa(k)
Mitorik eza
163 GEORGES BATAILLE
Anáhuacen ikuspegia (berriro)
164 ALFONSO REYES
123 Zenbait liburu, ezinezko zeregin baterako: Mexiko ulertzea
165 MARÍA VIRGINIA JAUA
Plagiatzailea
174 MALCOLM LOWRY

[ZORTZI] Maskara biografikoak
177 Egileak

✠

M e x i k o lepoan

[BAT]

—Herrialde hau aurretik gogor suntsitutako beste batetik sortu zen. Gogoratzen al duzu nork suntsitu zuen?

.
.
.

—Orduan, agian, hara hurbilarazten zaituena ez da harrotasun nazionalaren atzerabegirako modu sotil bat baino. Ez al dituzu aurkitu lurralde honetan zureak dituen akats berberak?

—Baita haren bertuteak ere. Nire lurraldean ia sinesten ez nuela nengoen, eta hau ikusteak nirearenganako fedea itzuli dit. Lurralde baten akatsak ez lirateke existituko, haren bertuterik gabe.

—Zer bertute izan dezake zure lurraldeak, hain eroria dagoenak?

.
.
.

.
.
.

—Horregatik joan zitzaizkion gauzak hain ongi.

—Bai. Horregatik joan zitzaizkion gauzak hain gaizki.

—Tira. Dena den, beste lurralde hau eta bertako jendea dagoeneko ez dator bat zurearekin. Ez al zaizu iruditzen beraientzat, beharbada, arrotz bat besterik ez zarela? Edo arrotz bat baino gehiago: oraindik ere nahigabez begiratzen dioten herrialde bateko pertsona, agian?

. . . . . .

—Hori guztia egia da. Baina axola al dio? Bizitzan gauza arrazoituak baino egingo ez bagenitu, gaizki ibiliko ginateke. Gugan dugun estimurako gaitasuna xahutu egin behar da, ondo edo oker erabilia dagoen aurretik aztertu gabe.

—Nork eskatzen dizu hemen zure estimua? Gizakiek euren artean jarri duten distantzia hain da handia, estimuak ezin baitu gurutzatu.

—Eta bereizketa hori dagoelako sor daiteke orain, zehazki, hain benetakoa eta sakona den begikotasuna.

—Ez al zaizu iruditzen begikotasun hori, agian, antzinako ausikien mozorro bat izan daitekeela; alegia, garai bateko zorren ordain eragingabea?

—Baliteke. Eta soilik horregatik egon zaitezke eta egon beharko zenuke geure alde, erantzunik edo ordainik espero gabe, maitasunak ere ez baitu horrelakorik behar existitzeko.

—Dena den, aitor ezazu. . .

.
.
.

—Jarrera inpertsonala? Hitz inpertsonalak?

.
.
.

—Guztiarentzat bilatzen duzu arrazoiren bat.

—Maitasunak beti ditu arrazoiak.

—Hain justu. Uste al duzu ulertuko dituztela, eta are gutxiago onartu, zure maitasunaren arrazoiak, nahiz eta euren noranzko berean joan?

—Nik nahi nuen gauza bakarra, berriz diot, begiko izatea zen. Begikotasun horren dohainarekin gero zer gertatzen den ez dagokit niri. Amesten duen hartara jolasten den mutikoa bezalaxe, hura bezala nire baitan bilduta, uretara jaurti dut ezinbestean galdu beharrekoa zen nire paperezko itsasontzia.

Mexikoren
gose

Egunsenti orotan, mundura jauzi egitean, ahots goraz esaten dut izarapetik: M e x i k o! M e x i k o! Eta ez dut erituz egiten, ezta obsesioz ere, baizik eta xarmaduragatik. Ez da, ezta ere, Valle-Inclan hainbeste liluratzen zuen ixaren enigmagatik, ez eta ezerezaren aljebrako ezezagunagatik ere, baizik eta bi makila desberdin horien hasierako gurutzaketagatik, bata honantz eta bestea harantz, jaurtitako bi gezi, erdigunean elkarri lotuak, sexua bezalaxe, ia animaliena bezalako gurutzaketa, Ekialdea eta Mendebaldea, haurrek mundua arnasteko akorde handia marrazten duten moduan. Hartaz bizi izan naiz, eta hartaz bizitzen jarraitzen dut. Erdi itota negarrez irteten ikusi aurretik behatu nion, eguzkiarekin gertatzen zaigun moduan, amak baino askoz ere lehenago. Nahiz eta gure M e x i k o maitea ez den, ezta inoiz izan ere, itolarria, baizik eta oxigenoa. Eta, beharbada, geratzen zaigun oxigeno bakarra, berriz ere mirarizko ixa horrekin. Maitasuna bezalaxe, hori baita geratzen zaigun mito bakarra. M ozen horrekin, marmarren hizkuntza ezin ulertuzkoan ere ozena den M horrekin.

M e x i k o, horrela: ixarekin. Eta zergatik ez beste fonemarekin, beste prosodian, jotarenean edo betikotasunaren iodarenean? Zergatik ez beste Mexiko, Rio Grandetik Antartikarainoko guztiok garen Mexiko hori?

Egin dezagun sakon igeri itsaso harrotu horretan. Uste al duzu txiletarra dela norbait Mistral zalea

izateagatik? Argentinarra, Borges zalea izateagatik? Hala uste al duzu? Edo perutarra al da bat Vallejo zalea izateagatik? Antilletakoa, Dario zalea izateagatik? Kubatarra, Marti zalea izateagatik? Rio de Janeirokoa da Pinheiro Guimaraes zalea izategatik? Montevideokoa behar du izan Lautreamont zaleak? Kostaldekoa edo Andeetakoa, ausaz, astoan zein zaldiz, zatikatutako aberri hauetako herrikidea? Hala uste duzu?

—Ez, jauna, M e x i k o lepoan duzula zabiltza zu egun lehiatsu handietatik, duela hiru milurtekoz gero. Zure M e x i k o duzu buruan zein bihotzean, oraindik ere jaiotzen ari den Mexiko hori, munduari bere erritmoa erakutsi ziona, eta bere zenbakia, funtsezko zeroa, izar-izarretan ikasi zuena. Irudimenaren eta adorearen, adorearen eta irudimenaren M e x i k o berezi hori, margoak inork ez bezala margotu zituena, zeinaren begiak, eskuak, belarriak, gitarroi eta guzti, planeta mila bider egin baitzuten, tradiziotik asmaziora. Sudur hori, gauzen bakuntasunaren eta askotarikotasunaren igarle beti, joniarrak bezalaxe, eta –barregarria dirudien arren– baita ahogozo hori, goragotik iritsitakoei elikagaien zaporea irakatsi ziena: jan dezatela ondo behingoz merkatari doilor horiek!

Ez dut herriminik, baina beti joango dira nirekin M e x i k o handiko irudi ugari. Oraintxe bertan, hiru agertzen zaizkit, nire eskuarekin idazten edo nire arnasestuarekin arnasten hementxe egongo balira bezalaxe:

[1]

Monterreyko Reyes. 59ko apiril arin hartan izan zen, etxeko ate erraldoia ireki zidanean, Benjamín Hillen, Mexiko Hirian; eta alfontsotar eskailera igotzen hasi nintzen ni. Ez zitzaigun, bada, hil urte bereko abendu ilunean!

Orduko hartan, luze hitz egin genuen. Ni liluratuta nentorren Txinatik, Mao Tse Tungekin izandako elkarrizketa dela tarteko. Hain izan zen hizketaldi sendoa eta ederra... une hartan Reyesekin neukana bezalakoxea. Aipatu nion bere obra aberatsarekiko mendekotasuna nuela atxikimendua baino gehiago. «Sekula ez dugu izango horrelakorik gure Txilen», pentsatu nuen istant batean. Alfonso Reyes irakurtzea (Borges *dixit*) idazten ikastea da. Zer besterik zor diot Reyesi erakutsitako adeitasunetik harago eta bere grazia ziren elkarrizketa eta maisutasunetik harago? Gaur hauxe pentsatzen dut: inausketa; Leonardok zioen moduan, *l'ostinato rigore.*

[2]

Rivera, Diego Rivera, Txileko Concepcionen ikusi nuen, itsaski azoka batean. Garai hauteman nuen, eta zahar. Eta ezin sinetsizko zerbait gertatu zen, ezinbestean: eskuz egindako platertxoetan pyura eta itsaski gozoak eta beste txangurru distiratsu batzuk zutik jaten genituen bitartean, lurrikara baten

burrunba entzun genuen (Txileko geologia dardarazten duten egundoko pultsazio horiek), eta hara-hona ibili ziren labanak zein beirak bazter orotan. «Goazen kalera, hobeto ikustera», esan zidan begiluze handiak.

Eta, jakina, kalean ere beste astinaldi amaigabe bat, ez aurrekoa bezain malgua, gainera. Suge izugarri bat beste M e x i k o Hiri hartako dinastian, 85. urte inguruan.

[3]

Eta Octavio! Nola ahaztu Octavioz, bera izanik inor baino oxigenoagoa, inor baino Mexikoagoa? Ez dago hark bezala letraka dioenik: *hitzen araberako askatasuna*.

M e x i k o! Izan ere, oraindik ez dute aurkitu. Ezta deskodetu ere. Poetak jaiotzen zaizkio, baita margolariak eta musikariak ere, baina misterio handia ez da argitu. Nahiz eta ez den egongo hura baino eskualde gardenagorik, eta aldi berean, sekretuagorik. Hari gomendatzen diot neure burua egunero.

Noizbait entzun izan dut planetako *herri-mundu* guztien artean, hura eta ez beste zela *herri-munduena*. Ez dakit. Eta ez dakigunari buruz, hobe isilik egotea. Artaudek gehiago zekien. Gainerakook ez genuen ikastun izatetik aurrerago egin; eta atzerritarrez ari naiz, kanpotarrez, Txilen umorez esaten duten moduan "pajueranoez".

Nire lerro gaixook. Ez nintzen jaio. Ez nuen merezi. Beste sumendi batzuk eman zizkidaten. Baina horixe da nire bizitokia. Eta surrealismoari dagokionez... zertarako surrealismoa? Bretonek esan zuen moduan. Dena dabil hortik: herensugetik barraskilora, bakardadearen labirintotik barkatzen ez duen jendetzara, dagoeneko beste galaxia bat eskatzen duena.

Ikusiko dugu elkar. Har nazazue guztiz argitzat.

Walter
Benjaminen
azken
patua

Bada pentsatzen duenik Walter Benjaminek irailean egin zuela bere buruaz beste Portboun, eta eremu malkartsu horretara joaten dira, alferrikako erromesaldian, idazkun arraro eta kritiko bat irakurtzera: ekonomia «udatiarren» beste ironia bat. Ausardia apur batekin, haren biografoak, Tackelsek, adierazi du Benjaminek Hego Amerikara ihes egingo zukeela ahal izanez gero, «hondamendiak beste mundu baten agintza sekula galarazi ez duen tokira». Badira are ausartagoak ere, diotenak –frogak dituztela ere ziurtatzen dute– Walter Benjaminek izugarrikeriara ihes egitea lortu zuela, eta han ere bere ametsetako etxea bilatzen jarraitu zuela. Herratuaren jantzia kentzeko aukera emango zion etxea, azkenean. Bilaketa horrek Mexikoraino eraman zuen, Trotskyren arrastoen atzetik. Eta nahiz eta itsas ibilbidea oso luzea izan eta nahiz eta bidaian zehar komunista katalan batzuek hil zutela zioten berriak iritsi, ezerk ez zuen adoregabetu. Aitzitik, betiereko iraultzaren pentsatzailearekin biltzeko desioa –dagoeneko zapuztua zuena– berriz indartu zitzaion.

Diotenez, Veracruzen lehorreratu zen, eta

Mexiko

Hirira iritsi aurretik, hainbat tokitatik ibili omen zen nora ezean. Mexikoko lurraldearen zati handi bat zeharkatu zuen. Diotenez, basamortu paisaietan zehar alderrai ibili zen denbora batez, filosofo edo poeta ameslari baten arrastoen atzetik, droga sinesgaitzak probatuz eta errealitatearen beste esperientzia batzuetara lerratuz.

Diotenez, halaber, bere mugarik gabeko jakin-minak eta ezagutza oro esperimentatzeko zuen desio premiatsuak limurtu egin zuten, eta handik urte batzuetara lortu omen zuen hiri azkengabera iristea. *Flâneur* eskarmentudunaren pausoek, azkenik, Trostskyren etxera eraman zuten. Coyoacanen zegoen, hain justu. Ordurako, museo bihurtuta zegoen etxea: esan nahi baita, eraikin hila zen, historiaren igarotzeari ebatsitakoa. Barrutiaren ateetan, jagole nagusiaren alboan –artean ere jendearentzako arreta ordutegian– trakets idatzitako kartel bat irakur zitekeen: «Itxita». Behin eta berriz saiatu ondoren, baina, Benjaminek sartzea lortu zuen, lagun batekin. Antza, emakume bat, nahiz eta inork ez duen ziurtatu ahal izan. Baina haren ustekabeak ez gaitu harrituko. Izan ere, konbinazio arraroa baina aldi berean erakargarria zen hura: museoa ez den museoa, bere barne lorategi basatiaren begiespenean zintzilikatutako etxea, hiri handiaren erdi-erdian eta lur joarazitako aterpean ezkutatua, oraindik ere indarkeriazko heriotza baten atentatuaren aztarnen durundak entzuten direla: tokirik gabeko tokia, denboran izenik ez duena. Walter Benjamin bere pasarte ezagunetako batean bezala sartuko zen etxe horretan. Objektu ororen aurrean geratuko zen, zehaztasun oro, jantzi oro, higatze zeinu oro deskodetuko zuen, eta ametsen zein elkarrizketen oihartzun mututua entzungo zuen. Eta litekeena da baretasun erraldoi bat sentitu izana, adiskidearen hilobi lasaiaren aurrean bezalaxe,

eta halaxe irakurri izana bere kolkorako –erdi irribarrez– haren hilartitzaren ironia. Agian, ibilbidearen amaieran, kontu handiz utziko zuen bere kapela ideologoarenaren alboan. Eta, beharbada, toki sakratu baten pare errespetatuz, bere egingo zuen. Agian, betiko hantxe geratzeko bulka sentituko zuen, eta hala bada, abandonatutako etxe hartan, isilean, amaitu ahal izango zuen betiereko erbestealdi bihotz-erdiragarria.

Anáhuac

Nire egoera berriari aurre egiteko toki bat aukeratu behar izan nuenean... M e x i k o aukeratu nuen berehala, bozkarioz eta ziurtasunez, hainbat arrazoi, emozio eta sentimendu zirela tarteko. Gainera, lagunak nituen han, eta etxean bezala sentituko nintzateke, auzotasunagatik eta ohiturengatik, antzeko naturagatik eta kolonaurreko adierazpen komunengatik.

1930ean zapaldu nuen aurrenekoz Mexikoko lurra, eta egonaldi turistiko hartaz oroitzapen nostalgikoak gorde ditut. Orduko hartan, inolako aterperik gabe itzuli nintzen, lan apur bat egitea beste helbururik gabe, apaltasunez bizi ahal izateko. Nire aberriaren ateak itxita zeuden niretzat. Eta hain natural eta barneraturik bizi izan naiz, nire lagun mexikarrak zur eta lur geratu baitziren 1944ko urrian bat-batean muga gainditu nuenean, nire herriaren ahaleginarekin bat egiteko xedez. Anaitasunagatik, ez zuten gogoratzen edo ahaztu egin zuten Guatemalan jaioa nintzela.

(

Eta bosturteko batzuk geroago, 1953an, nire lurraldean gosez itxita, zoritxarrak berriz ere bertan bizitzen utzi ez zidanean, eta ordurako Lyaren konpainian, nire etxe bihurtu zen berriro M e x i k o . Ez nuke esango M e x i k o berriz bilatu nuenik nire lotura oso sakona izan zelako, eta horregatik, itzulera hori zorigaitz zoriontsutzat jotzen nuelako. Hementxe igaro ditut nire urteen erdiak baino gehiago. Nire lagunei, tradizioei eta guduei loturik. Hildako nire adiskideak ere gogoratzen ditut. Nola azaldu sentitzen dudana? Guatemalarra naiz, gure mitologien zeruan Suchiate udalerririk gabekoa

)

(

Sarri askotan gogogabetu egiten naiz, eta
orrialde hauek idazteari uzten diot;

aurrerago berriz ekiteko. Irrigarri geratzeko beldurra da koldarkeriarik okerrenetako bat... baina ez dugu zertan hain ausart izan ere. Oroimena germinala eta erditzailea da, eta ez da eleberri irudimentsua, baizik eta amodio-estalgile mitifikatzailea. Beti ari gara oroitzen, oroimenezko artxiboetan murgilduta, heriotzarekin baino areago bizitzarekin hizketan; Adamen zilbor-hestearen baitan sortzen. Heriotzan, dagoeneko itzarrik, ametsetan hitz egingo bagenu bezala

)

Sumendipean

[BI]

Izerdi-zapi beltz bat paisaia gainean

Dionisio Pulido, s u m e n d i baten jabe izateaz loriatu daitekeen munduko pertsona bakarra, ez da ezeren jabe. Oin gogor eta iharrak, beltzak eta hutsak baino ez ditu bizitzeko, eta horiekin ibiliko da lurraren bila. Eskuak erabat zikin ditu, txiroak gaur, aterpea bilatzen duenean lurra landu ahal izateko. Hori besterik ez du: bere gorputz maskala eta hautsez betetako arima, errauts beltzez estalia.

Cuiyútziro –taraskoz arranoa esan nahi du–, lantzeko moduko lurra zena, eta gainera, bere jabetzakoa, gaur ez da existitzen. Garai batean zuen «plana», lur mehe eta onekoa, hil egin da hareapean, munstro bolkaniko txiki eta ederraren supean.

Oraindik ere Paricutineko bere miseriazko etxezuloan bizi da, herri txiki suntsitu eta itxuragabean. S u m e n d i baten jabea da: ez da mundu honetako ezeren jabea.

Aita «geologoak» iparraldetik erreparatzen dio sumendiari. Guk, ordea, nahiago izan genuen iparmendebaldetik begiratu, handik ehun eta berrogeita hamar bat metroko distantziara.

0

30

60

90

120

–150 Gure ausardiagatik, harea lodiko erauntsia jasan behar izan genuen –ikaratuta ihesean gindoazela–, eta gure gidariek –Manuel Mateok eta Delfino Rangelek– bazterrera utzi gintuzten ia.

Mayo miresgarriak, ahalik eta argazki onenak lortzeko ahaleginean, oinak erre zituen –zorionez, ez larriki–, ziur asko sutan zegoen malda bat igotzen saiatzeagatik.

Seigarren egunean, gauez, Mexikoko Harana eta hiriaren harribitxi argitsuak begiztatzen genituela, hauxe galdetu nion: «Ez al zaizu iruditzen Mexiko Hiria, une hauetan, bere milioika argiekin, Paricutinen magala bezalakoa dela, su ahokada baten ostean?». Mayok baietz egin zuen buruarekin, isilka.

Bai. Eta orain, hau da geure buruari egin beharreko galdera: gure hiriko jauregietako, gure aberats zahar zein berrien jauregietako harribitxi horiek, harea argitsu horrek, ez al ditu desagerraraziko, beste hark bezalaxe, soroak eta lurra, loreak zimelduz eta aberri itzela errauts luzaezinez estaliz?

Anáhuacen ikuspegia

Gurea, Anáhuacena, gauza hobea da, bizkorgarriagoa. Bai, behintzat, une oro borondatea eta pentsamendua argi edukitzea gustatzen zaienentzat. Gure naturaren ikuspegi bereziena erdialdeko eskualdeetakoa da: han, landaredia zakarra eta heraldikoa da, paisaia antolatua eta atmosfera erabat gardena, non koloreak ere ito egiten baitira –marrazkiaren harmonia orokorrarekin konpentsatuz–; banakoaren ñabarduraz gauzak aurreratzen diren eter argitsua, eta, azken batean, Fray Manuel de Navarrete apal eta sentiberaren hitzetan adierazteko: zeruen mozorroa distirarazten duen argi dirdaitsua.

Ordurako ikusia zuen hori bidaiari handi batek, Espainia Berriaren harrotasuna bere izenarekin berretsi duenak. Gizon klasiko eta unibertsala da, Errenazimentuan hazitakoak bezalakoa, bere mendean bidaiatuz jakinduria eskuratzeko garai bateko modua berpiztu zuena, bai eta oroitzapenei eta bizitzaren gogarteari buruz soilik idazteko ohitura berpiztu zuena ere: bere *Saiakera politikoa*n, Humboldt baroiak eguzki izpiek erdiguneko goi ordokiko mendikatean duten erreberberazio arraroa sumatzen zuen, non airea arazten baita.

Paisaia hartan, antzutasun aristokratikodun paisaia hartan, begiek bereizmenez huts egiten dutenean, buruak lerro bakoitza deskodetzen du eta izurtze bakoitza laztantzen; eta aire distiratsu haren azpian, haren freskotasun eta baretasun orokorrean, eraman zuten pasieran gizon ezezagun haiek begirada espiritual zabal eta pentsakorra. Arranoaren eta

sugearen indipikondoaren aurrean estasi egoeran jarrita —gure sailaren laburpen zoriontsua—, asturu gaitzeko txoriaren ahotsa entzun zuten, aintzira abegitsu haietan babesa agintzen ziela. Geroago, palafito hartatik hiri bat sortuko zen, Zazpi Haitzuloetatik —gure lurretan barreiatutako zazpi familien sehaska— iristen ziren zaldun mitologikoen sartu-irtenekin birjendeztatua. Geroago, hiria inperio bihurtu zen, eta zibilizazio ziklopearen zarata, Babiloniakoaren zein Egiptokoaren pare, luzatu egiten zen, nekaturik, Moctezuma eriaren zorigaiztoko egunetara arte. Eta, orduan, txundimenerako ordu bekaizgarrian, sumendi elurtuak alde batetik bestera igaro ondoren, Cortesen gizonak («hautsa, izerdia eta burdina») soinu eta dirdaizko lurbira hartara agertu ziren —mendien zirku zabalera—.

Haren oinetan, kristalezko ilusio batean, hiri bitxia zabaltzen zen, oso-osorik tenplutik sortua, haren kale distiratsuek piramidearen ertzak luzatzen zituztela.

Eurenganaino, erritu ilun odoltsuren batean, xaramelaren kexua iristen zen —ulu eginez—, eta oihartzunean biderkatua, danbor basatiaren taupada.

Zaborraren arkeologia

Chapultepeceko aintziretan gordetako oroitzapena

Zaborrak irudikatzen duen gure profila izugarria eta zoragarria da, aldi berean. Gure hondakinetan dago geu garenaren, egiten dugunaren, kontsumitzen dugunaren eta kontsumitzen gaituenaren ispilua. Erregistro negatibo bat da: arreta gutxien eskaintzen diogun tokia; gure ohitura oinarrizkoenak, eta horrenbestez, batzuetan, aurrez aurreko erretratua baino askoz ere adierazgarriagoa. William Rathjek, bere *Rubbish: What Garbage Tells Us About Ourselves* liburuan, zaborraren arkeologiaren eta gizarte garaikidea ulertzeko estrategia gisa duen erabilgarritasunaren oinarriak ezarri ditu. Inolako zalantzarik gabe, gure gizartea da gizadiaren historian hondakin gehien sortu dituena.

Chapultepeceko Basoari buruzko proiektu arkeologikoaren zati moduan, aintziren dragatzearen ondorioz, lokatzez betetako ur horien sakontasunean utzitako zaborrei galdeketa egin diete, parkeko

bisitarien jarrera ereduak eta pertsona horiek aisialdi denbora bitarte horretan dituzten ohiturak ezagutu ahal izateko, non onargarriak baitira nagialdi, gogarte edo iheserako ordutxo batzuk; bai txalupa ezegonkor batzuetan arraunean, bai txoriren baten begiradapean noragabean oinez joanda, edo ehun urtetik gorako zuhaitz baten itzalpean etzanda, ezer egin gabe zein futbolean jolasean.

Chapultepeceko Basoa -bere zoo ezagunarekin batera- jostetarako parke ospetsu bat da gaur e gun. Horrenbestez, hondoratutako zaborraren kontaketari eta azterketari esker, herritarren lagin adierazgarri batek hondakinei dagokienez duen jarrera ulertu ahal izango dugu -eta, beraz, eremuko kutsadurari aurrea hartuko diogu-; baina horretaz gainera, eta are garrantzitsuagoa dena, arratsalde atsegin batean izaten diren bizimoduak, jardunak eta jarrerak araka ditzakegu.

Arkeologia, hain zuzen, helburu materialen bitartez egindako kulturaren adierazpen oro da, zeinahi garaitakoa. Chapultepecen kasuan, erregistratuta dauden aztarna antzinakoenak K.a. 1250. urtekoak dira, eta nahiz eta aintziretan aspaldi-aspaldiko hondakinak aurkitu (tezontlez egindako azteken garaiko pilota bat, esaterako), gehienak oraintsuko hondakinak dira; gehientsuenak hirurogeiko hamarkadatik gaur egunera artekoak. Mexiko Hiriko herritarrek aintzirara jaurtitako trepetei erreparatuta espazioari eta kulturari emandako erabilera ebaluatzeko asmoz, aurkitutako objektuen sailkapen sistematiko bat egiteari ekin zioten; hots, basoko ohiko bisitariaren lehen erradiografiaren oinarriak ezartzen dituen sailkapena egiten hasi ziren.

Aurkitutako objektuen artean, hauek dira nabarmentzeko modukoak:

zapatak, zapatilak, zamarrak, alkandorak, galtzerdiak, txankletak, kosmetikoak, arkatzak, sardina latak, atun latak, garagardo potoak, plastikozko botilak, txanponak, eguzkitako betaurrekoak eta betaurreko neurtuak, erregelak eta eskuairak, telefonoak, diru zorroak, grabagailu eramangarriak, audifonoak, giltzak eta giltzatakoak, xanpain eta koñak botilak, freskagarrien ontziak,

jostailuak, plastikozko animaliak, patinak, trizikloak, sinestamenduak, kreditu txartelak, kondoi eta viagra kaxak, patata zorroak eta Bimbo ogiarenak, arraun zatiak, haizemaileak, ikusgailuak, fantasiazko bitxiak, pixoihalak, azpiko arropa, pilak, mahai tresnak, emakumeen makillajea, aterkiak eta itzalkinak, matxardak, guraizeak, ispiluak, maskarak eta autoaren atalak

identifikatu ezin izan diren beste hainbat objekturen artean.

Trepetarik ohikoenak 2 litroko plastikozko botilak dira. Zulo bat izaten dute, eta muturrari lotuta axubeta bat eta kanabera bat, eta hain zuzen, Chapultepecen geratzen den fauna urtar apurra arrantzatzeko erabiltzen dituzte: zehazki, txaralak, akozilak, axoloteak... Azken zenbaketan, hainbat kategoriatako 45.382 trepeta berreskuratu zituzten. Botilak ziren 20.000tik gora, eta hori datu adierazgarria eta garrantzitsua da, ez soilik erakusten duen josteta jardueragatik, baizik eta baita horien erabilera industriala nahiko berria delako ere, duela 22 bat urtekoa.

Aurkikuntza berezienen artean, sorgintzako fetitxeak daude, gehien-gehienak maitasun araoekin zerikusia dutenak. Horrek adierazten digu aintzira gurtzarako toki gisa ere erabili izan dutela oraintsu. Era berean, *trollak* ere aurkitu izan dira; hots, zortearekin zerikusia duten panpinak, nahiz eta

gehienak erreta egon. Baita maitaleen argazkiak ere, erleen argizariz eta eztiz estalita.

Chapultepeceko aintzira artifizialak eraiki zituzteneko data zehatza zein den ez dakigun arren, jakin badakigu Porfirio Díazen garairako bazirela: lehenik eta behin, harriaren barneko uharte edo indusketa lan gisakoak ziren, eta gerora, ezpondak eta ontziralekuak egin zizkieten. Orain gutxiko dragatzearen aurretik egindakoei buruzko informazio fidagarririk ez dago, baina sedimentuetatik berreskuratu ziren gauza datadunen artean nabarmentzekoak dira, batetik, Bimbo ogiaren zorro bat, 1968koa, Olinpiar Jokoetakoa; bestetik, Bigarren Hezkuntzako ikasle baten sinestamendua, 1972koa; eta azkenik, Brown doktorearen ontzi bat, upeltxo modukoa, eta Jugosito freskagarriaren beste bat, bi-biak hirurogeikoak edo. Mellow-Jellow izeneko

plastikozko poto bat ere bada, Mexikon sekula saldu gabea. Baita «Chilanga» garagardo poto bat ere. Bereziki misteriozkoa da hori, orain artean ez baita marka horren erregistrorik inon aurkitu. Hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, trepetak ugaldu egin dira, eta horrek ispilatzen du aldaketa izan dela basora doan jende motan: dagoeneko ez da inguruko kolonietako pertsonentzako gune esklusiboa, paseo luzeak emateko erabiltzen dena, baizik herritarren jostetarako eremuen artean nagusia.

Konnotazio sexualeko aurkikuntzez harago –kondoiak, azpiko arropa edo viagra; hots, parkeari erabilera ausartagoa ematen zitzaiola adierazten dutenak–, bada bat enblematikoa, hiri handiaren erdian landarediz eta lasaitasunez betetako hektarea batzuek betetzen duten funtzioari dagokionez: 500etik gora publizitate paper biltzen zituen

supermerkatuko poltsa bat. Pentsa dezakegu pertsona batek bere lan gogorra betetzeari uko egin eta eskatutako orriak ez banatzea erabaki zuela, eta okerkeria ezkutatzeko poltsa uretara botatzea erabaki zuela, bere buruari galde-erantzun hau eginez: nork jakingo du, bada?

Aintziran bildutako objektuak hiru motatakoak dira:

A) Istripuz eroritakoak: dirua edo betaurrekoak, adibidez.

B) Nahita botatakoak, zerbait ezkutatzeko asmoz –esaterako, 38 kalibreko bala bat aurkitu zuten–, edo bihurrikeriaz egindakoak; adibidez, ikastetxetik adiskide talde bat atera zenekoa, eta kideetako baten zapata uretara bota zutenekoa.

C) Erritu, sorginkeria edo santukerian oinarritutako asmoz urperatutakoak; nahiz eta kopuruz gutxiago izan, bitxiak dira oso.

Datu ofizialen arabera, ez zen aurkikuntza makabrorik izan, ezta krimenen bat argitzeko baliagarria denik ere. Ahateen, karraskarien edo erbien hezur eta eskeleto ugari, baita zootik ihes egindako animaliaren batena edo hegazti harrapariren batek eraso egindakoren batena ere. Gisa horretako gauzak bai, baina hilketa edo hilotzen inolako ebidentziarik gabe.

Eta
txori batek
txio
egin zuen

Isiltasun gardenean
eguna pausatzen ari zen:
espazioaren gardentasuna
isiltasunaren gardentasuna zen.
Zeruaren argi geldiak
belarren hazkundea baretzen zuen.
Lurreko zomorroak,
harri artekoak,
argi beraren pean zeudenak,
harriak ziren.
Denbora minutuan betetzen zen.
Gelditasun bilduan
eguerdia azkentzen zen.

Eta txori batek txio egin zuen,
gezi mehea. Zauritutako
zilarrezko bularra, zeruak
dar-dar egin zuen,
eta hostoak mugitu ziren,
belarrak esnatu...
Eta sentitu nuen heriotza gezi
bat zela,nork jaurtitakoa den
ez dakiguna,
eta begi gorabehera batean,
hil egiten gara.

Eskaintza

Kontsumoa eta azteken mundua ulertzea

Aztekak, horiei buruz hitz egingo baitut hasiera batean, gure antipodetan daude moralki kokatuta. Zibilizazio bat bere egintzengatik neurtzen denez, haiena hutsala iruditzen zaigu. Alabaina, bazekiten idazten eta bazituzten astronomiari buruzko ezagutzak, nahiz eta euren egintza garrantzitsuenak alferrikakoak izan: arkitekturaz zuten zientzia baliagarria zitzaien piramideak eraikitzeko, eta horien gorenean gizakiak immolatzen zituzten.

Aztekek munduaz zuten ikuskera gure jarduera ikuspegietan dugunaren aurkakoa da diametralki eta bereziki. Kontsumoak ez zuen haien pentsamenduetan geurean ekoizpenak duena baino toki txikiagoa. Geu *lan egiteaz* bezain kezkatuta zeuden haiek *sakrifikatzeaz*.

Euren begietara, eguzkia bera sakrifizioaren adierazpena zen. Gizakiaren pareko jainkoa zen, peoi baten garretara erorita eguzki bihurtu zena.

Bernardino de Sahagún espainiar frantziskotarrak, XVI. mende erdialdeko idazleak, honela adierazi zuen garai bateko azteka batzuek kontatu ziotena:

> Diotenez, eguna iritsi aurretik, Teotihuacán izeneko toki batean bildu ziren jainko-jainkosak (...), eta honela galdetu zieten batzuek besteei: Nor arduratuko da mundua argitzeaz? Tecuciztécatl izeneko jainko batek honela erantzun zuen: Ni naiz argitzeaz arduratuko

dena. Jainko-jainkosek bigarrengoz hitz egin zuten: Beste inork? Ondoren, batzuk besteei begira jarri ziren, bigarrena nor izango bilatu nahian, baina inor ez zen ausartzen bere burua zeregin horretarako eskaintzen; beldur ziren eta desenkusatu egiten ziren. Haietako batek, zeina ez baitzuten kontuan hartzen eta zorne zorroz betea baitzegoen, ez zuen hitzik egiten, eta gainerakoen hitzak entzuten zituen. Orduan, hitza eman zioten, honela esanez: Izan zaitez zeu, zorne zorrodun hori. Gogotsua zenez, eskatutakoari men egin, eta erantzun zien: Zuen agindua graziatzat hartuko dut; hala izan dadila. Berehala, lau eguneko penitentzia bat hasi zuten bi aukeratuek. Ondoren, arroka batean prestatutako sua piztu zuten (...) Tecuiciztécatl izeneko jainkoak gauza baliotsuak baino ez zituen eskaintzen, *bouquet* direlakoak eskaini beharrean, *quetzalli* izeneko luma aberatseko eskaintzak egiten baitzituen; belar harilen ordez, urrezko esferak eskaintzen zituen; harribitxiz egindako elorriak, magueyz egindakoen tokian; eta koral gorriz egindako elorriak, elorri odoleztatuen tokian. Gainera, e s k a i n t z a egiteko erabili zuen kopala onenetakoa zen. *Zorne zorrodunak*, Nanauatzin izenekoak, berriz, hirunaka lotutako bederatzi kanabera berde eskaini zituen, sorta arrunten tokian. Belar harilak eta magueyz egindako elorriak eskaini zituen, bere odolez

odoleztatuak, eta kopalaren tokian, bere zorne zorroen zarakarrak baliatuz egin zuen e s k a i n t z a . Jainko hauetako bakoitzarentzat muino itxurako dorre bat eraiki zuten. Eta han egin zuten penitentzia, lau egunez eta lau gauez. Lau penitentzia gauak igaro ondoren, gune horren inguruan jaurti zituzten sortak, *bouquetak* eta erabilitako gainerako objektu guztiak. Hurrengo gauean, gauerdiak jo ondoren, elizkizunak hastera zihoazenean, Tecuciztécatlen eliz jantziak eraman zituzten; hau da, *aztacomitl* izeneko lumadiak eta ehun arinez egindako abitua. Nanauatzin *zorne zorrodunari,* berriz, *anatzontli* izeneko paperezko zapi batekin estali zioten burua, eta paperezko estola bat jarri zioten. Gauerdian, jainko-jainkosa guztiak *teotexcalli* izeneko suaren inguruan jarri ziren. Su horrek garretan iraun zuen lau egunean.

Jainko-jainkosak bi ilaratan banatu ziren, suaren alde banatan jarrita. Bi aukeratuak sutik gertu jarri ziren, zutik zeuden jainko-jainkosen bi ilaren artean, suari begira. Jainko-jainkosek honela esan zioten Tecuciztécatli: Aurrera Tecuciztécatl, bota zeure burua sutara! Bere burua botatzen ahalegindu zen, baina sua handia zen oso, eta gori zegoen. Horregatik, izuak harrapatu zuen, eta beroa sentitzean, atzera egin zuen. Adorez ekin zion bigarrengoz ere, bere burua sutara botatzekotan, baina hurbiltzean,

gelditu egin zen, eta ez zen gehiago ausartu. Alabaina, bazen agindu bat: inor ezingo zen saiatu lau bider baino gehiagotan. Horregatik, lau saialdiak egin ondoren, honela esan zioten jainko-jainkosek Nanauatzini: Aurrera Nanauatzin! Zure txanda da! Hitz horiek esatearekin batera, beharrezko indar guztiak bildu, begiak itxi eta sutara bota zuen bere burua. Berehala hasi zen txinpartaka, objektu erre batek egiten duen moduan. Tecuciztécatl, besteak sutara jauzi egin zuela eta erretzen ari zela ikusita, abiada hartu, eta txingarretara amildu zen. Diotenez, une horretan bertan, arrano bat sartu zen sutara, eta erre egin zen. Horregatik omen ditu hegazti horrek luma belzkarak.

«Handik gutxira, jainko-jainkosek, belauniko jarrita zeudela, 'eguzki bihurtuta' ikusi zuten Nanauatzin, ekialdetik irteten. 'Gori-gori azaldu zen, alde batetik bestera kulunkan. Inortxok ezin zuen harengan begirada finkatu, itsutzeko modukoa baitzen, distira handiegia egiten baitzuen, norabide guztietara zabaltzen ziren izpiengatik.' Ilargia ostertzetik gora azaldu zen, bere txanda iritsi zenean. Tecuciztécatlek, zalantzatan ibili zelako, ez zuen hainbesteko distirarik. Ondoren, jainko-jainkosek ez zuten hiltzea beste aukerarik izan. Haizeak, Quetzalcóatlek, akabatu zituen guztiak: haizeak bihotza kendu zien, eta horrekin indarra eman zien izar jaioberriei.»

Ezinbestekoa da mito horren sinesmenetara hurbiltzea. Horren arabera, gizakiak, eta ez soilik gizakiak, baizik eta baita gerrak ere, «eguzkiak jateko moduko bihotza eta odola izango zituen jendea edukitzeko»* sortu ziren. Bistan denez, sinesmen horrek kontsumoaren muturreko balioari begira duen zentzua ez da mitoak duena baino txikiagoa. Urtero, jainko-jainkosek agindutako lau eguneko baraua egiten zuten mexikarrek, eguzkiaren ohorez. Ondoren, azaleko gaitzak zituzten legenardunak immolatzen zituzten, *zorne zorroduna* bezalakoxeak. Pentsamendua euren ekintzen adierazpena baino ez zen beraientzat.

* Bernardino de Sahagún, *Historia de las cosas de la Nueva España.*

Eskaintza zeiharra

Imajina dezagun ikertzaile bat, erituen analisian espezialista den ikertzaile bat, obra honetaz arduratzen dena. Eta inortxok ez du sekula jakingo eskaintza hari zuzendutakoa zela. Nolanahi ere den, bere helburu bihurtzen du, iruditzen zaio bertan ikusten duela zeremonia baten garapen erritualizatua, baita liturgia batena ere, eta gai bat bihurtzen du, analisirako objektu. Erituak, izan ere, ez du eremu bat definitzen. Toki guztietan daude erituak. Erituik gabe ez legoke gizarterik, ezta instituziorik eta historiarik ere. Ez da interesekoa ea nor espezializa daitekeen erituen analisian: ez baita espezialitate bat. Ikertzaile hori, esan dezagun analista hori, soziologoa edo antropologoa ere izan liteke, edo historialaria, edo arte zein literatur kritikaria, baita filosofoa ere. Zeu edo neu. Neurri batean, daukagun eskarmentuagatik eta gutxi-asko naturalki, gutariko bakoitzak joka dezake analistaren edo erritu kritikariaren rola, eta inork ez dio horri erabat uko egiten. Bestalde, obra honetan rol bat jokatzeko, edo nonahi rol bat jokatzeko, beharrezkoa da erituaren logikan izena emanda edukitzea, eta zehazki ondo bideratzeko, akatsak eta urratzeak saihesteko, ezinbestekoa da, hein batean behintzat, hori aztertzeko gai izatea. Beharrezkoa da erituen arauak ulertzea eta horien funtzionamendu arauak interpretatzea.

Distantziari eta aldeei erreparatu gabe, aktorearen eta analistaren arteko mugek lausoak dirudite. Beti dira irekiak. Horiek desagerrarazi egin behar dira, baldin eta analisi bat egingo bada, baina baita jokaera egokia eta erritualizatua izateko ere.

Dena den, «irakurle kritiko» (*critical reader*) batek, arrazoi osoz esango luke analisi guztiak ez direla baliokideak: izan ere, ez al dago funtsezko desberdintasunik erritu batean *comme il faut* parte hartzeko haren arauak ulertu behar dituenak egindako analisiaren eta erituari egokitzea baino gehiago hura azaltzea, objektibatzea eta haren hasieraren eta amaieraren berri ematea bilatzen duenak egindako analisiaren artean? Ez al da hori, hain zuzen, desberdintasun kritiko bat? Azken batean, parte-hartzaileak aztertu, irakurri eta interpretatu egin behar badu, jarrera kritikoari ere eutsi egin beharko dio, hein batean bada ere. Eta, gainera, modu objektibatzailean. Baita haren jarduera sarri askotan pasibotasunetik eta are pasiotik hurbil badago ere, eta ekintza kritikoen eta kriteriologikoen arabera jarduten badu. Ezinbestekoa da, halaber, titulu batekin edo besterekin, erritu prozesuaren aktore bihurtzen denaren bereizkeria ernea: eragilea, onuraduna, apaiza, sakrifikatzailea, tresnazaina, eta baita baztertua, biktima, bilaua edo pharmakos ere, eskaintza bera izan daitekeena; izan ere, eskaintza sekula ez da izaten gauza huts bat, baizik eta diskurtso bat, edo behintzat,

diskurtso baterako aukera, sinbolikotasun ekintza bat. Parte-hartzaileak aukeratu egin behar du, hauteman, bereizi, ebaluatu. *Krinein* baten arabera jardun behar du. Eta «ikus-entzulea» ere egoera berean dago (kasu honetan, alearen barneko edo kanpoko irakurlea). Kritikaria eta ez-kritikaria aurrez aurre jarri ordez, kritikariaren eta ez-kritikariaren edo objektibotasunaren eta haren aurkakoaren artean aukeratu edo erabaki ordez, beharrezkoa litzateke, alde batetik, kritikarien arteko aldeak adieraztea; eta, bestetik, ez-kritikariak oposagarria ez den toki batean kokatzea, eta agian, ezta kritikariarenetik kanpoko tokian ere. Kritikaria eta ez-kritikaria ez dira, hain zuzen, berdin-berdinak, baina beharbada, barne-barnean, gauza berean parte hartzen dute biek...

Odolez eta eguzkiz . . . . . .

Antzinarotik, sakrifizioan eskainitako odola elementu magikotzat jo izan dute. Sakrifizioaren odol bizia apaizak edo aztiak eskatutako energien igorlea da. Norbait odol horrekin igurzten bada edo odol horretan bustitzen bada, botere edo onura pertsonalak jasoko ditu. Hori bat dator banpiroen sinesmenarekin; izan ere, elezaharraren jatorrian,

banpiroen Europa kristaua eta karolingiarra dago, Piero Camporesik bere *La sève de la vie* saiakeran aipatu zuena. Bertan, odol ustelagatik madarikatua eta ukatua jaiotzen da pertsona, elizaren kulturak tabu paganoak berreskuratu, eta beste gogortasun bat ematen baitie.

Johannes Abbasen arabera, «sakrifizioek, nola animalienek, hala gizakienek, tokia izan dute historiaren uneren batean, ia kultura guztietan: aztekan, maian, karibetarrean, boskimanoan, eta nola ez, antzinaroan. Eta kultura finduek ere, greziarrak eta etruskoak esaterako, baliatu zuten».

Kristautasunaren erritu den odolari dagokionez, Abbasek berak adierazi zuen «Jesusen sakrifizioaren punturik garrantzitsuena, hain justu, gainditu beharreko beste aliantza txar bati aurka egiteko aliantza berri bat izatea» dela. Sakrifizio mosaikoaz dihardu, bai eta «Yaldabaoth (Mastema) sortzaileari edo demiurgoari, Yahvéren espiritu gaiztoari, eskaintzen zaizkion egoerez ere».

Odolak filmetan edo literatur lanetan duen indar sinbolikoak ezer gutxi du ikustekorik indarkeriazko edukiz asetzera «ohituta» dagoen publikoarekin, edo hartzailearen planoan ezintasun kritikoan murgilduta dagoen publikoarekin; ikustekoa du, soilik, fedearen alorrean berehalakotasuna gainditzen duten amaiera sinbolikoekin. Azken batean, sinboloek pertsonen inkontzientearen planoari zein haien arrazoimenari dei egiten baitiete.

Larrialdi materiagabeen mundu honetan, energiak ikusezin bihurtzeko joera duen honetan, hainbeste protesi haragigabetan gorputz organikoa gorputz ez-organikoarekin batera bizitzen hasi den honetan, eta errealitatearen irudikapenek errealitatea bera baino garrantzitsuagoak izan nahi duten honetan, edo komunikaziozko interkonexioetarako duen aginduak gurutzaketa anizkunetarako bulkada adierazten duen mundu honetan, odolaren misterioak biziaren, bere egoera absolutuan, beharrezko eta funtseko oinarri gisa irauten du.

Jean Guitton filosofo katolikoak zehaztu zuenez, odolaren sinboloa, sinbolo oro bezalaxe, enigmatikoa eta anbiguoa da, eta nahaste ere bihur liteke. Horregatik, bere buruari galdetzen zion zer aberastasun gordeko ote zuen kosmosari, gure arrazari eta gure ondoretasunei lotzen gaituen odolaren likido zurrunbiloak.

Misterio horretara hurbildu zen David Herbert Lawrence ere, 1928ko bere *La mujer que se fue a caballo* kontakizun bikainean –Octavio Pazek 1939an egin zion aipamena, *La serpiente emplumada* lana aztertzean–. Obra horrek azal zuriko estatubatuar emakume bat du protagonista, Chihuahuako mendietan, Mexiko iparraldean, kobre koloreko indigenen tribu bati bere burua eskaintzen diona, eta azkenean, tribuko kideek euren jainkoari sakrifizioz ematen diotena, munduak duen berpizkunde etengabearen ikuskeraren menera:

«Behin olioz igurtzi zutenean, harri lau baten gainean etzan zuten, eta lau gizon gihartsuk beso eta zango ondo luzatuetatik eutsi zioten. Emakumearen atzealdean agurea zegoen, beira beltzez estalitako eskeleto baten pare; labana bat zeukan eskuetan, eta eguzkiari begira ari zen. Haren atzean, berriz, beste apaiz bat, erabat biluzik, hark ere labana bat eskuan. Emakumea ia axolagabe zegoen, nahiz eta ondo jabetzen zen zer ari zen gertatzen [...] Agurearen begiak ziren artega ez zeuden bakarrak. Beltzak, finkoak eta itsu antzekoak, eguzkiari so, eguzkitik harago ikusiz. Eta haren begi nini beltz eta hutsean, boterea zegoen: botere indartsu eta urrunekoa, baina sakona; hain sakona, lurraren zein eguzkiaren bihotzera ere iristen baitzen. Baretasunean, eguzki gorriak izotzezko zutabea zeharkatzea espero zuen. Orduan, emakumea zauritzera zihoan agurea, bihotzaren erdi-erdian zauritzera ere; sakrifizioa gauzatu, eta boterea lortzeko. Gizakiak egikaritu behar duen nagusitasuna, arrazaz arraza igarotzen dena».

Paragrafo honetan, sinboloen geopolitika izendatzeko beste modu bat sumatzen da. Eremurik kulturalenetik, testualenetik eta pertsonalenetik behin eta berriz galdekatu beharreko planetan hedatutako espiritua: mundua liburu gisa eta liburua mundu gisa. Mitoa, jaia, erritua. Sakratutasuna galdua duen garai batean, sakratuaren ikuspegiak, askotariko formetan, beti aurkituko du bere presentzia eta bere tokia; izan ere, etorkizuna den

orainaldiaren euskarria da. Jatorriaren odola: aho alderantzikagarriko ezpata.

Ez da harrokeria txikiena pertsonak euren egiazko bizimodua eremu publiko eta profanoetan daukatela pentsatzera daramatzana. Politikaren erreinutik entretenimenduarenera, bertan ekindako ekintza guztiak ametsen baten, klandestinitate, itxaropen edo etsipen intimo baten parodiazko luzapenak baino ez dira, beti ohiko erakuskerietatik baino adierazezinetik gertuago dagoen eremu batetik taupaka dabiltzanak, konprometigarria edo gardena izateagatik, bilakaera baten adierazle izateagatik.

Zer eremu izan liteke? Haren perimetroa saihespenezkoa eta mugikorra da, osatzen duen materiala bezalakoxea: unean bertan haragitutako oroitzapena. Ez dago pertsonarik, bere haurtzaroari edo ikarei kolektiboek sakralizazioetan dituztenei lotutako bihozkadak edo erritu intimoak gehitzen ez dizkionik: bizitzaren eta heriotzaren arteko atalase argitsua uztea. Ez dago, halaber, pertsona kutun batekin izandako une esferikorik gogoratzen ez duenik, zeinetan amaierarik gabeko zauria ireki baitzitzaion. Irribarre bat, herra makurra izango den besteren gorputzeko eremuren bati begiratutxoa ematea. Edo erdi irekitako ate bat, ispiluari eguzki izpi bat jaurti zion arratsaldea, ostadarra ukitu eta oraindik amaitu gabe dagoen galdera bat piztu zuena. Eta galdutako objektuak; nola gudu odolgabeak, hala irakurketen lurrunaren aurreko jolasak, akats oharrarazlez xalotasuna deritzena. Pixkanaka-

pixkanaka datorren bestetasunaren zurtasuna. Kapela aitatiarrak, horien lumak, tresnak eta makina loturagabeak, erabilgarritasun orotarako begirada itsu batentzat. Hildako ama baten arroparen usaina, gela hutsak eta izotzak hortzetan eta ur hotz-hotzak besoetan sentiarazten duten plazer paraleloa.

Lotsak itsutu egiten ditu era horretako txerak, eta ordeztu egiten ditu, hutsalkeriei ere funtzioa, kalkulua eta probetxua emateko grina garaikidearekin, azkenean erabakigarriak baitira, egunerokoa mugiarazten baitute, traizioa eginez gero ikusezin bihurtzen den hura mugiarazten, isilka sartu eta trama publiko eta profanoaren ahultasuna ausikitzen duena mugiarazten, eta jakina, termino batekin («pribatua») itxiarazi nahi duen muga dogmatikoa gainditzen duena mugiarazten: eremu sakratuak, aldizkako existentzia, alboko existentzia dutenak; diagonalen sarea, non berriz topo egingo baitugu: ekintzak diren sinboloak, sinbolizatzen duten ekitaldiak.

Objektuek eta egoera bakanek (oroitzapen batzuek, kasu) ezin banatuzko ikara eta atxikimendua pizten dute mugarik gabe hedatzen den eta arlo pertsonala munduarekin lotzen duen substantzia batekiko. Hor irakur daiteke arriskuaren eta izuaren anbiguotasuna, hautematean isildu edo salatu egiten duten arrisku eta izuak, baina bizitza berekia dutenak eta hautematen dituztenak gainditzeko gai direnak; norbaitek, beharbada, berreskuratu egingo ditu lehenago edo geroago.

Adibidez, Louis Aragon, Michel Leiris eta Walter Benjaminek eguneroko bizitzan sakratua denaren barruti gisa erregistratu zituzten prostituzio etxeak eta kabaretak. Mitologia moderno bat eratzeko proiektu surrealista zabaltzen zuten: nork daki, agian lortu zuten. Baina egia da gerra, deuseztatze esparruak eta teknikaren borondate totalitarioa iragartzen zuten ezpalak bildu zituztela: modernoaren ondorio beltzak. Historiak erabat zapuztu nahi ditu arrazoi planifikatzailea eta haren idolo engainagarriak: gaur-gaurkoa eta eraginkortasuna, irabaziaren eta etekinaren maximizatzea, teknika eta haren instrumentalizazio laikoa, alderantzizko fedearen helmuga hedakor bihurtua.

Gure misterioen eta beste batzuenen bidegurutzean, euren bikaintasunagatik eta iheskortasunagatik elkar erakartzen duten zeinuak sortzen dira. Eta horregatik, zenbait kale eta toki zeharkatzen ditu batek (bakoitzak bereak ditu), eta horietan, zortea aldeko izanez gero, betierekoaren ordainsaria izango du zain: linjeria dendetako erakusleihoak, hiri hazkuntzagatik hesituta dauden kanposantuak, belar denden eta objektu liturgikoen igarobideak, taxidermia tailerrak, argazkilari erretratugileen estudioak, liburu denda zaharrak zein garaikideak, auzoko paper dendak; hangar laburrak, aeromodelismoaren eta ilusioaren gotorlekuak, musika-tresnen errepertorioak, tenpluak, baso bat eta museo bat, bikoteentzako hotel bat, zinema areto zahar bat eta beste baten

dekorazioa, ostatu edo taberna bat, eta eraikin bat, dagoeneko existitzen ez den baina horregatik gustukoagoa denaren itzal zurbila: berria izateagatik. Eremu horietan berpiztu egin da ustekabekoarekiko desioa eta lilura, besteren zoritxarrarengatiko morboa eta bekatuen aurrean sortzen den barrea. Zirrikitutik begiratzeak azkenean biluzik den edertasuna salatzen du, kontakizun fantastikoen galdara, eta ikus daiteke, halaber, nola eratzen diren gaueko zaldunen aieruak, kaltearen amesgaiztoa eta azpikeriazko indarkeria. Sekretuaren pasahitzak.

J. W. Von Goethek sinboloen funtsa marrazten duen ipuin bat osatu zuen: «Sugeak urrezko erregearen itxura handientsuaren aurrean begiak altxatu bezain pronto, erregea hizketan hasi da, eta galdetu dio: Nondik zatoz? Urrea dagoen sakontasunen haitzulotik, erantzun dio sugeak. Zer da urrea baino bikainagoa?, galdetu du erregeak. Argia, erantzun dio sugeak. Eta zer da argia baino freskagarriagoa?, galdetu du lehenak. Hitza, erantzun dio sugeak». Alegia, jakinduria, distira, indarra. Bazterrean utzitako berpiztearentzako bide bat, azkenean.

Mundua mugarriztatzeak berarekin dakar eremuaren oroigarri hau, denboraren eta patuaren bidegabekeria, heriotzaren sumindurak, kaosa, hondamendia eta haren aginduak exorzizatzen dituena: sorkuntza bera, bere sakontasunean –aurkaria ere barne hartzen duena–, gauerantz doan azken atetik harago dirdiratzen duen distira dualerako arrastoa...

Gauari buruzko irakurgai baten pasartea

«Hil egingo naizela amesten dudala pentsatzen dut. Ez dakit amets bat den ala pentsamendu bat. Gogoan dut txinatar ipuin hori, tximeleta bat dela amesten duen gizonarena. Hil egingo naizela amesten dudala pentsatzen dudala idazten dut. Eta orduan, neure burua hiltzen ikusten dut. Gauza beraren arteko atalasea –*shadow fine*– beste aldera igarotzen dut. Bizirik nengoenean gogoratzen nuena bezalaxe dago dena; batez ere, nire azken egunetan, oroitzapen urrunenak erregistratzeko irrika bizia nuenean. Ez nuen jakin orduan non gertatzen zen nabarmenki eszenikoa zen jolas hori, gizon-emakumeak ere denbora askoko distantziatik ikusten direnean, ni jaio aurretik ateratako argazkiekin osatutako album bat bailitzan. Pentsatu dut ez ote den heriotzaren mundu hori arruntegia ezaguna delako. Mundu horretan ez dago *ezaguna* zaigun ezer, oroimenaren bizitzan gogoratua ez den ezer –oroitzapenaren bizitza hilezkorra, Betiereko Desiraren aztarna ezin iraungizkoa–. Atalasetik harago imajinatzen dut bizitza, beste munduan, alegia...».

Idazleak isilunea egin zuen, eta irakurketa amaitu ondoren, txalo ahul batzuk entzun ziren.

Mikrofonotik honela esan zien ahots batek han zeudenei: «Norbaitek galderarik egin nahi badio Salvador Elizondori, har dezala hitza.»

Isilune labur baten ondoren, jendartean eserita zegoen gizon batek eskua altxatu, eta esan zuen:

–Mila esker, maisu. Ohore bat izan da zure «Noctuarios» lanaren irakurketa entzutea. Badut galdera bat. Zure eskarmentuaren arabera, poetarentzat zer da gaua: ona, txarra ala erdipurdikoa?

–Lagun agurgarria, ezinezkoa bezain alferrikakoa litzateke gaua zer den laburbiltzea. Hain da gauza sakona eta aukerez josia, eta ez soilik poesiarentzat, baita gizakiarentzat ere... gaua ulertezina da...

–Baina maisu –eten du hizketakideak–, jakin nahi dudana oso sinplea da: gaua ona, txarra ala erdipurdikoa da?

–Lagun agurgarria, ez litzaidake gustatuko erantzun bat eman eta zeuk desengainua hartzea. Gaua poesia bera bezalakoa da: menderaezina, infinitua. Ezingo genuke esan poesia txarra edo ona dela, eta are gutxiago erdipurdikoa, gau gorabeheratsu batean edo mozkorraldi batean idatzitako poema logabe edo amesgaiztoko poema bat oharkabean aurkitzeagatik.

Ergelkeriaz, hitzaldiko ikus-entzuleak berriz galdetu dio. «Dena den, maisu, jakin egin nahi dut: gaua ona, txarra ala erdipurdikoa da?»

Idazleak, aspertuta, zutitu, eta irakurraldia amaitu dela esan du. Gela uztera doanean, baina, honela bota du:

–Ondo da. Ona da, bai, gaua ona da...

Jolas sakratua

[LAU]



Zoritxarreko
pilota jokoa

Pilota j o k o a n ari da Huémac; euriaren eta lurraren jainkoekin ari da.

Tlaloquek esan diote: Zer irabaziko dugu jokatuz gero?

Huémacek erantzun du: «Nire jadeak, nire ketzal lumak».

Gero, jainkoek esan dute: «Horixe bera irabaziko duzu zuk: gure harri berdeak, gure ketzal lumak».

Jokoan da pilota: Huémac izan da garaile.

Badatoz jainkoak, Huémaci eman beharrekoa aldatzera: ketzal lumak eman ordez, artaburu samurrak eman dizkiote; luma finen ordez, hosto berdedun artaburuak eman dizkiote, barruan daramatena eta guzti.

Huémacek ez du hori jaso nahi: «Ez da nik jokatutakoa! Ez al ziren jadeak? Ez al ziren ketzal lumak? Ken ezazue hori hemendik!».

Jainkoek esan dute: «Ongi da, emazkiozue jadeak; emazkiozue lumak».

Eta dohainak hartu, eta alde egin dute, eta eurekin eraman dituzte altxorrak.

Eta bidean honela diote: «Gorde ditzagun lau urtez gure altxorrak: gosea eta larrimina paira ditzatela».

Eta izotza bota du, belaunetaraino; elikagaiak galdu egin dira, eta izotza bota du uda bete-betean. Eta hainbestekoa da eguzkiaren garra, ezen dena lehortu baitu: zuhaitzak, kaktusak, agabeak eta baita harriak ere zatitu dira, eguzkiaren su txikiaren ondorioz eztanda eginda.

J o k o a n azpimunduan*

Jokoaren arauak errazak dira. Irakurleak, adibidez zuk zeuk, erdialdeko Amerikako edo beste nonbaiteko mitologiako bikien izenak, jainko-jainkosen izenak eta «azpimundu» gisa ezagututako eskualdeen izenak erabili behar dituzu hutsuneak betetzeko.

_____eta_____urrunegi joan ziren pilota j o k o a n . Haien boteek eta jauziek lurra ikaratu zuten. Iskanbila harekin gogaituta, _____ _____(r)en jaun beldurgarriek euren erreinura jaitsi eta euren kontra jokatzeko desafioa bota zieten. Jolasteko uhaleria hartuta, bikiak lurpeko mundura zeramaten eskailera pikoetan behera jaitsi ziren, trokarte meharreko ibaiaren ertzera iritsi ziren arte. Jikaro arantzadunezko urak igaro zituzten. Odolezko ibaiaren ertzera iritsi ziren; gero urezko ibaira. Garaituak izan ziren lau bideen gurutzera iristean –gorria, beltza, zuria eta horia–, bide beltzaren argibideari jarraitu baitzioten hark gidatuko zituela esan zienean. Hala, kontseiluaren aretoan sartu zirenean, ezagutu nahi zituzten jaunak egurrezko panpinak besterik ez ziren. Nahasita, bikiek panpinak agurtu zituzten, eta _____ _____(r)en benetako jaunen barre algarak eragin zituzten, begira ari baitzitzaizkien, ezkutatuta. Gainerako iseka eta oinaze guztiak etorri ziren atzetik: jaunek harri beroz egindako eserlekuetan eseri zituzten

bikiak, ipurmasailak erretzeko; etxe ilunean sartu zituzten; gero, haize izoztu jasangaitzaren etxean; iseka egiten zieten jaguar orrolarien etxean; jira biraka hegan egiten zuten saguzar oihularien etxean; labana zorrotz eta kirrinkarien etxean. _____ eta _____ probak gainditzen joan ziren; baina azkenean garaitu egin zituzten, eta sakrifikatu. _____ _____(r)ren buru ebakia fruiturik ematen ez zuen jikaroaren azpian utzi zuten. Zuhaitzak fruitu ugari eman zuen orduan, eta fruitu haietako bat, hostotzan ezkutatuta zegoena, _____(r)en buru birsortua izan zen. _____ birjinak, _____(r)en alabak, fruitua hartu nahi izan zuen. Fruituak tu egin zion esku irekiaren ahurrean, eta birjina haurdun geratu zen. Harengandik sortu ziren bigarren bikiak, _____ eta _____.

Lehen biki haien jaitsiera heriotzaren erreinura balentria mitiko luze baten atarikoa izan zen, eta balentria hura bigarren bikien apoteosiarekin amaitu zen. Drama kosmikoaren eskakizuna izan zen heroiek lurpera bidaiatzea. Gizakiek bide beldurgarri huraxe egiten zuten bizia galtzean. Ez gizakiek osotasunean: haien

arimetako batek bakarrik egiten zuen bidaia, bihotzeko arimak. Heriotzaren ondorioz, gorputzaren osagaiak sakabanatu egiten ziren, eta nortasunaren arimak bidaia abiatzen zuen garbitasunera eramango zuen bide hotz hartan barrena. Haren historia osoa, banakotasunaren arrasto guztiak bideko oinazeetan geratzen ziren. *Mictécah* zirelakoek –nahuek izen hori erabiltzen zuten lurpeko bidaiari hilak izendatzeko– lau urte irauten zuten, eta nekazaritzan laguntzeko eta azpimunduan Eguzkia gidatzeko ere erabiltzen zuten denbora hori. Antzinako dokumentuek diotenez, behera iristean erabateko galera gertatzen zen. Artozko gizakia hazi bilakatzen zen berriz.

[...]

Gure ustez, estetikaren hastapen kosmologikoek frogatzen dute jarduera artistikoaren posibletasun hutsa, bizitzaren energia oparotasunaren ondorio gisa hartuta. Artea posible da, bizitzak, indar kreatzailea izanik, barne antolamenduari esker indarrak pilatu, eta, desagerrarazi ezin baditu ere, gainditu egiten dituelako, azkenerako, etengabe estutzen duten kanpoko oztopoak. Eragozpen handi eta iraunkor oro bizigarria da, eta, azken batean, arrastoa uzten du organismoan, haren osaera eta forma aldatuz, eta etorkizunean garaipena lortzen laguntzen dio. Antolamenduak berezkoak ditu oztopoak; baita izaki bizidun ororen ahalmen plastiko, primario eta funtsezkoa ere. Bizitzak antolaera berriak asmatzen ditu; baina denbora asko behar du horretarako. Sustraia, eskua, mihia eta adimena ahalegin beraren etapak dira. Ausardia, eta are ausardia handiagoa! Nekatzen direnak hil egiten dira; baina bizitzak lanean jarraitzen du.

Zaila da literaturaren historian askatasun sentimenduarekiko Schiller poetak baino mirespen handiagoa duen eta gizadiaren berezko ezaugarriak hark baino hobeto zaintzen dituen izaera poetiko bat aurkitzea. Poeta handia ez ezik, pentsalari handia ere bazen. *Ueber die ästhetische Erziehung des Menschen Cartas sobre la educación estética del hombre]* liburuan, batez ere hamalaugarren eta hogeita zazpigarren gutunetan, artearen teoria baten hastapena utzi digu, gero eta garrantzitsuagoa dena literatura filosofikoan.

> Schillerrek hitz hauen bidez planteatzen du batetik gizakiaren aberetasunak eta naturako legeei begirako ondoriozko mendekotasunak eta bestetik arrazoiaren agindu manamenduzko eta erabatekoek osatzen duten dilema.

Gure izaerak, gaitasunik ez duenak ez denbora gehiagoan abere izaten jarraitzeko, ez arrazoiaren eginbehar zoliei jarraitzeko, *erdibideko egoera* bat behar du, bi egoera kontraesanezko horiek bateratuko dituena, tentsio gogorra harmonia leun bihurtu eta egoera batetik besterako aldaketa errazteko. Zentzu estetikoak edo edertasunaren sentimenduak besterik ezin digu zerbitzu hori eskaini [...] Jolas sena, non bateratuta dauden zentzumenen sena eta sortze sena, gailendu egingo zaio arimari, moralki zein fisikoki; eta, zoria ezabatuz gero, ezabatu egingo du, ondorioz, behar oro, eta gizakiari askatasun morala eta fisikoa emango dio? [...] Hizkuntzak, jolas izenarekin, erreferentzia egiten dio ez subjektiboki ez objektiboki akzidentala ez den eta kanpoaldetik edo barnealdetik beharrezkoa ez den orori.

> Schillerren pentsamendua azaltzeko, esan genezake jolastean arima lege arrazionalaren eta behar organikoaren artean higitzen dela. Bien artean sakabanatuta, bere inperio bikoitzetik aske geratzen da, eta mundu berria sortzen du, bere burua eta askatasuna abiapuntutzat hartuta.
>
> Artearen eremuaren kokapen hori, mundu materialaren eta moralaren artekoa, kantiar pentsamendutik ondorioztatu zuen, seguru asko, Schillerrek. Sen estetikoa adimenaren eta nahimenaren arteko lotura bat da. Ez du hedadura

teoriko ez praktikorik. *Judizioaren kritika* hauen arteko bitarteko puntuaren definizioa da: arrazoiaren teoria, Kanten lanean *Arrazoi hutsaren kritika* zeritzona, eta nahimenaren teoria, *Arrazoi praktikoaren kritika* zeritzona.

Baina artea jolasarekin lotzeko ideia, Schillerrek Kantengandik hartu eta modu zabalean garatutakoa, lehen aipatutako liburuko hitz zehatz hauetan ageri da lehen aldiz: «Irudimenaren jolas askea, adimenaren legeen arabera». Esaldi horretan jasota dago, seguru asko, gozamen estetikoaren ezaugarri nagusietako bat. Schillerrek adierazten duenez, gizakia ez da erabat gizaki jolasten duenean baino.

Itxura hutsean hautemate aske eta desinteresatu baten zantzuak aurkitzen baditugu, baieztatu egin dezakegu erabateko iraultza gauzatu dela gizakiaren izaeran; eta gizatasuna hasi dela, zehazki, harengan [...] Gizakiak ez duenean lehoia jazartzen, eta beste piztia batek ez badio borrokarako desafioa egiten, *alferkeriaren indarra berezkoa zaion ezaugarri bilakatzen da*. Animaliak orro adoretsuaz betetzen ditu basamortuko oihartzunak; alferrikako potentziak bere buruaz gozatzen du, eta helbururik gabeko ahaleginetan xahutzen du bere burua.

Bere definizio ospetsuetako batean, Kantek judizio estetikoaren ezaugarritzat emana zuen askatasun osoz eta helbururik gabe gauzatutako ekintza zela, edo, lehen begiratuan guztiz berdina dirudiena: jolasa, *gauzatze hutsagatik* gauzatzen den jarduera, geroagoko helbururik gabekoa.

XXVII. gutun bikainean, Schillerrek beharrean dabilen animaliaren jarduera eta jolasean dabilenarena kontrajartzen ditu. Lana egiten badu, zerbait falta zaiolako da, eta hura eskuratu nahi duelako; jolasean badabil, aberastasuna du abiapuntu, indarren oparotasuna, edo, poetak dioen moduan: «beharrezkotik harago asetako bizitzak ekintzara akuilatzen du bere burua».

Kanten eta Schillerren ideiak garatu eta era berean moztu egin ziren Herbert Spencerren lan filosofikoan. Pentsalari ingelesaren arabera, «jolas» izendatzen ditugun ekintzak eta «estetiko» izendatzen ditugunak hertsiki lotuta daude elkarri, oinarrizko ezaugarri honengatik: ez batzuk ez besteak ez dira zuzenean baliagarriak bizitzako prozesu probetxugarrietarako.

Animalia gorenak ez daude berehalako beharren eskakizunetara bakarrik eskainiak. Buruko ahalmenak honela dioen legearen mende daude: ohikoa baino denbora gehiagoan atseden hartu ostean, ahalmen horien organoak ekintzarako bereziki gaituta esnatzen dira; eta orduan gertatzen da baldintzek eraginez gero itxurak egiteko jarduera bati ekiten diotela, egiazko ekintza bat bultzatu beharrean. Hortik sortzen da jolas mota oro, eta geldirik egondako jarduerek ariketa alferrikakorako duten joera. Eta, era berean, horregatik gertatzen da helbururik gabeko mugimenduak animalien bizitzan nagusiak diren gaitasunen bidez adierazten direla gehienetan.

Printzipio horrek berak zuzentzen du sentipenen nahasketa, edertasun ideiak eta sentimenduak pizten dituena. Gorputzaren mugimendu mota horiek atseginak dira egiten dituztenentzat, eta muskuluei neurrizko ekintzak eginarazten dizkiete, horietako bat bera ere bortizki akitu gabe. Hortaz, *pentsa daiteke ederrak direla hautematean laguntzen duten nerbio elementu ahalik eta gehien eraginkortasunez erabili eta elementu horietako ahalik eta gutxien gainkargatzen dituzten jarrera formalak.* Hori da egokia objektu errealen multzo bisual konplexuetarako, edo objektuak euren argi, itzal eta kolore bereziekin adierazteko. Sentimendu estetiko gorena bolumen handienekoa izango da, ahalik eta energia gehien normaltasunez erabiliz sortua, energia horietako bat bera ere ohiz kanpoko moduan erabili gabe; edo, bestela, gaitasun emozional osoa zentzuz eta gehiegikeriarik gabe erabiltzearen ondoriozko sentimendua.

Spencerren tesien atzean, lan eta jolas egiten duen animaliaren teoria dago, *Cartas sobre la educación estética del hombre* liburuan garatuta ikusi duguna; baina, lehen azaldu dugun moduan, garatzean ideia moztu egin zen; izan ere, pentsalari ingelesak, bere printzipio agnostikoei leial izateko, kendu egin behar izan zion Schillerren orrietan oso nabarmenduta zegoen alderdi bat: hots, sorkuntzaren eta askatasunaren zentzu haraindikoa, kausa izatearen poza, *egin ahal izateak dakarren gozamen* gorena *(Freude am kommen)*. Espiritu ingelesa ideia

alemanak mugatzen, berak baizik ez duen *uhartetar* ikuspuntutik; baina ezin ukatuzkoa da britainiarrak, Kant-Schiller teoriaren zati bat baztertuta, modu argian uztartu zituela bere positibismoarentzat egokia zen zati praktikoa eta eboluzio kosmikoaren pentsamendu hutsezina, zeinak gauza asko eta asko azaldu dituen egokiro Spencerren liburuetan eta haren jarraitzaile eboluzionisten liburuetan, eta beste hainbeste gauza ezkutatu edo ilundu egin dituen, argitzen saiatzean.

Spencerrentzat, Schillerren teoria oparoa Tolstoik *¿Qué es el arte?* izeneko idazki laburrean idatzitako honetara murrizten da: «behe mailako animaliek nork bere bizitza eta arrazarena bermatzeko erabiltzen dute bizi energia oro; gizakien kasuan, berriz, haien instintuak aseta ere energia dago sobera, eta jolasetan erabiltzen dute, lehenengo, eta ondoren artean». Zer balio du hipotesi horrek?

Dudarik gabe, hizkuntzak berak eta sen onak berretsi egiten dute arteak jolasak direla dioen teoria. Teoria estetiko handi bakoitzari buruz esan daiteke –dagokionean baieztatuko dugu– iritzi komunak berretsi egiten duela espekulazioaren ikuspegia.

Argi dago ez artea ez jolasa ezin direla ulertu sobera den *energiarik* (*over-flow*) gabe. Bi-biak dira bizitzaren joritasunaren emaitza; baina beste formazio osagarri batzuk haiekin pareka litezke, jatorriari berari erreparatuz gero. Kantek esango

lukeen moduan, jolasak eta arteak xederik gabeko helburu bat adieraziko lukete –eta horixe da haien intimitate positiboaren egiazko puntua–; hau da, zeharka besterik transzenditzen ez duen ekintza bat, eta xede inplizitua duena, bere baitakoa. Egiazkoa jolaste «hutsagatik» jolastuko litzateke, ez «irabazteko»; baieztapen hori onartzea ekintza horretan dihardutenen espirituaren sasiko interpretazio bat onartzea da. Egiazko artistak ere bere izaeraren halabeharragatik beragatik gauzatuko luke bere ekintza, ez kanpoko beste xede batzuk betetzeko. Alderdi horretan, bizitzaren bi emaitzak bat etorriko lirateke.

Baina lehen begiratuan arteak eta jolasak *modalitate* bera dutela badirudi ere, *nolakotasun* desberdina dute. Jolas guztiak, edo gehien-gehienak, behintzat, borrokaren imitazioak dira, bai animaliengan, bai gizakiengan; funts sexualeko ekintzak dira, edo defentsa eta erasoaren antzezpenak: laburbilduz, honako hau baieztatzen duen lege biologiko handia: «Izatea borroka egitea da; bizitzea irabaztea da».

Animalia batek, izan goi mailakoa ala behe mailakoa, gizakia izan ala ez, bere bizi ekonomia dela eta, bizidun oro borrokalari bihurtzen duen printzipioari men egiten dio. *Superabita* badago, sobera dagoen indarra ohiko moduan gastatzen da: errez eta xahutuz. Animaliengan ez dago *interesik ezaren* printzipiorik; baina, aitzitik, *jolas sena* sortu da, Karl Groosek baietsi duenez. Funtsean, Groosen

teoria eta Spencerrena ez zaizkigu aurkakoak iruditzen, osagarriak baizik; eta horixe uste du Theodule Ribot psikologo frantsesak. Souriauk dioenez, jolas desinteresatuaz hitz egitea zer esan nahi den ez jakitea da: jolasten garenean, beti arduratzen gara jardueraren emaitzaz. Azkenean, Groosek erakusten du:

Jarduera praktikoaren eta estetikaren artean dago jolasa, iragate bide gisa. *Jolasa eta artea bereizi behar dira*; izan ere, jolasaren balio emozionala, artearena bezalaxe, ez dago kanpoko xede hutsal samar baten mende, jardueraren beraren mende baizik. Jarduera praktikoak, jolasak eta arteak elkarren artean dituzten loturak grafikoki adieraz daitezke, lehenengoa lerro zuzen baten bidez irudikatuz, bigarrena lerro izurtu baten bidez eta hirugarrena zirkulu baten bidez.

Gure iritziz, jarduera praktikoa, jolasa eta artea hiru gauza desberdin dira; baina, Groosek ezin hobeto adierazten duenez, artearen eta jarduera praktikoaren artean baino antzekotasun handiagoa dago artearen eta jolasaren artean. Jatorriari erreparatuta, artea eta jolasa gehiegikeria organikotik sortzen dira; baina gehiegikeria hori ez da artearen kausa bakarra. Souriauren eta Groosen iritziek argitasunez erakusten digute jolasak baduela, ezkutatuta, nolabaiteko helburua; eta horrek aurretik egindako adierazpen absolutuak zuzentzera garamatza. Artea, ordea, desinteresatua da; haren funtsa ez da jolaserako sena, baizik eta ikuste hutsarekin eta entzute hutsarekin atsegin hartzen duen intuizio bat.

Jolasak, bere formen bidez, bere izaera biologikoa agerian uzten du; artea, bere formen bidez, argitasunez mintzo zaigu lege biologikoaren eta espiritualtasun garailearen kontingentziaz. Artistak, benetan artista bada, sortze lanetan ez ditu gauzak gure desirekin erlazionatuta irudikatu eta adierazten, gauzak berak baizik; ez *xede baterako* edozein norbanako, izaki, animalia edo egoera, baizik eta norbanakoa, izakia, animalia edo egoera bera, *bere baitan*.

Gizaki gehienok ez dakigu errealitatea hautematen helburu bati lotuta ez bada; ez gara helbururen bat betetzeko balio ez digun ezertaz ohartzen. Horregatik, hain zuzen ere, ez dugu existentzia ulertzen. Gure norberekoikeriak eragotzi egiten digu.

Laburbilduz: *jolasa, bizitzaren eboluzioan, askapen printzipio bat da, Schillerrek antzeman zuen moduan; baina agerian uzten du aberezko jatorri biologikoa duela.* Nola? Ez delako erabat desinteresatua (nahiz eta, oinarrian duen energia ugaritasunaren ondorioz, xede egoista eta ekonomikoa ahaztuta dagoela edo gutxienez kezkarik eragiten ez duela esan nahi duen), eta etengabe gogorarazten digulako borroka sexuala edo bizirik irauteko borroka zakarra. *Jolas sena,* neskatoari panpina urrumarazten diona, edo nebatxoa lokartzean atsegin ematen diona; nazioarteko bi txapeldunen arteko xake partida neketsua mundu zibilizatuaren ikusminaren aurrean; bi adibide horiek borroka biologikoaren simulazioak dira, imitazioak; eta ez kasu batean ez bestean ez

dugu haien izaera galbideratuko, ezta sasiko bihurtuko ere, Groosek aipatzen duen *kanpoko xedea* hautemanda. «Indar plastikoa idealerantz bideratzen da»; baina, izaera produktiboa izaki, oraindik ezin du berezko legeen bidez jokatu.

Arteak erabateko interesik eza esan nahi du, *xederik gabeko helburu* erabatekoa, lege aberetiarra haustea, *jolas sena* bestelako bertute bilakatu izanari esker: *intuizio estetikoa*. Indar plastikoak ideala lortu zuen, eta orain bere munduan mugitzen da. Edertasunak pozez betetzen gaitu, atsegin ematen diguten gauzak gutiziatu gabe. Arte hutsak –sonata, poema, estatua, tenplua, dantza, etab.– inoiz ez du inolako helburu erakuslerik ez praktikorik. Bere buruarekin nahikoa du.

Biktima madarikatua eta sakratua

Biktima aberastasun *erabilgarriaren* masatik hartutako soberakina da, eta probetxurik gabe kontsumitzeko baizik ezin da hartu, eta, ondorioz, betiko suntsitzeko. Aukeratzen dutenetik, kontsumo bortitzari hitzemandako *alderdi madarikatua* da. Baina madarikazioak *gauzen ordenatik* erauzten du biktima, eta haren irudia antzemangarri bilakatzen du, eta, aurrerantzean, irudi horrek izaki bizidunen intimitatea, larrimina eta sakontasuna argitzen ditu.

Ez dago biktimari eskainitako zaintzak baino ezer zirraragarriagorik. Gauza izaki, egiaz ezin da baztertu ordena errealetik, hark lotuta baitauka; aukera bakarra da suntsipenak gauza izaera kentzea eta haren erabilgarritasuna betiko ezabatzea. Sagaratzen duten unetik eta hiltzen den arte, biktima sakrifikatzaileen intimitatean sartzen da, eta haien kontsumoetan parte hartzen du: haietako bat da, eta heriotza ekarriko dion festan haiekin batera abestu eta dantzatzen du, eta haiekin batera gozatzen du plazer guztiez. Biktima ez da inoiz gehiago mirabe izango, eta jantziak nahiz armak jaso eta borrokan aritzeko aukera izango du. Festaren nahasmendu itzelean galduta dago: horrexek galtzen du, hain zuzen ere.

Biktima izango da ordena errealetik erabat irtengo den bakarra, hura bakarrik eramango baitu amaierara arte festaren mugimenduak. Sakrifikatzailea errezeloekin soilik da jainkotiarra. Etorkizuna astunki gordeta dago harengan, gauza gisa duen pisua da.

Benetako teologoek, zeintzuen tradizioa berreskuratu duen Sahagunek, oso ongi hautematen zuten; Nanahuatzinen* sakrifizioa gainerakoen gainetik kokatzen zuten, jainko-jainkosek kontsumitutako gerlariak goresten zituzten eta jainkotasunari kontsumoaren zentzua ematen zioten.

* Gogora dezagun bere burua mundua argitzeko sakrifikatu eta Eguzki bilakatu zen zorne zorroak jotako gizona

Ezin dugu jakin Mexikoko sakrifikatuek euren patua onartzen zuten. Baliteke neurri batean haietako batzuek «ohoretzat hartu izana» jainko-jainkosentzako opari izatea. Baina immolazioa ez zen borondatezkoa. Are gehiago, gauza jakina da, Sahagunen berriemaileen garaitik, heriotza orgia horiek atzerritarrei eragiten zietelako onartzen zituztela. Mexikarrek beretarren artean aukeratutako haurrak immolatzen zituzten. Baina zigor gogorrak ezarri behar izan zituzten aldareetarako bidean segiziotik alderatzen zirenen kontra. Sakrifizioa larriminaren eta frenesiaren nahasketa da. Frenesia larrimina baino indartsuagoa da, betiere larriminaren eraginak kanporantz desbideratuz gero, gatibu atzerritar batenganantz. Nahikoa da sakrifikatzaileak uko egitea biktimak ekar ziezaiokeen aberastasunari.

Nolanahi ere, zorroztasun falta ulergarri horrek ez du aldatzen erituaren zentzua. Mugak gainditu eta jainko-jainkosei kontsumitzeko modukoa iruditzen zitzaien gehiegikeriak bakarrik balio zuen. Gizakiek prezio hori ordaintzen zuten porrotetik ihes egiteko, prezio hori ezartzen zioten erreala denaren ordenaren zekentasunak eta hoztasun neurtuak ezarritako pisuari.

Poeta eta margolariei buruz hitz egin dut. Orain neskameei buruz hitz egingo dut. Mendearen lehen erdia igaro arte, Mexikoko etxeen teilatuetan kokatzen ziren mirabeen bolizko dorreak. Neskameei «katuak» esaten zieten, katuak teilatuetan ibiltzen direlako.

galtzak miatzen zizkidan, bainua hartzen nuen bitartean. Zabaltzatik entzuten zuen dutxa, eta orduan gosaria prestatzera jaisten zen, nire logela bisitatzera. Egun batean nabarmenki eskua sartu zuela eta, konturatu egin nintzen poltsikoetan neraman dirua desagertu egiten zela, eta diru zorroa eskuetan nuela dutxatzen hasi nintzen. Isila zen, emakume ona, eta, tentazio horrez gain, ez zuen kexatzeko arrazoirik ematen. Ez nuen kaleratu. Zertxobait kezkatuta utzi zuen nire aurkikuntzak.

Ramoncita izan genuen, Coyoacánen bizi aurretik. Hamabost bat urte izango zituen iritsi zenean? Apenas zekien irakurtzen eta idazten, eta oso polita zen, apala, goxoa. Sukaldeko ur berogailua iltze batekin urratzen igarotzen zuen egun osoa. Zati handi bat esmalte gabe utzia zuenean konturatu ginen. Ikasliburuak eta koadernoak erosi genizkion, hobeto alfabetatzeko.

zenbait urte egin zituen gurekin. Langile batekin maitemindu zen, eta harekin joan eta seme-alabak izan zituen. Sarri etortzen zen gurera, larrialdiren bat tarteko. Urteak dira etorri ez dela; batek daki nola dagoen. Mendialdeko milaka, milioika neskatxari gertatzen zaie goseak estututa hirira bidaltzen dituztela eta bertan erre egiten direla sutan. Batzuek prostituzioan amaitzen dute; beste batzuek Ramoncitaren egoera berean. Agian abandonatuta dago; agian hilda. Gu ikustera etorri zen azken aldian ez nuen ezagutu ere egin. Esan zidan: «Ramoncita naiz, ez zara nirekin gogoratzen?».

Beste neskame analfabeto bat ere izan genuen etxean, kazike aberatsek nekazariak oso bortizki esplotatu dituzten eremu batekoa: Mezquitalekoa. Tiroka kanporatu dituzte euren lurretatik; zuhaitzetatik zintzilikatu dituzte. Etxea ikusi zuen Coyoacánen. Etorbide nagusiak, etxetik berrogeita hamar metrora, Tasqueña zuen izena orduan, eta tristea zen; automobil bat edo bi igarotzen ziren noizean behin. Gaur egun hiriko bide nagusietako bat da, trafiko gehien duenetako bat. Azaldu zigunez, ez zuen bere herritik alde egin beste herri batean bizitzeko. Gurekin pozik bazegoen ere, mugimendua eta saltoki erakusleihodunak zituen jardun biziko gune batean bilatuko zuen lana. Metropolitano bilakatu zen.

Zerbitzu gela margotu egiten da apopiloa aldatzen den bakoitzean. Neskameek egunkari zatiz estaltzen dituzte hormak: atletak, zezenketariak, abeslariak, futbolariak, zaldizkoak, zinema izarrak eta atsegin handiz ikusten dituzten telesailetako izarrak. Morroiek, berriz, barruko arropetan dauden neskez. Haiekin hobeto genekien zer ordutan bizi ginen. Pedrito ingeniaria izango da. PRIan sartuko da, Diputatuen Ganberan?

ez daki bere abizena, eta ingelesa dela dio; zenbait orduz lan egiten du egunero, eta etxera itzultzen da, senarrarengana eta bere bizkarretik bizi diren ez dakit norengana. Atsegina, goxoa, zintzo-zintzoa eta esanekoa. Lehen mailako hezkuntza amaituta ikasten jarraitu nahi izan zuen, baina amak ez zion utzi, lanean jarri zuelako. Chonak negar asko egin zuen, ez ziotelako eskolara joaten utzi. Coyoacáneko lumpen proletarioa da, eta ez du ezagutzen Villa de Guadalupe, non mexikar totem handia gurtzen duten; Chapultepec Gaztelua ez ezagutzea baino harrigarriagoa da hori. Pentsatzen dut ez dela jakin-min faltagatik izango, denbora faltagatik baizik, esklabo baten gisa bizi baita, umore ona galdu gabe.

Mirabeei buruzko aztarna hauek Mexiko hirian eta herrialdean dauden milaka askoren adibide izan daitezke agian, eta, poeten antzera, zer edo zer adierazten didate errealitate horretan adierazita dagoen kultura nazionalari buruz.

Neskameek eta ia poeta guztiek ez diote jaramonik egiten Mexikoko bizitza politikoari.

Nire ogibidearen paperak

Esklaboa matxinatu zitzaidan. Izango al da orain rola betetzeko prest dagoenik? Zer puntutan dago mina?, galdetzen diot behin eta berriz neure buruari. Egia da, esklaboak ihes egin zuen. Ni urrun nengoela aprobetxatu zuen. Beste eskualde batzuetan nenbilela. Ozeanoaren beste aldean. Agian, azkenaldian ez nuen behar bezain erradikal jokatu izan ohi dudan tratuan. Baliteke alderdi batzuetan huts egin izana. Besteak beste, gogoan dut aurreko bidaia batetik bueltan ustekabean lurrean botata aurkitu nuen zapi bat opari egin niola. Oso gertuko norbaitek ohartarazi zidan, beste hegazti harrapari batek. Esan zidan horrelako opari batek atzerapauso bat ekar zezakeela eraikia genuen harremanean. Zapi hark -kotoi eta poliesterrez egina, seguru asko norbaitek oharkabean erortzen utzia- elkartuta mantentzen gintuen loturaren izaerari buruzko nahasmendua eragin zezakeen. Hortaz, ni izan nintzen, akaso, dohaintza harekin egungo egoerari bide eman ziona? Esklaboa zenbait urtez jarraian izan zen esklabo. Elkar ezagutu genuenean ezartzen hasitako sistemak hainbat etapa izan zituen, ohikoa denez. Lehenengo etapa izan zen hark nire inguruan ahalik eta zakur gehien izatea izugarri atsegin dudala onartzea. Goizero ikusten nuen, gogokoen nuen adarretik. Hobe esanda, urrutian entzuten nuen, zurrumurru lauso baten gisa, nola ateratzen zituen paseatzera garai hartan neuzkan sei zakurrak. Egunean zenbait aldiz ateratzen zen kalera animaliekin. Gehienetan, hurbileko parke batera

eramaten zituen, korri egitera. Ni eguzkia hartzen geratzen nintzen, gutxiagotasun konplexu ageri-agerikoa zuten gizakiak esklabo bihurtzea lortua zuten beste hegazti harrapari batzuekin. Esklabo hura zakurren txertoen datez arduratzen zen, baita haiek bainatzeaz eta haien ilea orrazteaz ere. Eta animalia horientzako jan deshidratatua eta gutxienez hiru hilean behin eman behar zaizkien parasitoen kontrakoak erosteaz –ia beti handizka eta urrun zeuden tokietan–. Zakurrak zaintzeaz gain, haren zeregina zen zaintzapean zuen animalia haietako bakoitza sakonki maitatzea. Nik goitik ikusten nuen –lehen aipatu dudanez– nola maite zituen gero eta gehiago or haiek. Nola askotan animaliek ere maite zuten bera. Baina mugak jartzen nizkion truke horri. Ez zakurrek ez esklaboak ezin zioten izan elkarri batzuek zein besteak nahitaez niri zor zidatena baino maitasun handiagoa. Niri, bi espezieak nire agindupean izatea erabaki zuen hegazti harrapariari. Irudikatu dezaket zer mekanismo erabiltzen zuen esklaboak egoerak ez zitzan gainditu inposatutako mugak. Esklabo eskarmentuduna zirudien. Jaiotzetikoa, esan liteke. Baina orren psikean zer gertatzen ote zen, zuhaitz baten adarrean igota gainetik begirik kentzen ez zien hegazti bati halako fideltasuna adierazteko? Hori benetako misterioa zen niretzat. Ez dakit nola zekiten zakurrek, inolako zalantzarik gabe, nor zen benetan nagusia, esklaboaren maitasun adierazpenak gorabehera. Esklaboak zakurrak zaintzea eta atsegin izatea,

sakonki maitatzea, huraxe zen urrats errazenetako bat. Txundituta uzten ninduen, halaber, zer nolako estoizismoa adierazten zuen esklabo horrek berak or haietako bakoitzaz libratzeko erabakia hartzen nuenean. Bat-batean zakurrez inguratuta bizitzeko beharra sentiarazten zidan arrazoi bitxiaren antzeko bulkada baten ondorioz, nik, hegazti harrapari honek, ale haietako bakoitzaz libratzeko beharra sentitzen nuen. Esklaboak ez zuen inoiz hitz bakar bat esan, ez onespenekoa, ez gaitzespenekoa. Esklaboak modu hartara berresten zuen beti, ahalik eta baldintza onenetan, inguruan –han behean, oinezko izakien munduan– ahalik eta zakur gehien izateko sentitzen nuen irrika. Eta modu hartara berresten zuen, halaber, une batetik bestera zakur haiek desagerrarazteko erabakia. Garrantzitsua iruditzen zait horrelako esklabo bat nola aurkitu nuen azaltzea. Modu arrunt samarrean gertatu zen. *Facebook* bidez, zeina etengabe gainbera doan sare sozial bat den, zenbaitek jakingo dutenez. Gogoan dut bat-batean pertsona bat nire kontuan behin eta berriz iruzkinak egiten hasi zela. Bere buruari egindako argazkiak bidaltzen hasi zen. Edonork susma zezakeen moduan, irudiak ez zetozen bat haren benetako itxurarekin. Esklaboak bere buruari buruz izan zezakeen irudikapen fisikoa islatzen zuten. Argazki ia guztiak esklaboak ile luzea zuen garaikoak ziren; kizkurtu egiten zuen ilea, eta Dureroren autorretratuen kolonaurreko bertsio baten nolabaiteko antza zuen. Deigarria iruditu

zitzaidan bera bezalako norbait –lehen mezuan bertan argi utzi zuen bere esklabo rola– horrelako irudi bat erakustera ausartzea: margolari errenazentista batena. Atentzioa eman zidan, gainera, ni, hitzaren zentzu osoan hegazti harraparia naizen hau, neure burua noizean behin ordenagailuaren pantailan agertzen zitzaizkidan irudiei iruzkinak egiteko prest egotea. Garai hartan nire sentimenduak eta bulkadak menderatzen nituelakoan nengoen. Batzuetan badirudi egoera hura ahaztu egiten dudala kaos mental erabatekoan murgiltzeko. Horrelako uneetan ohikoa baino bizkorrago aireratu behar dut, eta kosta ahala kosta bilatu behar dut nire atzaparrekin lepoan indar eginez hilko dudan harrapakin bat. Baliteke orain sentitzen dudan nahasmena, esklabo baten erabateko altxamenduari aurre egin behar dion norbaiti dagokiona, horrelako egoera baten ondorioz sentitzea, hau da, neure buruaren jabe naizeneko egoera etengabe ahazten dudalako.

Une hartan nahiko buruargi nengoenez, sarearen bidez galdetu nion ea zer eskaintzeko prest zegoen. Ea haren ustez zer interesa zekiokeen ni bezalako idazle zahar bati. «Nire gorputza eskain diezazuket», erantzun zuen, besterik gabe. «Bere gorputza?», pentsatu nuen. Benetan interesgarria izango ote zen, akaso, maila horretan nahastea Dureroren kopia indigena harekin? Unibertsitate publiko batean letrak ikasten ari zen ikasle batekin? Esklabo hark ez al zituen ezagutzen hiriak eguneko edozein unetan

eta ia istantean nahi bezalako sexu harremana izateko eskaintzen dituen dozenaka bideak? Ziur nago ezin hobeto zekiela hori. Jakitun zela argudio hark –gorputza dohaintzan emateak– ez zuela nire interesa inondik ere piztuko. Baina eskaintza hura adierazi izanagatik –haren itxurazko xalotasun faltsuagatik– ohartu nintzen –hasieran lausoki– izatez eta uste osoz zela esklaboa. Uste dut horregatik erakarri ninduela haren proposamenak. Eta hitzordu bat adostu genuen. Oroitzen dut alferrik saiatu zela –akordio hori egin genuen unean, ez lehenago, ez geroago– nolabaiteko distantzia ezartzen. Lehen akordio hartan orduari eta lekuari buruzko zalantza sortzen saiatu zen. Agerian utzi nahi izan zuen duintasun jakin bat. Haren planak gauzatzeko beste bultzadatxo bat? Orduan ulertu nuen proba egiten ari zitzaidala. Nik une horretantxe bertan ezarri behar nuen, eta ez beste inoiz, nor zen nagusia eta nor esklaboa. Argi utzi behar nuen, gainera, nolako nagusia nintzen ni. Beraz, hitzordurako data eta ordua adierazi nizkion, aukera bakarrak. Une horretan agertu ezean, behin betiko amaituko zen bien arteko komunikazio hasi berria. Nire hitzen irmotasuna antzemanda, noski, Dureroren kopia autoktonoak alde batera utzi zituen ustezko konpromisoak, eta adierazi nion mahaiaren parean eserita aurkitu nuen, nik agindutako ordua baino minutu batzuk lehenago, gainera. Minutu gutxi batzuk lehenago bakarrik, askoz lehenago iritsi izana ere errebeldia keinu aurreratutzat har

bainezakeen. Elkarrizketa labur samarra izan zen. Ez zen beharrezkoa izan gauza handirik akordioa berresteko. Ez denbora ez hitz behargabekorik. Laster abiatu ginen nire etxerantz, eta egun hartan bertan ekin genion mezuetan iradoki nuen errutinari. Une hartatik ia hiru urte igaro dira. Denbora tarte horretan, trukearen legeek zenbait aldaketa jasan dituzte, baina inoiz ez ditugu aldatu funtsezkoan. Ia hasieratik agertu ziren zakurrak etxean, eta gau hartan bertan jabetu nintzen funtsezko gertaera batez: esklaboaren espezialitate profesionala akademiko entzutetsuen zerbitzari izatea zen. Esana zidan unibertsitate nazional batean ikasteaz gain mojak aztertzen zituela, alajainkoa! Esklaboa eta mojalogoa. Ezer gehiago eska al zezakeen hegazti harrapari izateaz gain idazlea ere baden eta ia egun osoa zuhaitz baten adarrean igarotzen duen hegazti harrapari honek? Ezinezkoa zen ezer hoberik gertatzea. Badira zenbait urte nire lan intelektualaren alderdi administratiboez arduratuko den norbaiten falta sumatzen dudala. Une hartan, esklaboa fisikoki ezagutu ostean, nirekin izan nuen egunerokoan zerbitzari gisa trata nezakeen pertsona bat –beti nire desira txikiena ere betetzeko prest–, eta, zakurrez eta beste kontu batzuez arduratzeaz gain, bere gain hartuko zituena idaztera emana bizi den hegazti harrapari izateak dituen alderdi gogaikarriak. Une hartatik aurrera berretsi nuen gure harremana ez zela sexura mugatuko. Ziur nago izaera horretako zerbaitek ahuldu egingo zuela,

laster, orduan sortzen ari ginen loturaren izaera. Sexua ohikoa izan balitz, badakit hastear zegoen esklabotasuna maiz ibilitako bide aspergarri batean barrena joango zela. Uste dut – alde batera utzita subjektu hark libidoa bereziki pizten ez zidala– trukeak denbora tarte mugatua iraungo zuela, ezezagunarekiko interesa, bestearen sexualitateak gurearekin aurrez aurre jarrita sortzen duen interesa aseta geratu artekoa. Bestalde, ezin nuen irudikatu neure burua, hegoak zabalik dituen arrano gorputz handia, bizkarrez eta zertxobait makurtuta bere burua eskaintzen zidan gizontxo biluz hura estaltzen. Bazirudien esklabo harekiko lotura harreman garrantzitsuagoa izango zela. Edozein ustekabetatik harago, hala nola alderdi sexualetik, lotura horrek bere baitan zeraman funtsa, erabateko sumisioa lortzeko beharrezkoa denaren oinarria.

Inork esplizituki mugatu ez zuen unean, hegazti harrapari gisa zein herritar normal eta arrunt gisa egiten nituen bidaietarako maletak ia ezin hobeki prestatzen hasi zen. Era berean, eta aparteko bizkortasunez, nire literatura testuen artxiboak ordenatu zituen. Nire beharraren barne arazoak ez ezik, beste pertsona eta erakunde batzuei eragiten zietenak ere ebatzi zituen. Bereziki zoo nazionalarekin nituen auziak, behin eta berriz eskatzen baitzidaten bertako instalazioetan bizi nendila, ni esparruko ikuskizun nagusietako bat bilakatzeko asmoz. Esklaboak zenbait notariok ziurtatutako dokumentu sinatuak aurkezten zituen,

eta horietan argi adierazita zegoen nazioarentzat garrantzitsuagoa zela ni zuhaitz baten adarrean egotea zoo nazionaleko kaiola garrantzitsuenean egotea baino. Jendaurrean, esklaboak nire laguntzaile pertsonaltzat aurkezten zuen bere burua. Aldi batean –biak herrialdearen barnealdeko hiri batean geundela, bizikleta bat erosi nuen–, ni hegazkinez itzuli nintzen, eta bera probintziarteko autobus baten zamategian, eskuratu berri nuen ibilgailuarekin batera. 48 ordutik gorako bidaia deserosoa egin zuen; nik, berriz, hegazkin bateko lehen klaseko eserleku batean lasai eserita bidaiatu nuen. Logika ororen kontra hegazti harrapari batek erabiliko zuen bizikleta autobus batean garraiatu behar zela erabaki nuelako egin behar izan zuen esklaboak bidaia hura. Nolanahi ere, itxuraz bakoitzaren rola zein zen oso argi bazegoen ere, handik gutxira ezin zen jakin nor zen egiaz nagusia eta nor esklaboa. Sumatu nuen moduan, pixkana-pixkana ezinbesteko bihurtu zen niretzat. Fardelak paketatzeaz gain, bankuko kontuen zenbakiak zein gakoak eta ordenagailuetako pasahitzak jakiteaz gain, bazekien zehazki non zeuden gordeta guraizeak edo zorrozkailuak, argi erosi berriak, aspertu arte bilatutako galtzerdi parea. Eta bazekien, halaber, non egiten zuten habia ehizatzean entretenimendua eta dastatzean benetako hegazti harrapari sentitzeko behar nuen gozamena eskaintzen zidaten erbiek. Etapa hartan, ni bezain pertsona garrantzitsu baten esklaboa zela ezagutzera ematea zen haren

ordainetako bat –horrelako egoera batean jakinak direnez gain–. Sekulako plazera eragiten zion, itxuraz, nik esklabotzat aukeratu nuela gainerakoei erakusteak. Topatzen zituen mojalogo guztiei kontatzen zien, eta harro-harro, gainera. Hasieran, egoera hura ez zitzaidan oso deigarria iruditu. Are gehiago, pentsatu nuen hain desegokia zen egoera hark sendoagotu egin zezakeela neure buruaren inguruan eraiki ohi dudan mitoa. Bai gizaki gisa, bai hegazti harrapari gisa. Bitxia bada ere, hain justu garai hartan hasi zen nire bizitza osoan izan dudan krisi emozional larrienetako bat. Harrigarria iruditzen zait orduan gertatu izana; izan ere, nire esku nuen nire zuhaitzeko lidergo sinbolikoa, eta, era berean, fideltasuna eta maitasuna soilik niri zor zidaten sei zakurren behar txikienez ere arduratzen zen esklabo bat nuen.

Berriro diot: esklaboa matxinatu zitzaidan. Izango al da orain rola betetzeko prest dagoenik? Zer puntutan dago mina?, galdetzen diot behin eta berriz neure buruari. Egia da, esklaboak ihes egin zuen. Ni urrun nengoela aprobetxatu zuen. Bidaian nengoela. Beste eskualde batzuetan nenbilela. Ozeanoaren beste aldean. Agian, azkenaldian ez nuen behar bezain erradikal jokatu izan ohi dudan tratuan. Baliteke alderdi batzuetan huts egin izana. Besteak beste, gogoan dut bidaia batetik bueltan ustekabean bide publiko batean jasotako zapi bat opari egin niola. Lur-arraseko hegaldian nindoan, hegoak parez pare zabalik, eta halako batean

zoruaren erdian botata ikusi nuen trapua. Oso gertuko norbaitek ohartarazi zidan. Esan zidan horrelako opari batek atzerapauso bat ekar zezakeela eraikia genuen harremanean. Zapi hark -ez dut oroitzen zer materialez egina zegoen- elkartuta mantentzen gintuen loturaren izaerari buruzko nahasmendua eragin zezakeen. Hortaz, ni izan nintzen, akaso, dohaintza baldar harekin egungo egoerari bide eman ziona? Esklaboak zenbait urtez jarraian eutsi zion izaera hari. Elkar ezagutu genuenean ezartzen hasitako sistemak hainbat etapa izan zituen.

Agian, hark nire inguruan ahalik eta zakur gehien izatea izugarri atsegin dudala onartzea izan zen lehenengo etapa. Nire zuhaitzaren adarretik ikusten nuen, bidaian joatea erabakitzen ez nuen goizetan. Hobe esanda, urrutian entzuten nuen –izan ere, normalean gauez ehizatzera irteten nintzen, eta ordu horretan erdi lo egoten nintzen–, zurrumurru lauso baten gisa, sei zakurrak paseatzera ateratzen zituenean egiten zuen zarata. Ekintza hura, animaliekin ateratzea, egunean hainbat aldiz gauzatzen zuen. Gehienetan, hurbileko parke batera eramaten zituen, korri egitera. Halaber, zakurren txertoen datez arduratzen zen, baita haiek bainatzeaz eta haien ilea orrazteaz ere. Eta animalia horientzako jan deshidratatua eta gutxienez hiru hilean behin eman behar zaizkien parasitoen kontrakoak erosteaz –ia beti handizka eta toki espezializatuetan–. Baina, nire adarrean jarrita lasaitasuna adierazten banuen

ere, une batetik bestera nire bizitza osoan izandako krisi emozional larrienetako batek erasan ninduen. Pixkanaka, gero eta depresio sakonagoa nuen, eta gauero izualdiak izaten hasi nintzen, erbi bat ehizatzera edo sikiera hurbileko parkearen erdian galdutako sagu bat harrapatzera irtetea ere eragozten zidatenak. Zorionez, ondoan nuen nire esklaboa, zeina zakurrak zaintzeaz ez ezik, idazle ogibideari dagozkion paperak antolatzeaz ere arduratuko baitzen, eta nire hegazti gautarren ehiztari sena praktikan jartzen laguntzeaz –nire egoera emozionala gorabehera–, baita agertzear zen krisia gainditzeko beharko nituen tratamendu psikiatrikoez ere. Hala bada, izen handiko profesionalengana elkarrekin joaten hasi ginen, eta haiek agindutako zenbait sendagairen ondorioz, okerrera egin nuen, bai mentalki, bai fisikoki. Ohiz kanpoko moduan gizendu nintzen. Neurri bereziko jantziak erabiltzen hasi behar izan nuen. Hegoek ez zidaten balio ohiko zuhaitzean adar batetik bestera joateko ere. Bitxia bada ere, medikuen jarrera gero eta traketsagoa zen. Gogoan dut esklaboak telefonoz eskatzen ziela aholkua, eta beste sendagai baten izena aipatu ostean, hura erostera joaten zen berehala. Doktore horien etapa igarotakoan, hiriko osasun mentaleko ospitale espezializatuetara jo genuen. Horretarako nuen esklaboa. Bezperatik prest izan zitzan biharamun goizean eraman behar nituen jantziak. Prestatuta izan zitzan zegokion orduan esnatzeko alarmak, osasun zentro bakoitzera iristeko

goiz goizetik hartu behar genituen bideak. Bisitatuko genuen erakundeetako bakoitzean seguru asko eskatuko zizkiguten dokumentuak. Dozenaka ospitaletan izan ginen, baina bazirudien ezein medikuk ez zuela ulertzen zein zen gaitzaren jatorria. Beste inoiz ez nuen ikusi nire esklaboa egiazko nagusiaren rola hain modu arduratsuan betetzen. Agian horrela jokatzen ikusi nuen *facebook* sareko kontua erabiltzen jarraitzea debekatu zidanean, edo zoo nazionaleko agintariei aurre egiten zienean, ni bertan erakusgai jartzea eragozteko. Zirraragarriak ziren haren jokabidearen elementu haiek, horrelako egoeretan agerian geratzen zirenak. Zenbait unetan –uste dut estasi uneak zirela– bazirudien bere burua ahazten zuela, esklabo bihurtutako nagusiaren zereginari lotzeko bete-betean. Azkenean, tratamendu guztiek huts egiten zutela ikusirik, konfiantzazko ikertzaile zientifiko bati galdetu nion zer egingo zukeen berak antzeko egoera batean egonez gero. Erantzun zidan arlo horretako medikuek hitzarmen bat zutela. Norbaitek nire sintomen antzekoak bazituen, ez zuten joko gainerako gaixoei eskaini ohi zaizkien tratamenduetara –bistakoa zen metodo horiek ez zutela inolako ondoriorik eragiten nigan–, eta, duda-mudarik gabe, nahasmendu mota hori tratatzeko azken aurrerapen zientifikoetako bat aplikatuko zioten: terapia elektrokonbultsiboa. Ohartarazi zidaten muturreko neurria zirudiela –elektroshock famatu eta laidoztatua–, baina orduan,

urteek aurrera egin ahala, metodo ontzat zutela, eta bereziki emakume haurdunei eta gibeleko arazoak zituzten pertsonei aplikatzen zitzaiela, ezin zituztelako erabilera arrunteko sendagaiak jasan. Ikertzaile hura ospitale psikiatriko bateko zuzendaria zen, baita idazlea ere, baina, ni ez bezala, ez zen harraparia. Berehala onartu nuen haren eskaintza. Jakinarazi zidan nik nahi izanez gero bakarrik eta soilik dokumentu ofizial bat sinatzen banuen emango zidatela horrelako tratamendu bat. Orduan, bidaietarako maleta txikia presta ziezadala eskatu nion esklaboari, eta gero lotarako erabiltzen nuen zuhaitz adarra garbi zezala. Shock elektrikoen terapia gauzatzeko, nire lagun zientzialariak zuzentzen zuen ospitalean sartu behar nuen. Azaldu zidan sinatu ostean zenbait saio ezarriko zizkidatela, eta saio horietan gaixoen lokietan ipintzeko diseinatuta zeuden bi elektrodo zituen ohatila bat erabiliko zutela. Nire ezaugarri fisikoak arreta handiagoz aztertu ostean, zientzialariak esan zidan ez kezkatzeko, berak bertan eskatuko zuela nire arrano garunarekin bat zetozen pistoi elektromagnetiko batzuk fabrika zitzatela. Hiru pazientek lo egiten genuen logelan. Emakumeen logelen parean zegoen. Nire ohearen eskuinean autista zirudien gazte bat zegoen, eta ezkerrean, berriz, itxuraz eraikuntzaren batean lanean ari zela arrazoimenean zorrozki eragin zion kolpe itzel bat hartu zuen igeltsero bat. Inoiz ez nuen inor ikusi gazte mutua bisitatzen. Igeltseroaren emaztea, ordea,

egunero agertzen zen bisiten orduan, eta etxean egindako menu osoa eramaten zion. Tarte horretan bakarrik irten zitezkeen pazienteak ospitaleko lorategietara. Gainerakoan, akriliko gardenezko xafla batez estalitako lorategi antzeko batean sartuta egoten ginen. Garai hartan, nire esklaboaren egitekoa unerik onenean zegoen. Nik uste nuen ospitale hartan egongo nintzen bitartean ez nintzela gaizki sentituko ez izateagatik nire hegazti garatuaren gorputz belztu handiarekin esklabo txiki-txiki hura estaltzeko desiorik, bizkarrez eta biluz, pixka bat makurtuta, sakrifizio bat jasateko zorian egongo balitz bezala eskaintzen zitzaidan izaki hura estaltzeko gogorik. Aitzitik, edo hain zuzen ere alderdi sexual oro erabat baztertuta geratu izanagatik, orduz geroztik, justu garai hartan, ezinbesteko pertsonetan ezinbestekoena bilakatu zen. Izapide burokratikoak egin, eta ni ospitalean sartzeko beharrezkoak ziren mediku azterketak lortu zituen. Goizean oso goiz, sei zakurrez arduratzen zen, eta gero egunero-egunero garaiz iristen zen ospitaleko bisita orduetan.

Argitu beharra dut esklaboa ez dela inozoa, ez horixe. Aitzitik, mespretxa ezin daitekeen adimena du –oroimen ia fotografikoa, zeinak mojen ezkutuko bizitzak aztertzen jardutea ahalbidetzen dion–, baina, zenbait arazo direla tarteko –nortasunekoak, uste dut–, ez dirudi aukera handirik duenik egunen batean pertsona gailena izateko. Ez esklabo gisa, ez herritar gisa. Horrexegatik, maila goren samarreko

kontzientedun norbanakoa delako, deigarria iruditzen zait inoiz ez zalantzan jarri izana nire desira bakar bat ere. Mediku terapiaren kasuan, nik eskatu nuen, eta ez medikuek, tratamendu erradikala aplika ziezadatela. Zakurrekin ere gauza bera gertatzen zen: bata bestearen atzetik iristen ziren, eta gero trukatu egiten genituen. Nire nahitara egiten zen dena, eta esklaboak ez zuen ezer egiten hura eragozteko. Bazirudien ez zitzaiola axola nire ekintzek eragin zezaketen ondorioetako ezein, ondorio horiek oso-oso zentzugabeak baziren ere. Zer egiten zuen garai hartan esklaboak? Nire apeta txikiena ere prestasun osoz, itsuturik, betetzea zen haren egitekoa? Agian zentzugabea dirudi une honetan horrelako zerbait planteatzea, baina huraxe zen, noski, nagusiarekin ezarrita zuen ituna: bete-betean obeditzea haren eskakizun oro. Hala izan ezean, ulergaitza da halako gaitasunak zituen norbaitek txintik esan gabe onartzea sei zakurrekin bizitzea, eta bereziki, buruko gaixoentzako horrelako erakunde batean sartzea. Nagusia suntsitzea al da, egiaz, esklaboaren xedea? Jakina, zerbitzatzeko obsesioak zerbitzatzen duen hori suntsitzera eramango du. Zerbitzatu eta zerbitzatu egin behar du, etenik gabeko mekanika batean murgilduta, nagusiak, suntsituta, nagusi izateari uzten dion arte, beste nagusi bat bilatu ahal izateko, zeina modu berean zerbitzatuko duen, suntsitu arte. Ospitale hartan sartuta egotea zentzugabea eta arriskutsua zela ohartu nintzenean, berehala alde

egitea erabaki nuen. Zuzendariarekin hitz egin nuen, eta, ospitalean nire oldez nengoela argudiatuta, berehalako alta ematea lortu nuen. Bisiten orduan iritsi zenean, esklaboak ohiko prestasuna adierazi zuen ni berriz etxera eramateko. Han aurkitu ninduen, giltzapetuta nengoen pabiloiaren plastiko erdi-gardenezko xaflaz estalitako patioan, klaustrofobia kolpe baten atarian. *Facebook* sareko kontua erabiltzeko aukerarik gabe, hegan egiten saiatzen nintzen, eta toki guztietan jarritako estalki hura jotzen nuen, burrunban gainera. Gainerako gaixoak eta medikuak izututa zeuden nire jarrerak sortzen zuen zalapartarekin. Ordurako jasoak nituen deskarga elektrikoen lau saio. Lehenengo biak ia oharkabean joan ziren niretzat. Ohatilan etzan ninduten, anestesia ipini zidaten eta ezer arrarorik gertatu izan ez balitz bezala esnatu nintzen. Hirugarren saioan gauzak bestelakoak izan ziren. Garaia baino lehen etorri zitzaidan konortea, eta, antza denez, ipini zidaten muskulu lasaigarriak oraindik ez zidan eraginik egin. Bestela esanda, zurrun nengoen, eta arnasa ezin harturik. Gerora jakin nuen saioetan arnasketa artifiziala aplikatzen zidatela, oso azkar ireki eta ixten zuten hauspo baten bidez. Aldi hartan, esnatu egin nintzen, eta ohartu nintzen aparatu haren mugimendua ez zetorrela bat nire aire premiarekin, eta are gutxiago nire arnasketa erritmoarekin. Dena den, orain gogoan dut, ezohikoa ere iruditzen zaidan bizitasunez, esklaboa, aurretik hitzartu gabe,

maletak ia ezin hobeki egiten hasi zitzaidan aldia. Aparteko bizkortasunez ordenatzen zituen, gainera, nire literatura artxiboak, eta nire laguntzaile pertsonaltzat aurkezten zien bere burua gainerakoei.

Aldi hartan, eguneroko bisita egiteko asmoz joan zen esklaboa ospitalera. Soilik liburuen poltsa zeraman berekin, eta liburu gehienak mojen bizitzari buruzkoak ziren, hura baitzuen aztergai etengabe. Garai hartan, esklaboa titulu profesional bat lortzear zen, eta helburutzat ezarri zion bere buruari ikaskideak baino hobea izatea eta nire izena idaztea haren tesiaren eskaintzan. Kanpotik erreparatzen zion edonork usteko zuen bestearen mende egoteko zuen beharra aseta zegoela nagusiarekin zuen harremanarekin, kasu honetan, hegazti harrapari honekin zuen harremanarekin. Bazirudien mendekotasun esklusibo hark behar adina indar ematen ziola bere bizitzako gainerako alderdietan bikaina zela sinetsarazteko –nahiz eta gezurra izan, norbaitek haren sinestamenduak arretaz aztertzeko denbora izan balu–. Uste dut horrexegatik onartu nuela harremana hasieratik: itxuraz ez zelako baztertzailea izango. Esklaboak ikerketa akademikoak egiten jarraituko zuen. Nirekiko esklabotzaren adierazpen bizia eramangaitza izango zatekeen, ez balu ihesbide hura izan.

Baina esklaboak ihes egin zuen. Ni urrun nengoela aprobetxatu zuen. Bidaian nengoela. Beste eskualde batzuetan nenbilela. Ozeanoaren beste aldean. Agian azkenaldian ez nuen behar bezain

erradikal jokatu izan ohi dudan tratuan. Baliteke alderdi batzuetan huts egin izana. Besteak beste, gogoan dut aurreko bidaia batetik bueltan lurretik jasotako zapi bat opari egin niola. Oso gertuko norbaitek ohartarazi zidan. Esan zidan horrelako opari batek atzerapauso bat ekar zezakeela eraikia genuen harremanean. Zapi hark, oinezkoek zapalduta pixka bat zikina zegoenak, elkartuta mantentzen gintuen loturaren izaerari buruzko nahasmendua eragin zezakeen. Gaur, hainbat aldiz jo du telefonoak. Kasselen nago, Alemanian. Gonbidatu gisa etorri naiz, documenta 13 erakusketara. Bai hegazti harrapari gisa, bai herritar normal eta arrunt gisa. Gauerdia da. Zalantza egin dut. Ez dut zenbakia ezagutzen. Hala ere, erantzun egin dut. Arnasa antzeko bat entzun dut. Une horretantxe ulertu dut nagusiarena egiteko aukerarik ez nuenean –hau da, ospitalean sartuta egon nintzenean, bidaian nengoenean eta oso-osorik idazteko edo gautar animaliak ehizatzeko erabili nituen gauetan–, kolonaurreko Durero baten itxura zuen gizaseme hark berehala bilatzen zituela beste nagusi batzuk. Telefono bidezko arnasa hura izan zen esklaboaz izan nuen azken berria.

B a r r e jainkotiarra

Estasian ez nago bakarrik. Euren izkirimiriei erreparatzen dieten ikusleak izanez gero hobeto aritzen diren umeen edo zakurren antzekoa naiz. Ikusleak behar dituen histrioia izatea.

Estasia pozoituta egotea da.

Jainkoa izatea pozoituta egotea da.

Jainkoa pozoiz egina dago. Emadazu beste kopa bat pozoi. Pozoia euforia da,
hegada da,
indarra da,
eromena da.
Labirintoa. Labirintotik irteteko haria dut.
Arrainontzia. Akuarioa. Ni al naiz arraina? Ni al naiz akuarioko bisitaria? Barre egiten dut. Zergatik dakit barre egiten ari naizela? Burbuilak eginez barre egiten dudalako, ni neu burbuila bat naizelako, xaboi punpuila baten moduko burbuila bat,
burbuila irisatu bat,
plastikozko burbuila bat, puxika zeharrargi bat, erretorta bat, kristalezko txirrista baten gainean itzulika dabilen kristalezko esfera bat, itzulika dabilena,
itzulika beste esfera batzuekin, milaka esferarekin, milioika esferarekin, eta erori egiten dira, mugarik gabe erortzen dira, mugarik gabe
txirrista egiten dute espazio ilunean.

Kritikari (BENJAMIN BUCHLOH) bat eta . . . . . artista (GABRIEL OROZCO) bat elkarrizketan

Oso maiz erabili duzu jolas hitza. Alderdi ludiko hori kezka estetikoa da oraingoan ere? Zure lanaren funtzionamenduaren behin betiko azalpena da? . . . . . Uste dut ludiko hitza sinpleegia dela. Ez dut ideia atsegin.

Zein da, zure iritziz, artisten lanaren azpian dagoen motibazioa, aurreko ereduei dagokienez? Produkzioa, esplorazio zientifikoarekiko analogia? . . . . . Ez.

Espiritualtasuna? . . . . . Ez.

Sormena? . . . . . Tira...

Egiak ezagutzera ematea? . . . . . Bai.

Jakina, krisi batean gaude, eta aurreko ezer ez da egiantzekoa. Ikuskizun bat adieraztea edo antzeztea? . . . . . Ez.

Horrelako ezerk ez du dagoeneko funtzionatzen, egiaz. Zientzia? . . . . . Zientzia ez; ez horixe.

Txisteak? . . . . . Uste dut hori oraindik izan daitekeela.

Sexua? . . . . . Hori beti, nik uste...

Zer geratzen zaigu, zer geratzen zaizu? Aurreko hori guztia, aurrekotik zerbait? . . . . . Agian txistea, agian sexua...

Jainkotasunaren hizkuntza

María Sabinaren poesia, haren kantu xamanikoak, bi lanetan jasota daude: Wassonek une txar batean grabatutako diskoan –gau hartan Maria ez zegoen inspiratuta–, eta Pike andereñoak egindako itzulpenean. Itzulpen horrek hutsune handiak ditu, eta María Sabinarekin egin nuen bigarren elkarrizketan haiek betetzen saiatu nintzen arren, ez nuen lortu iparramerikar hizkuntzalariaren testua argitzea, zuzenketa batzuk salbu. Baliteke pasarte asko eta asko itzultzeko ezintasuna, Herlinda irakasleak ere adierazitakoa, ez izatea zailtasun fonetikoen ondoriozkoa; baliteke ezintasun horren azalpena izatea Maríak bere espezialitateko hizkuntza bat sortu duela, Huautlako biztanleek ere ulertzen ez dutena.

Hizkuntza esoteriko hori Asiako xamanek erabiltzen dute, eta mexikar petrikilo eta apaizek *nahualtocaitl* esaten diote, jainkotasunaren hizkuntza. María Sabinak sortutakoa ez da zehatz-mehatz hizkuntza esoteriko bat, baizik eta hizkuntza poetiko bat, non salmoa eta letania etengabe errepikatzen diren, metafora sarri ilunei, poeta handi guztiek erabili ohi dituzten lizentzia nahiz jolas idiomatikoei eta belar zein animalia ezezagunen aipamenei lotuta, eta horrek guztiak are zailtasun handiagoa eransten dio mazatekera hizkuntza tonalaren zailtasun nabarmenari.

Maríaren kantuek danbor xamanikoen lana egiten dute, baina horrek ez du esan nahi Maríak noizean behin perkusioko elementuak erabiltzen ez dituenik. Badirudi estasiaren irudi sakabanatuak, kulunkariak eta erabat zehaztugabeak ordenatu egiten direla haren kantikei esker, eta zentzua hartzen dutela. Gogoan dut nire hirugarren esperientzian, trantzetik irtetean, isilune baten ostean María abesten hasi zela berriz, eta oso melodia leuna sortu zuela, oso kilikagarria –soinu bakoitzak nire haragia irekitzen zuen, eta gozamen amaigabez asetzen zuen–; amaitzean, maisu batek exekutatutako kontzertu bat izan balitz bezala, neure buruari eutsi ezinik oihukatu nuen: «Bravo, María!»

Heimek*, Roger Jean Heim, mikologo frantsesa onddoen botereari buruz hitz egitean, esaten du haiek altxatzen dutela isiltasuna. Entzumenaren eta hotsen munduaren artean isiltasun errezel bat dago, argiaren eta begiaren artean uhin luzera luzeegia edo laburregia duten izpiak xurgatzen dituen atmosfera bat dagoen bezalaxe. Onddoek errezel hori zabaltzen dute. Soinuek bibrazio berezia hartzen dute; mundu gorrak bere orkestrazioaren osotasuna berreskuratzen du, eta ahotsaren intonazio arinenak ere, igurtzi hautemanezinenak ere areagotuta entzuten dira, dagoeneko ohikoa ez den plano batera lekualdatuta; Lurreko atmosfera desagertuta gure begiek X izpien eguzki koroari kalterik jasan gabe begiratu ahal izango baliote bezala.

Mundua melodiatsu bilakatzen da, edo guk galdutako entzumena leheneratzen dugu. Jainkotasunaren hizkuntza. Ibiltari betierekoak. Melodia bera bezain isilune perfektuak. Unibertsoa ahots bakar bat da. Ukitze musika, sentitzen den musika, ikusten den musika. Peyotea jan izana leporatu zioten gizon haren haluzinazioa, Ofizio Santuko epaileen aurrean honelakoak ikusi zituela adierazi zuenean: «Ipurtargien tankerako usozuri ugari, eta gorputz gainean ur tantak isurtzen ziren, zirimiria egiten duenean bezala» [Aguirre Beltrán]. Milaka usozuri argidun espazioa zeharkatzen; euri bilakatutako musika gorputz biluziaren gainera erortzen. Hegan usoak, ipurtargiak, diamante likidoak, bihi berde, hori eta gorriak; kubismoa, tatxismoa, eginez, berreginez, jaioz, hilez, motibo musikala irudi hauen bidez adierazia: irudi errealak, ikusgaiak, gure azaleko poroetako bakoitzaren bitartez sentitzen ditugunak, tente jarritako biloetako bakoitzaren bitartez, ileetako bakoitzaren bitartez, muskuluetako bakoitzaren bitartez, garuneko masa suspertu eta sutuaren bitartez, zeina aldi berean baiten ezin adierazizko melodia unibertsal horren hartzailea eta sortzailea.

[...]

hitz
tentel
bat,

tentelki
barre
eginaraaten
zidana.

Hitz
egin
nahi
nuen, irudi
horiek
erregistratu

–zer dela
eta dena
erregistratzeko
grina
ergel hori? –,

grrokoei
erakutsi,
legatu
paregabe
hura
laga,
eta hitz
bakarra
ateratzen
zitzaidan,

Barrearen ahalmen entropikoa Smithson Mexikon

Gauza jakina da 1969an Robert Smithsonek, haren emazte Nancy Holtek eta haien lagun Virginia Dwanek denboraldi bat igaro zutela Chiapaseko oihanean nonbait, Mexikoko hegoaldean. Egonaldi horren berri eman zuen Smithsonek berak, geroago, 1972an, Utahko unibertsitateko arkitektura ikasleentzat emandako hitzaldi batean. Berak ateratako 31 argazki ere erabili zituen.

Baina nola lortu zuten bidaiariek Ameriketako Estatu Batuetako ekialdeko kostaldetik abiatu, eta mendebaldeko basamortuetako zeru amaigabeen azpian gaizki asfaltatutako milaka kilometro egitea, bidea ispiluz betez, landarediaren eta hezetasunaren erdian galduta eta ezkutatuta dagoen toki hartaraino, Palenque hiri maiaren hondarren ondoan kokatutako toki hartaraino iritsi arte? Bada, ez dago oso argi.

Peyotearen bideetatik eta *beat* belaunaldiko herrikide batzuen urrats galduetatik harago, badirudi Smithsonek eta haren lagunek benetako interesa zutela maien kultura eta munduaren ikuskera ulertzeko, eta horrek justifikatu zituen bidaia, egonaldia eta aterpe erdi eraiki batean ostatu hartzeko erabaki arraro samarra. Iragarki handi bat zuen eraikinak: Palenque Hotela.

«Egituretan bizi gara –dio *Spiral Jetty* lanaren egileak–, eta erreferentziazko esparruz inguratuta gaude, baina Naturak desegin egiten ditu, eta osotasunik gabeko egoera batera itzultzen ditu». Horra hor, agian, hotel erdi erori bat aukeratu izanaren azalpena, eta zergatik zuen Smithsonek halako interesa eta obsesioa hura aztertu eta haren eredua berriz marrazteko, haren arkitektura «eraitsian» galtzeko arriskua onartzeko, haren egitura amaitugabea azaltzeko eta urratsa emateko; urrats arriskutsua, baina ibilbide artistikoa erabat osatzeko ezinbestekoa izan zitekeena.

Smithsonek berehala onartu zuen ahaleginak ahalegin hotela «toki ulertezina» zela. Palenque Hotela eraikuntzaren eta hondakinen arteko puntu hil batean kokatutako eraikina da: «Gizakiak sortutako mexikar mirari geologiko moduko bat». Ezin da jakin noiz hasi ziren hura eraikitzen, baina are zailagoa da jakitea noiz amaitu zuten, edo inoiz amaituko ote den: «Hotel guztia korapilatuta dago, eta berriz korapilatzen da. Bere buruaren inguruan bihurritzen den filigrana multzo handi baten modukoa da».

Junglako energia geldiak meditazio sakonean murgilarazi zuen ordu luzez, eta energia hark bultzatuta, honela aitortu zuen: «Susmoa dut hotel hau maiek euren tenpluak eraikitzen zituzten espiritu berarekin eraiki zutela». Esaldi hori bitxia da; izan ere, gaur egun oraindik argitu gabe dagoen alderdietako bat da zergatik aukeratu zuen

Smithsonek bere hitzaldirako erortzear zegoen hotel hura, haren ondoan kokatuta zegoen toki arkeologiko mirarizkoa aukeratu ordez. Nolanahi ere, aurrerago animatu egiten ditu entzuleak: «Espero dut zuek ere Palenque Hotelean ostatu hartzea, maiek oraindik ere nola eraikitzen duten uler dezazuen. Egiturak, neurri batean, mantendu egiten du maien tenplu tipikoetako izaera korapilatsu eta beldurgarria, bereziki uxmal motakoetan ageri dena, zeinak diren oso, oso... Barroko maia esaten zaio, eta ezaugarritzat ditu sugeaireko fatxadak, arrokan zizelkatutako forma txirikordatudun kiribilez beteak; oso ederra da».

Kiribilaren inertzia berdinak liluratuta beti, aurrerago Smithsonek honela ohartarazten du, umore ukitu batekin: «Herrialde honetan bada zerbait, paisaian bertan ezkutatuta dagoen indarkeria orokortua. Artista eta idazle asko Mexikora joan, eta suntsituta itzuli ziren. Hart Craneri gertatu zitzaion Mexikotik itzultzean: itsasontzi baten popatik jaurti zuen bere burua helizeen gainera, eta txiki-txiki eginda geratu zen*. Horrexegatik kontu handiz ibili behar da herrialde hau bisitatzean, ez jasotzeko lurraren zentimetro bakoitzean ezkutatuta dagoen indarkeria oharkabeko eta arras arriskutsu horren eragina».

Elementu arkitektonikoetatik, Smithsonek hauek aipatzen ditu: sabairik gabeko zutabeak, jomugarik gabeko korridoreak, zementua, azaoak, adreiluak, burdin lanak eta eraikuntzako material guztiak nonahi zokoratuta, igeltsuz betetako pitzadura, dorrea eta haren birako eskailera karratua, eraikinaren parte ez ezik, enigmaren parte ere badirenak. Hoteleko elementu guztiak ustekabe baten ondorio direla edo sakrifiziorako prestatuta daudela dirudi, baita dantza areto hutsa eta zubi esekia duen urik gabeko igerilekua ere, eta kripta barruko taberna. Halako batean, bizitza azaleratzen duten ikurrak agertzen dira: aulki bat, ate bat, bananondo triste bat harriz betetako lorategi batean, eskailera bat eta dortokentzako urmael bat. Baina horren guztiaren lekukoak, Smithsonek, zeinek argazkiak egin dituen eta iruzkin bat idatzi duen horietako bakoitzarentzat, mekanika entropikoaren analogia perfektua aurkitu du arkitektura «desarkitekturizatu» horretan, ez-toki horretan, eta, analogia horri esker, are urrunago joan daiteke, eta energiaren lege fisikoen eragiketak maien kosmobisioarekin lotu ditzake, baita kulturaren eraikuntzarekin eta haren suntsipenarekin ere. Hortik ateratzen du hitzaldian azaldutako ondorioetako bat: «Hondamena da eraikuntza ororen ezkutuko arima».

Behaketa zuzeneko ariketa bat eginez, Smithsonek adibideekin azaltzen du esanahiaren lokadura, espazioa-denbora suntsitzeko lana. Beste ikuspegi kiribildu bat: leiho esekiaren irudiarekin lotuta dagoena; barne segurtasunetik, ezinezkoa da leiho horretan zehar ikustea, baina inguruneak higatuta eta biluzita, lotura ikusezina du hotelaren atearekin. Eta ate horrexekin amaitzen du Smithsonek

* Jaurti aurretik, *White buildings* idatzi zuen poetak eskuaz keinu eginez agur esan zien New Yorkera zihoazen bidaiari guztiei.

hitzaldia, eta pentsamendurako ataka irekitzen du, mugei eta haien pixkanakako desagerpenari buruzko gogoetara garamatzan ataka: barrutik ikusita, Palenque Hoteleko ateak hitzaldi aretora bueltatzeko bidea irekitzen du. Amaitu da bidaia.

Oroimenaren eta ahanzturaren arteko erdibidean, gogoan dut nonbait irakurri nuela ironia bide antzua dela, eta umorea, aldiz, emankorragoa izan daitekeela hitzaldi eraginkor bat eraikitzeko. Zenbaitek hitzaldian antzeman duten umoreak berretsi egiten du Smithsonen berbalizazio entropiko delakoari buruzko tesia: b a r r e a eta haren ahalmena. «Laugarren dimentsioko ordena eta desordena barrearen eta egitura kristalinoaren artean koka litezke, espekulazio mugatuko mekanismo gisa». Badirudi kultura prehispanikoak horren jakitun zirela; museo antropologiko bat bisitatzea besterik ez dago, eta ikustea apalategietan ageri diren figuratxo ugariek jarrera bitxienetan egonda ere ez dutela inoiz galtzen harrizko irribarrea, seguru asko egun hartan hitzaldira hurbildutako entzule ugarien aurpegi erdi liluratu erdi sinesgogorretan agertuko zen irribarre berbera.

B a r r e a eta penitentzia

Figuratxoen b a r r e a jakituria zentzugabea (modu gogoetatsuan erabili ditut bi hitz horiek) salatzen hasi zaigu; nekez oroitzen dira Xochipillik esku hartzen zuen zeremoniak. Lehenik, burua moztea. Eguzki erritu bat da, zalantzarik gabe. «Olmeken» garaian dagoeneko ageri da, Tres Zapoteseko hilarri batean. Gainerakoan, enborretik bereizitako buru baten gisa adierazitako eguzkiak espiritu guztiak irudikatzen ditu berez. (Ba al zekien Apollinairek metafora zahar bat errepikatzen zuela poema sonatu bat esaldi honekin amaituta: *Soleil cou coupé?*) Hona hemen zenbait adibide: Nuttal Kodexan Xochiquetzal burua moztuta ageri da pilota jokoan, eta Xiloneni eskainitako festan burua mozten zioten emakume bati, jainkosaren haragitzeari, hain zuzen ere Cintéotl jainkoaren aldarean. Burugabetzea ez zen erritu bakarra. Tlazoltéotl, Ilargiaren jainkosa, Dianaren antzera arkularia eta ehiztaria, baina ez hura bezain garbia, gezi bidezko sakrifizioaren zaindaria zen. Badakigu erritu hori kostaldekoa zela jatorriz, hain zuzen ere kultura huastekoari eta totonokoari dagokion eskualdekoa. Amaitzeko, alferrikakoa dirudi Xipe Larrutuari* eskainitako sakrifizioekin luzatzea, baina merezi du, ordea, aipatzea sakrifizio mota hori Xochipilliri egindako gurtzaren zati ere bazela: Magliabecchiano Kodexean tximu larru batez bilduta ageri da dantzaren eta poztasunaren jainkoa.

Hala bada, ez da burugabea pentsatzea figuratxoek barre egiten dutela eta euren txintxin

* Xipetótec jainkoari lotutako sakrifizioetan, «esklabo eta gatibu ugari hil eta larrutzen zituzten... eta haien larruak janzten zituzten» (Fray Bernardino de Sahagún, *Historia de las cosas de la Nueva España*, II. liburua)

magikoak astintzen dituztela sakrifizioaren unean. Haien poztasun gizagainekoak izatearen bi alderdien batasuna ospatzen du, nola burugabearen odol zurrusta zazpi suge bilakatzen den.

Pilota Jokoa burugabetze bidezko sakrifizio batekin amaitzen zen erritu baten gertalekua zen. Baina erritu hori egiatan jolas bat zela ahaztuz gero, haren zentzua ez ulertzeko arriskua dago. Erritu orok du osagai ludiko bat. Erituaren erroa bera jolasa dela ere esan genezake. Arrazoia begian bistan dago: sorkuntza jolas bat da; esan nahi dut: lanaren kontrakoa. Jainko-jainkosak jostalariak dira, izatez. Jolastean, sortu egiten dute. Jainko-jainkosen eta gizakien arteko desberdintasuna da haiek jolastu egiten direla eta gu, berriz, beharrean aritu. Mundua jainko-jainkosen jolas krudela da, eta gu haien jostailuak gara. Mitologia guztietan mundua sorkuntza bat da: doako ekintza bat. Gizakiak ez dira beharrezkoak; ez dute euren kabuz bizirik irauten, besteren borondatez baizik: sorkuntza bat dira, jolas bat. Munduaren eta gizakien jarraitutasuna mantentzera bideratutako erritua jainko-jainkosen jolasaren imitazioa da, jatorrizko ekintza sortzailearen antzezpena. Profanoaren eta sakratuaren arteko muga bat dator erritua eta lana bereizten dituen lerroarekin, barrea eta seriotasuna bereizten dituenarekin, kreazioa eta ekoizpen lana bereizten dituenarekin. Jolas guztiak erituak izan ziren jatorrian, eta gaur egun ere zeremonial bati erantzuten diote; lanak erritual

guztiak apurtzen ditu: beharrean ari garenean, ez dago ez denborarik ez espaziorik jolasteko. Erituan jolasaren paradoxa da nagusi: azkenak izango dira lehenak, jainko-jainkosek ateratzen dute mundua ezerezetik, heriotzaren bidez irabazten da bizia; lanaren eremuan ez dago paradoxarik: zure izerdiaren truke irabaziko duzu bizitzeko ogia, gizaki bakoitza bere egintzen emaitza da. Halabeharrezko lotura dago ahaleginaren eta haren emaitzaren artean: ordaingarria izateko, lanak produktiboa izan behar du; erituaren erabilgarritasuna jarraitutasun kosmikoa bermatzeko bizi eta denbora galera alferrikakoa eta ikaragarria izatean datza. Erituak jolasaren arrisku guztiak onartzen ditu, eta irabaziak, galerak bezalaxe, kalkulaezinak dira. Sakrifizioa naturaltasunez sartzen da jolasaren logikan; horrexegatik da zeremoniaren ardatza eta burutzapena: ez dago galerarik gabeko jolasik, ezta eskaintza edo biktimarik gabeko erriturik ere. Jainko-jainkosak beren burua eskaintzen dute mundua sortzean, sorkuntza oro jolas bat baita.

Barrearen eta sakrifizioaren arteko lotura erritua bera bezain zaharra da. Bakoren eta Saturnoren jaietako indarkeria izugarriarekin batera oihuak eta barre algara biziak izaten ziren ia beti. Barreak unibertsoa astintzen du, bere onetik ateratzen du, haren erraiak agertzen ditu. Barre ikaragarria jainko-jainkosen adierazpena da. Sakrifizioaren moduan, barreak lana ukatzen du. Zeregina eteten duelako ez

ezik, baita haren seriotasuna zalantzan jartzen duelako ere. Barreak eten egiten du judizioa, eta batzuetan galarazi. Hala bada, lanaren esanahia ezeztatzen du, eta, ondorioz, baita munduarena ere. Lana baita, hain zuzen ere, naturari zentzua ematen diona; haren axolagabekeria edo etsaitasuna emaitza bilakatzen du, natura ekoizle bihurtzen du. Lanak mundua gizatiartzen du, eta humanizazio horrek ematen dio zentzua. Barreak jatorrizko axolagabekeria eta harridura egoerara leheneratzen du unibertsoa: esangurarik badu, jainkotiarra da, ez gizatiarra. Barrearen eraginez, mundua jolastoki bilakatzen da berriz, eremu sakratu, eta lanerako toki izateari uzten dio. Barrearen nihilismoak jainko-jainkosak zerbitzatzen ditu. Haren funtzioa ez da sakrifizioen funtzioaren bestelakoa: naturaren jainkotasuna berrezartzea, haren muturreko gizagabetasuna. Mundua ez da gizakiarentzat egina; mundua eta gizakia jainko-jainkosentzat eginak dira. Lana serioa da; heriotzak eta barreak seriotasun maskara kentzen diote. Heriotzaren eta barrearen bitartez, mundua eta gizakiak jostailu dira berriro.

Gizakien eta jainko-jainkosen arteko distantzia amaigabea da. Behin eta berriro, erituaren eta sakrifizioaren bitartekoen bidez, gizakia eremu jainkotiarrera iristen da –baina soilik istant batean jatorrizko kontingentzian erortzeko–. Gizakiek jainko-jainkosen antza izan dezakete; haiek inoiz ez dute izaten gure antza. Urrutikoa eta arrotza, jainkoa edo jainkosa «bestetasuna» da. Sekulako *misterio* gisa

agertzen da gizakien artean, Ottoren adierazpen ezaguna erabiltzeko. Ezin iritsizko beste mundu bateko haragitzeak, jainko-jainkosen irudikapenak ikaragarriak dira. Beste nonbait, ordea, saiatu naiz bereizten numenaren izaera izugarria eta izugarrikeria sakratuaren esperientzia, akaso sakonagoa*. *El arco y la lira* (pp. 123-131), México, 1956. Beldurgarria eta izugarria jainko-jainkosen boterearen ezaugarriak dira, haien autoritatearen eta hantustearen ezaugarriak. Baina jainkotasunaren muina haren misterioa da, haren muturreko «bestetasuna». Dena dela, «bestetasunak», berez, ez du izua eragiten, lilura baizik. Esperientzia higuingarria da, edo, zehatzago esanda, askagarria: kosmosaren erraiak irekitzea, eta erakustea sortzeko organoak suntsitzeko organo berberak direla eta, ikuspuntu jakin batetik (jainkotasunarenetik), bizitza eta heriotza gauza bera direla. Sentimenduen erreinuan espirituko paradoxaren eta antinomiaren baliokidea den esperientzia da izugarrikeria: jainkoa edo jainkosa absentzia hondogabea den erabateko presentzia bat da. Presentzia jainkotiarrean presentzia guztiak agertzen dira eta haren bitartez dena dago presente; aldi berean, jolas bat izango balitz bezala, dena hutsa dago. *Agerpenak* izatearen aurkia eta ifrentzua erakusten ditu. Coatlicue existentziaren ezaugarri guztiez beteegia eta mukurututa dagoena da, eta presentzia horretan biltzen da unibertso osoa; eta sinbolo, esangura eta zeinuen ugarikeria hori zulo bat ere bada, amildegira

daraman amaren aho handia. Mexikar jainko-jainkosei izaera beldurgarria eta izugarria kentzea, batzuetan gure arte kritikak egin nahi duen moduan, jainko-jainkosak bi aldiz anputatzea da: jeinu erlijiosoaren sorkuntza gisa, batetik, eta artelan gisa, bestetik. Jainko zein jainkosa oro beldurgarria da; jainko zein jainkosa oro izugarrikeria iturri da. Eta antzinako mexikarren jainko-jainkosek energia sakratua dute, soilik birrintzaile kalifikatiboa merezi duen energia sakratua. Horregatik liluratzen gaituzte.

Presentzia izugarria, jainko edo jainkosa hurbilgaitza; misterio liluragarria, ezagutezina da. Bi ezaugarriek bat egiten dute sorgortasunean. (*Pasioa* gizatiartutako jainko-jainkosei dagokie, hala nola Kristori). Jainko-jainkosak lanaren seriotasunetik harago daude, eta horregatik haien jarduna jolasa da; baina jolas sorgorra da. Egia da, bai, garai arkaikoko greziar jainko-jainkosek irribarre egiten dutela; irribarre hori haien axolagabetasunaren adierazpena da. Sekretuaren barruan daude; badakite mundua, gizakiak eta eurek ere ez direla ezer; Hado edo patuaren figurak ez beste; greziar jainko-jainkosentzat, ongia eta gaizkia, heriotza eta bizitza hitzak dira. Irribarrea da haien sorgortasunaren zeinua, gizakiarengandik bereizten dituen distantzia amaigabearen ikurra. Irribarre egiten dute: ez ditu ezerk aztoratzen. Ez dakigu Mexikoko jainko-jainkosek barre egiten duten, edo irribarre: maskara batez estalita daude. Maskarak funtzio bikoitza du; haizemaile baten antzera, jainkotasuna ezkutatu eta

agertzen du. Hobe esanda: haren esentzia ezkutatzen du, eta agerian uzten ditu haren ezaugarri beldurgarriak. Modu batean zein bestean distantzia gaindiezina ezartzen du gizakien eta jainko edo jainkosaren artean. Jainko-jainkosa sorgorren jolasean, zer leku du barreak?

. . .

B a r r e a jainko-jainkosak baino lehenagokoa da. Batzuetan, jainko-jainkosek barre egiten dute. Iseka, mehatxua edo zorakeria, haien barre burrunbatsuak izutu egiten gaitu: mugimenduan jartzen du kreazioa, edo urratu egiten du. Beste batzuetan, b a r r e a galdutako unitatearen, hau da, mundu magikoaren oihartzuna edo nostalgia da. Haitzulo batean ezkutatuta zegoen eguzki-jainkosa erakartzeko, Uzumé jainkosak «bularrak estalgabetu zituen, gonak jaso zituen eta dantza egin zuen. Jainko-jainkosak barrezka hasi ziren, eta haien barreak dardarka utzi zituen zeruaren habeak». Japoniar jainkosaren dantzak ateratzera behartu zuen eguzkia. Hasieran, barrea zegoen; dantza lizun batek eta barre algara batek abiarazi zuten mundua. Barre kosmikoa ume barrea da. Gaur egun haurrek bakarrik barre egiten dute figura totonakoen irribarrea gogora dakarkigun barrearekin. Lehen eguneko barrea, barre basatia eta lehen negarretik hurbil dagoena oraindik: munduarekiko hitzarmena, hitzik gabeko elkarrizketa, plazera. Nahikoa da

eskua luzatzea fruitua hartzeko, nahikoa da barre egitea unibertsoak barre egiteko. Munduaren eta gizakiaren arteko batasuna leheneratzen badu ere, haurren irribarreak haien arteko behin betiko bereizketa ere iragartzen du. Haurrak elkarri aurrez aurre begiratzera jolasten dira: barre egiten lehenak galtzen du jolasa. Barrea ordaindu egiten da. Kutsakorra izateari utzi dio. Mundua gortu egin da, eta aurrerantzean ahaleginaren edo sakrifizioaren bidez bakarrik konkistatzen da, lanarekin edo erituarekin.

Denboraren une hau zehazten duen espiritua ahitu egiten da ezinbestean –eta erabat hedatuta, ahitze hori gura du–. Mitoa eta mitoaren posibletasuna desegin egiten dira: huts mugagabe, maitatu eta zoritxarreko batek bakarrik dirau. Baliteke mitorik eza zoru hori izatea, nire oinen azpian aldagaitz dagoen zorua, baina agian zoru hori berehala desagertuko da.

Jainkorik eza ez da itxiera: infinituaren irekiera da. *Jainkorik eza* Jainkoa baino zabalagoa da, jainkotiarragoa (hortaz, jada ez naiz Ni, *Nirik eza* baizik: inkamina hori espero nuen, eta orain alaia eta neurrigabea naiz).

Absentziaren hutsune zuri eta inkongruentean, xaloki bizi eta desegin egiten dira jada mito ez diren mitoak, zeinen iraupenak berak haien eskasia salatuko lukeen. Posibletasunaren gardentasun zurbilak, gutxienez, zentzu hobeezina du: ibaiak itsasoan bezala, mitoak, iraunkorrak edo iragankorrak, galdu egiten dira *mitorik ezan*, eta horixe da haien duelua eta egia.

Fede gabezia erabakigarria da fede hauskaitza. Mitorik gabeko unibertso bat hondatuta dagoen unibertso bat izanik –gauzen ezerezera txikitua–, mitoak kentzeak parekatu egiten ditu gabetzea eta unibertsoaren errebelazioa. Unibertso mitikoa ezabatuta unibertsoa galdu badugu, horrek berak mitoaren heriotzari eransten dio galera argigarri baten ekintza. Eta, gaur egun, mito bat hil egin bada edo hil egiten bada, bizirik egongo balitz baino hobeto ikusten dugu haren bitartez: gabetzeak hobetzen du gardentasuna, eta sufrimenduak egiten gaitu pozkor.

«Gaua ere eguzki bat da», eta mitorik eza ere mito
bat da: hotzena, garbiena,
egiazko bakarra.

Edozein dela ere jarraitutako doktrina historikoa (eta ez naiz ni tradizio indigenaren betikotze zentzugabeekin amets egiten duen horietakoa, eta espainiar tradizioaren betikotzerik ere ez dut larregi espero), badugu, odolaz gain, iraganeko arrazarekin lotzen gaituenik: gure izaera basatia eta burrunbatsua menderatzeko ahaleginaren elkarrekikotasuna. Eta ahalegin hori historiaren oinarri gordina da. Era berean, bada batzen gaituen beste ezaugarri komun bat ere, askoz sakonagoa: objektu natural berari begirako ohiko emozioa.

Sentikortasunaren eta munduaren arteko talkak arima komun bat landu eta sortzen du. Baina ez bata ez bestea onartzen ez bada ere –ez ekintza komunaren egintza, ez kontenplazio komunarena–, guztiok onartuko dugu emozio historikoa bizitzaren zati dela eta, haren distirarik gabe, gure bailarak eta mendiak argirik gabeko antzokien parekoak izango liratekeela. Ilargiak sumendietako elurretan distira egiten duenean, poetak zeru gainean islatuta ikusten du Marina andrearen mamua, Izar Gezilariaren itzalak jazarria; edo ahoa zeruari atseden toki gisa eskaintzen dion kobrezko aizkorarekin amesten du; edo iruditzen zaio zuriz jantzitako jainkosak bizkarrean daramatzan bikien negar zorigaiztokoa entzuten duela: ez diezaiogun oroitzapena ukatu, ez dezagun suntsitu kondaira. Tradizio hori gurea ez balitz ere, esku artean dugu, eta guk bakarrik balia dezakegu. Ez diogu, ez, –o, Keats– uko egingo gozamen betierekoak sortzen dituen inolako edertasun objekturi.

Irudika dezagun berriro eskaintza hau prestatzeaz arduratu den ikertzailea, erritualen aztertzailea, poeta, hegazti harraparia edo «kritikaria». Haren irrika harago doa, eta liburu zerrenda labur bat eskaintzen du, eskasa eta apetatsua, irakurle jakingurak –nahi izanez gero– eginkizun *ia* ezinezkoa gauzatu ahal izan dezan: lurralde batetik askoz harago doan osotasunaren zentzua ulertzea. Mexikoren gosea asetzea. Eskaintza hau ez da ohiko bibliografia bat, ezta ariketa entziklopediko zorrotz bat ere; ikertzaileak herrialde konplexu bateko kulturan sakontzeko funtsezkoak diren izenburuen eta egileen laburbilduma xumea prestatu du. Ikus daitekeenez, haren eskaintza testu katalogo labur bat da; katalogo horretan, mexikar literatura da nagusi jakintza arlo gisa, baina sartuta dago, halaber, hainbat garaitan herrialdearekin eta bertako kulturarekin liluratuta egon ziren hainbat idazle atzerritarren ikuspuntua. Era berean, gizon eta emakume askok hainbat garaitan egindako ikerketa historiko, etnografiko, antropologiko, artistiko, lexiko eta gastronomiko garrantzitsuenetako batzuk aipatuta daude; izan ere, ikerketa horiek gabe, Mexiko eta mexikarra dena zirriborratzeko asmo oro –betiere «fikzioaren» eremu ezegonkor, subjektibo baina beti indartsuan– osatugabetzat aitortutako eskaintza baten osotasuna da, edozein sakrifiziotan eta energiaren gehiegizko gastutan bezalaxe.

HISTORIA, ANTROPOLOGIA, ETNOGRAFIA ETA LEXIKOGRAFIA

001. *Cartas de relación*
Hernán Cortés
002. *Historia verdadera de la conquista de la Nueva España*
Bernal Díaz del Castillo
003. *Historia general de las cosas de la Nueva España*
Bernardino de Sahagún
004. *Cortés*
Christian Duverger
005. *Malintzin, una mujer indígena en la conquista de México*
Camilla Townsend
006. *La flor letal: economía del sacrificio azteca*
Christian Duverger
007. *Atlas geográfico y físico del virreinato de la Nueva España*
Alexander von Humboldt
008. *Crónica de la eternidad*
Christian Duverger
009. *La invención de América*
Edmundo O'Gorman
010. *Visión de los vencidos*
Miguel León–Portilla
011. *La ciudad de México, una historia*
Serge Gruzinski
012. *Destierro de sombras*
Edmundo O'Gorman
013. *Historia mínima de México*
Daniel Cosío Villegas *et al*
014. *Los indios de México*
Fernando Benítez
015. *El perfil del hombre y la cultura en México*
Samuel Ramos
016. *Idea de la muerte en México*
Claudio Lomnitz

017. *Anatomía del mexicano*
Roger Bartra
018. *El salvaje en el espejo*
Roger Bartra
019. *Diccionario del español de México*
El Colegio de México
020. *Diccionario del náhuatl en el español de México*
Enrique García Escamilla
y Carlos Montemayor
021. *Diccionario de la lengua náhu*
Rémy Siméon

MEXIKAR LITERATURA

022. *Los bandidos de Río Frío*
Manuel Payno
023. *Los de abajo*
Mariano Azuela
024. *El águila y la serpiente*
Martín Luis Guzmán
025. *La suave patria y otros poemas*
Ramón López Velarde
026. *Ulises criollo*
José Vasconcelos
027. *México en una nuez y otras nueces*
Alfonso Reyes
028. *Visión de Anáhuac*
Alfonso Reyes
029. *De fusilamientos*
Julio Torri
030. *Al filo del agua*
Agustín Yáñez
031. *Pedro Páramo*
Juan Rulfo

032. *El llano en llamas*
Juan Rulfo
033. *Confabulario*
Juan José Arreola
034. *Muerte sin fin*
José Gorostiza
035. *Nueva grandeza mexicana*
Salvador Novo
036. *El laberinto de la soledad*
Octavio Paz
037. *Libertad bajo palabra*
Octavio Paz
038. *Recuerdos del porvenir*
Elena Garro
039. *El luto humano*
José Revueltas
040. *Los hombres del alba*
Efraín Huerta
041. *Los relámpagos de agosto*
Jorge Ibargüengoitia
042. *Instrucciones para vivir en México*
Jorge Ibargüengoitia
043. *La región más transparente*
Carlos Fuentes
044. *La noche de Tlatelolco*
Elena Poniatowska
045. *Las batallas en el desierto*
José Emilio Pacheco
046. *Días de guardar*
Carlos Monsiváis
047. *Los rituales del caos*
Carlos Monsiváis
048. *Oficio de tinieblas*
Rosario Castellanos

049. *Cartucho*
Nellie Campobello
050. *Noticias del Imperio*
Fernando del Paso
051. *Los albañiles*
Vicente Leñero
052. *Tragicomedia mexicana*
José Agustín
053. *El complot mongol*
Rafael Bernal
054. *¡Vámonos con Pancho Villa!*
Rafael F. Muñoz
055. *Pancho Villa. Una biografía narrativa*
Paco Ignacio Taibo II
056. *El seductor de la patria*
Enrique Serna
057. *Vida de fray Servando*
Christopher Domínguez
058. *Huesos en el desierto*
Sergio González Rodríguez
059. *Porque parece mentira la verdad nunca se sabe*
Daniel Sada
060. *El taller del tiempo*
Álvaro Uribe
061. *La casa pierde*
Juan Villoro
062. *Disparo en la oscuridad*
Fabrizio Mejía
063. *Lodo*
Guillermo Fadanelli
064. *El último lector*
David Toscana
065. *El cielo árido*
Emiliano Monge

066. *Poemas de terror y misterio*
Luis Felipe Fabre

ESCRITORES EXTRANJEROS EN MÉXICO

067. *La vida en México, durante una residencia de dos años en ese país*
Madame Calderón de la Barca
068. *La serpiente emplumada*
D. H. Lawrence
069. *La rebelión de los colgados*
B. Traven
070. *Bajo el volcán*
Malcolm Lowry
071. *El poder y la gloria*
Graham Greene
072. *Cuentos mexicanos*
Katherine Anne Porter
073. *El río/Novelas de caballería*
Luis Cardoza y Aragón
074. *Ce bleu exactement*
Anna Seghers
075. *Los tarahumara*
Antonin Artaud
076. *México*
Antonin Artaud
077. *Supervivencias de un mundo mágico*
Laurette Séjourné
078. *Las enseñanzas de Don Juan*
Carlos Castaneda
079. *En la frontera*
Cormac McCarthy
080. *Mexico city blues*
Jack Kerouac

081. *Variaciones sobre tema mexicano*
Luis Cernuda
082. *El diario de Lecumberri*
Álvaro Mutis
083. *El sueño mexicano o el pensamiento interrumpido*
Jean Marie Gustave Le Clézio
084. *Los detectives salvajes*
Roberto Bolaño
085. *Lejos de Veracruz*
Enrique Vila-Matas
086. *México: visitar el sueño*
Philippe Ollé Laprune
087. *Le Mexique. Un cas de fascination littéraire*
Elizabeth Legros Chapuis
088. *Diego de Montparnasse*
Olivier Debroise
089. *André Pieyre de Mandiargues. Pages mexicaines*
Alain–Paul Mallard (ed.)
090. *Zócalo*
Adonis
091. *Las llaves de la ciudad: un mosaico de México*
David Lida
092. *El circuito interior / Una crónica de la ciudad de México*
Francisco Goldman
093. *¡Viva!*
Patrick Deville

MEXIKAR ARTEA

094. *Arqueología del México antiguo*
Eduardo Matos Moctezuma
095. *Arte precolombino de México y de la América central*
Salvador Toscano

096. *Arte colonial en México*
Manuel Toussaint
097. *Pintura colonial en México*
Manuel Toussaint
098. *El arte del siglo XIX en México*
Justino Fernández
099. *Los pinceles de la historia.*
De la patria criolla a la nación mexicana, 1750-1860
VV. AA.
100. *Los pinceles de la historia.*
La fabricación del Estado, 1864-1910
VV. AA.
101. *Los pinceles de la historia.*
La arqueología del régimen, 1910-1955
VV. AA.
102. *Una visión del arte y de la historia*
Jorge Alberto Manrique
103. *Pintura mexicana contemporánea*
Luis Cardoza y Aragón
104. *Mexican Art Today*
Luis Cardoza y Aragón
105. *Apolo y Coatlicue,*
Ensayos mexicanos de espina y flor
Luis Cardoza y Aragón
106. *Los privilegios de la vista*
Octavio Paz
107. *Historia* mínima *del arte mexicano en el siglo XX*
Teresa del Conde
108. *Hacia otra historia del arte en México*
Esther Acevedo (ed.)
109. *Un siglo de arte mexicano: 1900-2000*
Juan Coronel Rivera *et al.*
110. *El surrealismo y el arte fantástico de México*
Ida Rodríguez Prampolini

111. *Desafío a la estabilidad.*
Procesos artísticos en México, 1952-1967
Rita Eder (ed.)
112. *México: esplendores de treinta siglos*
VV. AA.
113. *Twenty Centuries of Mexican Art.*
Veinte siglos de arte mexicano
VV. AA.
114. *Sobre la superficie bruñida de un espejo:*
fotógrafos del siglo XIX
Rosa Casanova y Olivier Debroise
115. *Maravillas que son, sombras que fueron / La fotografía en México*
Carlos Monsiváis
116. *Fuga mexicana / Un recorrido por la fotografía en México*
Olivier Debroise
117. *La era de la discrepancia:*
arte y cultura visual en México 1968-1997
Olivier Debroise (ed.)
118. *Art and Architecture in Mexico*
James Oles

MEXIKAR GASTRONOMIA

119. *La cocina prehispánica y colonial*
Marco Buenrostro y Cristina Barros
120. *Cocina mexicana:*
Historia gastronómica de la ciudad de México
Salvador Novo
121. *Hongos mexicanos comestibles / Micología económica*
José Juan Tablada
122. *México /Gastronomía*
Margarita Carrillo Arronte
123. *Cocina esencial de México*
Diana Kennedy

[...]

... Begiratu altxatutako harriak lurrean utzi duen zauriari!
Forma barnehutsa tragikoa baino tragikoagoa da
-nahiz eta miraria den forma eta antzeko hitzak
erabili ahal izatea. Baina analogiak ihes egin dit.
Hilobiraino herrestan nindoala, panfleto batzuk aurkitu,
eta neureak zirela esan nuen. Izan ere, osterantzean zentzurik
izango ez zuen erromesaldi bat azaltzen zuten;
zentzurik gabea, gaurko egunaren antzera,
baina bi bider zailagoa
justifikatzeko...

[...]

LUIGI AMARA
Ciudad de México, 1971

Idazlea eta argitaratzailea, bere burua batez ere paseatzaile eta xakera afizionatu bezala definitzen duen arren. Idazketa-paseoari eskaintzen dion denbora poesiaren eta saiakeraren arteko mugak gainditzen pasatzen du, horiek baitira gehien gustatzen zaizkion generoak. Besteak beste ondorengo liburuak argitaratu ditu: *El peatón inmóvil*, *Sombras sueltas* (Literatur Kritikako Rousset Banda Saria 2008), *A pie*, *Los disidentes del universo*, *Cuaderno flotante* eta *La escuela del aburrimiento*. Umeentzat liburuak ere idatzi: *Las aventuras de Max y su ojo submarino* (Umeentzako Poesiako Hispanoamerikar Saria 2006) eta *Los calcetines solitarios*. Berriki *Nunca* poema eta saiakerako *Los disidentes* liburuak argitaratu ditu, biak Sexto piso argitaletxean. Bere literatur gustuek eta jakingurak argitalpenaren bideetara ere eraman du. Beste idazle eta artista batzuekin duela hamar urte pasatxo Tumbona Ediciones etxe independientea jarri zuen martxan, eta Mexikon argitalpenek gorabehera eta eragozpen ugari jasaten dituzten arren, eustea lortu du.

GEORGES BATAILLE
Billom, 1897-París, 1962

Pentsalaria, antropologoa eta idazle frantziarra. Liburuzain lanak egin zituen Parisko Liburutegi Nazionalean. Roger Caillois eta Michel Leirisekin batera Soziologiako Ikastetxea sortu zuen. 1946an *Critique* aldizkaria sortu zuen, hil zen arte zuzendu zuena. Batailleren gaitasunik handienetako bat diziplinartekotasuna izan zen, eta besteek filosofotzat hartzea sekula onartu ez zuen arren, bere lanak estrukturalismo ondoko pentsamendu frantziarrari eta bereziki Michel Foucault eta Jacques Derrida bezalako pentsalariei eragin zien. Bataillek giza sakrifizioekiko lilura eduki zuen eta Acéphale elkarte sekretua sortu zuen, zeinaren ikurrean lepoa moztutako gizon bat eta eguzkia baitzeuden; bere inaugurazio ekitaldian kideetako bat sakrifikatuko zen beraien artean lotura suntsiezina sortzeko. Deitutakoetako batzuk atseginez onartu zuten biktima izatea, baina inork ez zuen sakrifikatzaile eta borrero izatea nahi onartu, eta horregatik elkarte sekretua sekula ez zen gauzatu edo deuseztatu egin zen. Gaztelerara itzulitako bere liburuen artean aipatu ditzakegu: *Historia del ojo*, *Las lágrimas de Eros*, *El pequeño*, *Mi madre*, *Madame Edwarda*, *El erotismo, la literatura y el mal* eta *La parte maldita*.

MARIO BELLATIN
Ciudad de México, 1960

Idazle peruar-mexikarra, egungo literatur sortzaile ausarta eta esperimentalenetako bat bezala ikusia. Bere lanak hizkuntza askotara itzuli dira. Bere liburuetan errealitatearen eta fikzioaren arteko jolas ludiko bat planteatzen da, protokolo apokrifo, kronika, biografia edo dokumentu zientifikoekin, eta egoera sinesgaitz, nahasgarri eta batzuetan baita barregarriak ere eragiten dituzte. Bere eleberrietan ez dago erreferentzia biografikorik, uste baitu testuak berez eutsi behar diola berari eta literatura hobeto garatzen dela egilearen ahalik eta parte-hartze txikienarekin. Bere liburuetako batzuk dira: *Mujeres de sal*, *Salón de Belleza*, *Flores*, *El gran vidrio*, *Disecado*, *El libro uruguayo de los muertos*, beste askoren artean. Ez ditugu argitalpen urteak adierazten, Bellatinentzat elementuetako bat berridazketa eta berrargitalpena delako, batzuetan izenburu berdinarekin, beste batzuetan desberdinarekin, argitaletxe desberdinetan eta bere zigiluaren pean, edo hobe esan, bere aztarnaren pean, bere proiektu handinahikoa osatzen duena: «Mario Bellatinen ehun mila liburuak». Alan Paulsek hau esan zuen Bellatini buruz: 'behin baino gehiagotan idazle honek esan du gakoa dela «mundu propioak sortzea, unibertso itxiak eusten dien fikzioari bakarrik kontuak eman beharko dizkietenak'. Bere liburu guztiek lege hori hitzez hitz betetzen dute. Hasteko, beti, koordenatuak finkatzen dituzte, lurraldeak mugatzen, tratatuko duten materiala zehazki mapan jartzen dute. Isiltasuna hausteko modu bakarra zera esatea bailitzan: 'gauzak horrela dira, hau halako tokitan gertatzen da, izen hau dauka, arau hauek jarraitzen ditu eta baldintza hauek eta besteak bete behar ditu'. Hori izango litzateke apur bat Bellatinen fikzioen inaugurazio keinua: «jokoaren kitzikatze despotikoa, kontraktualismoaren monotonia administratzailea eta protokolo esperimentalen atsegin apur bat kaltegarria nahasten diren tokian hasteko modu bat».

FERNANDO BENÍTEZ
Ciudad de México, 1912-2000

Idazlea, argitaratzailea, kazetaria, antropologoa, etnologoa eta historialaria. Kultura handiko gizona, Mexikoko geografiaren bidaiari nekaezina, eta ibili horietatik egindako ezin konta ahala elkarrizketaren bidez lehen eskuko informazioa eskuratu zuen, bere liburuak ehotzeko balio izan ziona. Garrantzitsuena, dudarik gabe, *Los indios de México* da, Mexikoko kultura indiar desberdinen eguneroko bizitza eta kosmologiari buruzko bilduma bat, lau liburukitan egina. Lan horretatik aparteko inprimaldian atera dira munduarekin izandako topaketei dagozkien kontakizunak, eta bereziki *péyotl* bila huitxolekin egindako bidaiak eta Maria Sabinarekin eta Huautla de Jiménezen onddo magikoekin izandako topaketa. Sustantziekin izandako esperientzia horietatik, zeinetara entregatu diren beste idazle asko ere, Thomas de Quinceytik hasi eta Walter Benjamineraino, pasarte batzuk aukeratu ditugu. Etnografia eta antropologiari buruzko bere idazkerak poesiara hurbiltzen duen indar eta pasio izugarria dauka. Aipatu ditzakegun liburuetako batzuk genero eta jakituria alor desberdinak biltzen dituzte, saiakera historikoa: *La ruta de Hernán Cortés*, *1992 qué celebramos, qué lamentamos?*; kronika: *Viaje a la Tarahumara*; antropologia: *Los hongos alucinantes*, *Los indios de México*, eta eleberria: *El rey viejo* eta *El agua envenenada* eta biografia, ondorengo liburuetan: *Juárez*, *Morelos* eta *Cristóbal Colón*.

BENJAMIN BUCHLOH
Colonia, 1941

Artearen historialaria, europar kontzeptualaren testuinguruan aktiboki parte hartu ondoren –eragin handiko *Interfunktionen* aldizkariaren azken zenbakiak zuzendu zituen hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean–, 1977an Estatu Batuetara joan zen eta bertan *October* aldizkariaren argitaratzailetako bat izan da, zeina gabe ezinezkoa izango litzatekeen jada igarotako gure XX. mendeko bigarren erdiko artearen irakurketa bat egitea. Gaur egun Harvardeko Unibertsitateko irakaslea da eta artista eta kritiko belaunaldi batzuk hezi ondoren, Columbiako Unibertsitatean egiten du lan. 2004an egilekidetzan *Arte desde 1900* liburua argitaratu zuen Hal Foster, Rosalind Krauss eta Yves-Alain Boisekin batera; baita *Formalismo e historicidad. Modelos y métodos en el arte del siglo XX* liburua ere. *Neo-Avantgarde and Culture Industry* liburuan, gerraondoko zenbait artistari buruzko saiakerak garatu ditu; errealismo frantziar berritik (Arman, Yves Klein, Jacques Villeglé) arte alemaniarra (Joseph Beuys, Sigmar Polke, Gerhard Richter), Fluxus eta Pop art (Robert Watts eta Andy Warhol), minimalismoa eta minimalismo ondokoa (Michael Asher eta Richard Serra), eta arte kontzeptuala Amerikan eta Europan (Daniel Buren eta Dan Graham). 2015eko otsailean argitaratu zen saiakera bildumaren bigarren liburukia *Formalism and Historicity: Models and Methods in Twentieth-Century Art*. Liburu horretan XX. mendeko artearen historiako gai eta kontuei buruzko saiakera batzuk jasotzen dira, hala nola «ordena sobietarrera itzulera», «faktografia» eta neo-abanguardien «paradigma errepikapena».

LUIS CARDOZA Y ARAGÓN
Antigua, 1901
Ciudad de México, 1992

Poeta, saiakeragilea, narratzailea eta arte kritikari guatemalarra. Latinoamerikako XX. mendeko intelektualik garrantzitsuenetako bat. Ohiz kanpoko izakia, bai idazle eta baita demokraziarekin eta bere herrialdeko justiziarekin konprometitutako hiritar bezala bizitzan zehar egin zuen guztian. Gogoeta sakonaz gain idazteko dohaina zeukan eta hau baieztatu zuen: «poesia da gizakiaren existentziaren froga bakarra». Idazle hau Mexikon bizi da erbesteratu politiko bezala, eta beraien ideiengatik pertsegitutako guatemalar eta lagun askorentzat abegi onaren etsenplua izateaz gain, Antonin Artaudi ongietorria eman zion bere Mexikoko etxean, eta Mexikon XX. mendearen hasieran eta erdialdean egin zen artea aztertzera dedikatu zen pasio eta eraspen osoarekin. Rufino Tamayo eta Carlos Méridaren lanei obra monografiko garrantzitsuak eskaini zizkien. Arteari buruzko bere testuetako asko ez dira sekula gainditu. Argitaratutako bere lan ederren artean aipatzekoak dira: *Luna Park* (1923), *Apolo y Coatlicue, ensayos mexicanos de espina y flor* (1944), *Guatemala, las líneas de su mano* (1955), *El río: novelas de caballería* (1986) eta *Miguel Ángel Asturias, casi novela* (1991).

ANTONIO CASO

Ciudad de México, 1883-1946

Filosofoa eta idazlea. Bere lana norabide desberdinetan garatzen da: dibulgazioa, irakaskuntza, unibertsitate politika eta argitalpenak. 1909an Gazteriaren Ateneoko kide fundatzailea eta lehen presidentea izan zen José Vasconcelos, Alfonso Reyes eta Pedro Henríquez Ureñarekin batera. Mexikon berrikuntza kulturalerako gurutzada bat hasi zuen, heziketa positibistaren ukazioa eta ikasgeletan berriro filosofia irakasteko eskaria eskatzen zituena. 1913an filosofiako katedrak inauguratu zituen Goi Ikasketen Eskola sortu berrian —bertako zuzendari izan zen behin baino gehiagotan— eta Unibertsitate Popularrak programatutako hitzaldiak ematen hasi zen —Ateneoak urte berean sortutakoa— herriari kulturaren hasi-masiak eramateko helburuarekin. Hitzaldiak herri elkarteen lantegi eta zentroetan eman eta museoetara bisita eta txangoekin osatzen ziren. 1943an Ikastetxe Nazionalaren kide fundatzailea izan zen. Idazketa eta irakaskuntza lanak konbinatu zituen. Hogeita hamabost urtetan zehar ondorengo gaiak irakatsi zituen Filosofia eta Letren Fakultatean: Etika, Estetika, Epistemologia, Filosofiaren historia eta Historiaren filosofia; Soziologia irakatsi zuen Zuzenbide Fakultatean eta Logika eta metodologia beste erakunde batzuetan. Katedra askatasunaren eta pluraltasun ideologikoaren defendatzailea, unibertsitate autonomiaren alde eta edozein filosofia ofizialaren kontra jardun zen. Irakasle bikaina izan zen eta ahalegin guztiengatik Mexikon filosofiaren «aita» bezala har daiteke. *Problemas filosóficos* (1915), *La existencia como economía, como desinterés y como caridad* (1916), *El problema de México y la ideología nacional* (1924) eta *El peligro del hombre* (1942) dira liburuetako batzuk.

LUIS CERNUDA

Sevilla, 1902 Ciudad de México, 1963

Poeta eta literatur kritikaria. 27ko belaunaldikoa izan zen. Gerra Zibilaren erbesteratzea bizi izan zuen poeta handietako bat. Letrekin erlazionatutako lanbide desberdinak eginez Madrilen urte batzuk bizitzen pasatu ondoren 1936an adiskide Federico García Lorcaren heriotzaren berri izan zuen eta eresi sakon bat idatzi zuen. Handik bi urtera Espainia utzi egin zuen. 1938tik 1947ra Ingalaterran bizi izan zen non gerragatik erbesteratutako ume euskaldunen irakasle eta tutore izan zen. 1947an bere erbestealdiak Estatu Batuetan jarraitu zuen, han ere eskolak emanez. Azkenik, 1953an Mexikora joatea erabaki zuen, eta bertan bizi izan zen hil arte. Cernudaren poesia meditazioarena da, eta Octavio Pazen esanetan lau aldi dauzka: ikasketa urteak, gaztaroa, helduaroa eta zahartzaroaren hasiera. Lehen aldikoak dira 1927an *Perfil del aire* izenburuarekin argitaratutako lehenengo poemak —munduaren begieste elegiakoan poeta dotore bat erakusten dutenak— eta *Égloga, elegía, oda*, 1927 eta 1928 bitartean idatzia, tradizio klasikoa omendu eta maitasuna eta erosa bezalako gaiak ukitzen dituena. Gaztaroa *Un río, un amor* eta *Los placeres prohibidos* liburuekin hasten da, 1929 eta 1931 bitartean idatzitakoak. Bi liburuek Cernudak surrealismoari zion atxikimendua erakusten dute. *Invocaciones*, 1934–1935 bitartekoa, munduaren loriak eta poetaren zeregina goratzen dituzten poemekin aurkezten digu neoerromantikoa. 1936an argitaratu zuen bere poema guztiak biltzen zituen lehen liburukia: *La realidad y el deseo.* Helduaroa *Las nubes* (1940 y 1943) liburuarekin hasten da, Gerra Zibilari buruzko poema libururik ederrenetako bat. Lirika ingelesaren akuilupean, bakarrizketa dramatikoak dauzka. Mexikon garatzen da azken aldia. Han idatzi zituen *Variaciones sobre tema mexicano* (1952), *Vivir sin estar viviendo* (1944–1949) eta *Con las horas contadas* (1950–1956). Poema liburu horietan nabarmena da aurrekoen musikaltasun dotorearen, garzilasianoaren ordezkatzea, erritmo lehor, gogor batekin, eta kontzeptuaren mesedetan apaindura orori uko egiten dio. Estilo horrek *Desolación de la Quimera* (1962) liburuan jo zuen gailurra.

JACQUES DERRIDA

El-Bihar, 1930
París, 2004

Judu jatorriko filosofo frantziarra, zeinaren lanak dekonstrukzioaren eskola sortzea ekarri baitzuen, eta bere metodologia analitikoa literatura, linguistika, filosofia, zuzenbidea eta arkitekturari aplikatu zaio. 1952an filosofia ikasten hasi zen Parisen École Normale Supérieure delakoan, eta bertan eskolak eman zituen 1965etik 1984ra bitartean. 1960-1964 bitartean Parisko Sorbonan irakatsi zuen. 1967an hiru liburu argitaratu zituen: *La voz y el fenómeno* (1973), *De la gramatología* (1977), eta *La escritura y la diferencia* (1978), ikuspegi dekonstruktiboa testu liburuetan sartu zutenak. Derridak ez du nahi irizpide kulturalisten arabera sailkatua izan eta azken lanetan bere pentsamendua birdefinitzen jarraitzen du. 1970eko hamarkada hasieratik, Derridak Paris eta Estatu Batuen artean banatu zuen denbora, azkenekoan eskolak eman zituelarik John Hopkins, Yale eta Irvinen, Californiako Unibertsitatean. Bere beste lan batzuk dira: *Glas* (1974) y *La carta postal* (1980). Derridaren lana hizkuntzan zentratzen da. Esaten du irakurketa modu tradizional eta metafisikoak testuen izaerari buruzko uste faltsuak ezartzen dituela. Irakurle tradizional batek uste du ideiak adierazi ditzakeela horiek aldatu gabe, hizkuntzaren hierarkian idazketa bigarren mailakoa dela diskurtsoarekiko eta testu baten egilea bere esanahiaren jatorria dela. Derridaren irakurketa dekonstruktibo-estiloak uste horiek irauli egiten ditu eta testu batek esangura bakar eta aldaezina daukan ideia zalantzan jartzen du. Dekonstrukzioak hizkuntzan eragiten duten geruza semantiko ugariak erakusten ditu. Aurreko jakintsuen lana dekonstruitzerakoan, Derrida saiatzen da erakusten hizkuntza etengabe ari dela aldatzen. Bere pentsamendua, batzuetan, eta kritikoen esanetan filosofiaren likidazioa den arren, dekonstrukzioa hobeto uler daiteke filosofia bideratzen duten argitasun eta koherentzia idealen eta bere ekoizpenak nahitaez dauzkan akatsen arteko zantzu bezala.

SALVADOR ELIZONDO

Ciudad de México, 1932-2006

Idazle mexikar berezi eta harrigarrienetako bat. Bere lehen eleberria Farabeuf o la crónica del instante *(1965), berrikuntza bat izan zen literaturan, muntaia zinematografikoarekin ahozko ezohiko hizkuntza sortu eta txinerako eta frantseseko ezagutza nahastean.* Farabeu *eleberriari oso harrera ona egin zion orduko kritikak eta irakurlegoak, horrekin irabazi zuen 1965ean Xavier Villaurrutia saria eta hainbat hizkuntzatara itzulia izan zen. Aipatzekoa da lan horrek Georges Batailleren pentsamendu eta lanen eragin handia jaso zuela, bereziki arte lan eta krudelkeriaren arteko harremanari dagokionez, bestalde idazle garaikide askorengan eragin duen gaia izanik, Mario Bellatin bera barne.* Farabeuf *lanaren ondoren etorri ziren:* Narda o el verano *(1966),* El hipogeo secreto *(1968),* Cuaderno de escritura *(1969),* El retrato de Zoe y otras mentiras *(1969),* El grafógrafo *(1972),* Miscast *(1981),* Camera lúcida *(1983),* Elsinore, un cuaderno *(1988),* Estanquillo *(1992),* Teoría del infierno *(1993),* Neocosmos *(1999) eta* Pasado anterior *(2007). Prosa bakan batekin idatzitako liburuak uzteaz gain, urteak pasatu zituen sekretupean egunoroko luzeak idazten, eta Fondo de Cultura Económica argitaletxeak hautaketa bat argitaratu zuen:* Diarios 1945-1985*, eta diotenez bere bi afizio nagusietara ere dedikatu zen, solasaldietara eta arkuarekin tiro egiteko artean trebetasuna lantzera.*

SERGIO GONZÁLEZ RODRÍGUEZ
Ciudad de México, 1950

Kazetaria, idazlea, kritikaria eta rock musikaria. Sergio González ezaguna da Ciudad Juárezeko feminizidio kasu beldurgarrien eta narkotrafikoa eta erakunde politiko, ekonomiko eta enpresarialak inplikatuta dauden biolentzia gero eta handiagoaren gaineko ikerketa lanengatik. Horren adibide dira bere kronika liburuak: *Huesos en el desierto (2002)* eta *El hombre sin cabeza (2009).* Herrialdeko iparraldean feminizidioei buruzko ikerketak egin zituen bitartean, zeinetan ia bizia galdu zuen, Roberto Bolaño idazle txiletarrak 2666 eleberria idatzi eta harreman estua izan zuen González Rodríguezekin, zeinak Bolañori informazio asko eman zion bere eleberrirako. 2014. urtean saiakerako Herralde saria irabazi zuen *Campo de guerra* liburuarekin. Alabaina, idazle honek denbora zati handia bat gai ez hain malkartsuei eskaini die. Bere saiakera liburuen artean aipatu ditzakegu: *Los bajos fondos, el antro, la bohemia y el café* (1988), *El centauro en el paisaje* (1992), *De sangre y de sol* (2006); *las novelas: La noche oculta* (1990), *El triángulo imperfecto* (2003), *El plan Schreber* (2004), *La pandilla cósmica* (2005), *El vuelo* (2008), *El artista adolescente que confundía el mundo con un cómic* (2014). Kazetaritzako ikerketa lanetan egindako ekarpen handiaz gain, idazle, argitaratzaile eta irakaslea ere izan da, eta horiei esker Periodismo Cultural Fernando Benítez Sari Nazionala irabazi zuen. Mexiko hiriburuko eta bertako kantinei buruzko gau bizitza hobekien argitu eta azaldu duen idazleetako bat izan da.

ALFREDO LÓPEZ AUSTIN
Ciudad Juárez, Chihuahua, 1936

Es uno de los historiadores y especialistas más respetados sobre el México precolombino, experto en los pueblos indígenas de ese país. Actualmente es investigador emérito del Instituto de Investigaciones Antropológicas de la Universidad Nacional Autónoma de México y profesor de Cosmovisión Mesoamericana en la Facultad de Filosofía y Letras de la misma universidad. Su tema central de investigación es la historia y el pensamiento mesoamericanos, especialmente la cosmovisión, la religión, el cuerpo, el mito, la magia y la iconografía. Entre sus publicaciones podemos encontrar: *Mito y realidad de Zuyuá. Serpiente Emplumada y las transformaciones mesoamericanas del clásico al posclásico* (1999); *Dioses del norte, dioses del sur. Religiones y cosmovisión en Mesoamérica y los Andes* (2008), *Monte sagrado – Templo Mayor* (2009) y *Las razones del mito* (2015).

MALCOLM LOWRY
Cheshire, 1909-Ripe, 1957

"Malcolm Lowry, unibertsoa arkano bat, "harreman magiko" edo "bat etortze misteriotsu eta halabeharrekoz" beteriko kriptograma bezala ikustea gustatzen zitzaionaren bizitza bi emakumek, hiru gizonek eta herrialde batek markatu zuten. Emakumeak Jan Gabriel eta Margarie Binner emazteak izan ziren; gizonak Conrad Aiken idazle iparramerikarra, bere tutore, zaindari, maisu, irakasle, aitatzako, gaizkide, bikoitz eta aurkaria; Nordhal Grieg, nobelagile noruegiarra, zeinarekin identifikatu baitzen itsas esperientziengatik; eta Albert Erskine, *Sumendiaren azpian*-en argitaratzaile estatubatuarra eta adiskide leiala, Lowryren talentuan beste inork ez bezala sinetsi zuena. Herrialdea, Mexiko izan zen, noski, eta zehazkiago Cuernavaca edo Quauhnáhuac, deitzea nahiago zuen bezala, bere eleberriaren gertalekua". 1936an Malcolm Estatu Batuetatik atera zen bere bizitza berritzeko eta Jan, lehen emaztearekin batera, Mexikora abiatu zen D. H. Lawrence bere heroietako baten pausoak berdinduz. Ondorengoa *Sumendiaren azpian* liburuaren idazketa-historia konplexua da, munduko literaturaren lan gorena. Eleberria ipuin bat bezala hasten da: *Festa Chapultepecen*; lehenengo zirriborroa esaldi honekin hasten da: "Hildakoen eguna zen" (*It was the day of the dead*). Ondorengo bertsioetarako urteak pasa behar izan zituen lanean Lowryk, eta denbora horretan ondokoa gertatu zen: ezin konta ahalako berridazketak, Janek betiko uztea, "arimaren gau ilunean" erorketa basatia Oaxacan, Mexikotik bidalia izatea, Hollywooden Margerie Bonnerekin izandako topaketa, bere *intermezzoa* Vancouveren Eridanuseko txabolako paradisuan, aldi baterako alkoholismotik errekuperatzea, dibortzioa eta Margarierekin ezkontza, Dollartoneko bere txabolaren sutea eta Margariek *Sumendiaren azpian* liburuaren alehungarren zirriborroa heroikoki berreskuratu izana, eleberriaren amaiera 1944an, hilketaren agertokira, Mexikora itzulera, Jonathan Cape argitaratzailearen arbuioa, Lowryk bere eleberriaz egiten duen defentsa sutsua eta, amaitzeko, *Sumendiaren azpian* liburuaren argitalpena 1947an ia aldi berean Ingalaterran eta Estatu Batuetan. Lowryren bizitza, liburuaren antzekoa izan zen: indartsua, basatia eta mingarria. Bien bitartean 47 urterekin izan zuen heriotza misterio handia da eta izaten jarraituko du.

GABRIEL OROZCO
Jalapa, Veracruz 1962

Marrazki, argazki, eskultura eta instalazioan nabarmentzen hasi zen Orozco 1990eko hamarkadaren hasieran. Garai horretan, bere praktika estudiotik kanpora eraman zuen artistak, hiri desberdinetan egiten zituen paseoetan barrena bere obrak sortzeko. 1998an Francesco Bonamik honela definitu zuen Orozco: «hamarkada honetako eraginik handieneko artistetako bat». Bere piezarik enblematikoenetakoak dira: *Naturaleza recuperada* (1991), artistaren lehen eskulturetako bat, kautxu bulkanizatuan egina, kamioien pneumatikoetako aire-kamerak fabrikatzeko egina. *Mis manos son mi corazón* (1991), bihotz formako eskultura txiki bat da, eta buztin zati baten gainean hatzekin zapaltzean, hatzak bihotz formak inprimatzen ditu. *Piedra que cede* (1992) bola bat da plastilina grisez egina eta Monterreyko kaleetatik biraka eraman zena azaleran lurra, hondakinak eta harriak bilduz. *La DS* (1993) obrak espazio eskultorikoaren alderdi mental eta fisikoekiko interesa adierazten du eta ikuslearekin harreman jostariak finkatzen ditu. Obra hau sortzeko, autoari ebaketa horizontal bat egin zion, eta berriro muntatu zituen bi erdiak autoak nolakotasun formalak eduki eta «funtzionaltasun» irudipena eman zezan, alegia, autoa gidatua izan zitekeela. *Caja de zapatos vacía* (1993) obran, Veneziako urte horretako Bienalerako egina, Orozcok lurrean zapata kaxa bat bakarrik jarri zuen. Benjamin Buchlohek hau esan zuen obra horri buruz: «objektu erabat hutsal baten isilik eta modu sinesgarrian erakartzeko arrazoiak asko dira noski; alabaina aurkitu ahalko litzateke lehen azalpen bat esanez objektuaren ordez edukiontzi huts bat aurkezteak erabilera baliotik beretik kultura osotasunean gertatu den erakusketa baliorako aldaketa marrazten duela».

OCTAVIO PAZ

Ciudad de México 1914-1998

Poeta, saiakeragilea, argitaratzailea eta diplomatiko mexikarra, 1990ean Literaturako Nobel Saria irabazi zuena, beste aitorpen askoren artean. Mexikar unibertsal bezala, Paz XX. mendeko eragin handieneko idazleetako bat da. Bere literatur hastapenei buruz hau esan zuen elkarrizketa batean: "Bokazioaren misterioak —misterio bat baita—haurtzaroarekin dauka zerikusia. Bokazioa gaztaroan azaltzen da, baina badago imitazio garai bat, nolabait familia ereduena. Nire kasuan erabakigarria izan zen nire aitona Irineo Pazen presentzia, idazlea baitzen. Nik egunero ikusten nuen irakurtzen eta idazten. Banekien memoriak eta eleberriak idatzi zituela, eta beraz apur bat eredua izan zen. Nire etxean, umetan, literatur munduaren eragin handia zegoen. Aitonak liburutegi on bat zeukan. Baina bazeuzkan baita ere atril batzuk garaiko idazleen argazkiekin. Haietan argazkiak edo Victor Hugoren eta beste idazle frantziar batzuen irarlanak ikus zitezkeen. Baina ez bakarrik frantziarrak, baita hispanoamerikarrak, mexikarrak... Pérez Galdós zegoen, bere ereduetako bat". Pazen interesak ez ziren mugatu poesiara, baizik politika, artea, ekialdeko eta mendebaldeko pentsamendua eta iragana arbuiatzen ez duen Mexiko moderno eta demokratiko baten eraikuntza ere bere interesekoak izan ziren. Bere lan poetiko eta intelektualak, nahiz idazle eta aldizkari eta liburu argitaratzaile bezala egin zuenak abentura askotara eraman zuten, eta horietako bat izan zen antzinako kultura mexikarra eta horien adierazpen artistikoarena. Behin batean hau esan zuen: "arte lan oro bi indar handiren parean egina dago: bizitzaren ideia edo heriotzaren ideia. Eros edo Thanatos". Pazen idazlanak, interesak bezala, oso ugariak dira: *Libertad bajo palabra, Águila o sol*, *Piedra de sol*, *Blanco*, *Árbol adentro*; y de ensayo: *El laberinto de la soledad*, *El arco y la lira*, *El mono gramático* eta *La llama doble*, beste askoren artean. Lan guztien argitalpena egileak berak prestatu eta Círculo de Lectores eta Fondo de Cultura Económicak argitaratu zuten hainbat liburukitan.

JOSÉ REVUELTAS

Santiago Papasquiaro, Durango, 1914
Ciudad de México, 1976

Idazle eta ekintzaile mexikarra. Artisten familia batean jaio zen: anaia Silvestre musikari handia izan zen eta Fermín, pintorea, Rosaura arreba, aldiz, antzezpenetara dedikatu zen. Mexikoko Alderdi Komunistako militantea izan zen, zeinetatik bota egin baitzuten praktika burokratikoak kritikatzeagatik, baina oso kritikoa izan zen baita desbideratze estalinista eta maoistekin ere. Beti leiala izan zen langileen kausen defentsarekin eta Trotskyren ideietatik gertuago egon zen. Esan daiteke ezkerrak eduki duen iraultzaile kritikoena Revueltas izan zela. Espetxean askotan egon zen ekintzailetza politikoagatik, ia mutiko bat zen lehenengo aldiz segurtasun nagusiko espetxera bidali zutenean, orduko hartan Islas Maríasen. 1958ko Movimiento Ferrocarrilero deituan parte hartu zuen, non baita ere preso egin zuten. Mexikoko 68ko ikasleen mugimenduaren "egile intelektualtzat" akusatu zuten. Mugimendu hura Tlatelolcoko Hilketarekin amaitu zen, eta horregatik behin gehiagotan preso egin eta Jauregi Beltza bezala ezagutzen zen Lekunberriko espetxera bidali zuten. Hor idatzi zuen eleberri finenetako bat: *El apando.* Eleberri horretaz gain, bere lan gorenen artean aipatu ditzakegu: *Los muros del agua* (1941) eta *El luto human;* azken honekin Literaturako Sari Nazionala irabazi zuen 1943an. Eleberriez gain, gogoeta politiko sakoneko liburuak ere idatzi zituen, hala nola: *Escritos políticos I*, *II* y *III*, *México: una democracia bárbara*, *Ensayo sobre un proletariado sin cabeza*, eta *México 68: juventud y revolución*. Bere hautsi ezinezko konpromiso politikoak eta idazlanek Mexikoko idazle errealista nagusienetako baten postuan jarri zuten

ALFONSO REYES

Nuevo Léon, 1889
Ciudad de México, 1959

Idazle eta pentsalari mexikarra. Bernardo Reyes jeneral porfiristaren semea izan zen. Pedro Henríquez Ureña, Antonio Caso eta José Vasconcelosekin batera Gazteriaren Ateneoa sortu zuen, non antolatu ziren klasiko greziarrak irakurtzeko. 1910ean argitaratu zuen lehen liburua, *Cuestiones Estéticas*. Aita hil eta Iraultzak irabazi ondoren Espainian erbesteratu zen (1914-1924). Menéndez Pidalen eskolan sartu zen eta geroago Benedetto Croceren estetikan, Espainiako urrezko mendeko poesiari buruz saiakera ugari idatzi zituen, eta horien artean azpimarratzekoak dira "Barroco" eta "Góngora"; gainera, sor Juana Inés de la Cruz aztertu zuen lehenengo idazleetakoa izan zen. Garai horretakoak dira *Cartones de Madrid* (1917), lan motz baina bikaina, *Visión de Anáhuac* (1917). Espainian literatura eta kazetaritzara dedikatu zen; Madrilgo Ikasketa Historikoen Zentroan egin zuen lan Ramón Menéndez Pidalen zuzendaritzapean. 1920ko ekainean Mexikoko Legazioko bigarren idazkari izendatua izan zen. Ordutik 1939ko otsailera arte, Mexikora betiko itzuli zen arte, kargu desberdinak izan zituen zerbitzu diplomatikoan. 1939an Mexikon Espainiako Etxeko presidente izan zen, geroago Mexikoko Ikastetxe izan zenekoa. Mexikoko Akademiako (Espainiaren parekoa) kide osoa izan zen eta Ikastetxe Nazionalaren katedradun sortzailea. Bere ahalegin izugarriagatik, idazle hau kultura espainiar eta hegoamerikarreko kulturaren pertsona bihurtu da, Octavio Pazek esan zuen bezala: "Reyesek hizkuntzari eta honen arazo eta misterioei zien maitasuna, adibide bat baino gehiago da: mirari bat. Idazten irakastean, pentsatzen irakatsi zigun".

GONZALO ROJAS

Lebu, 1916
Santiago de Chile, 2011

XX. mendeko poeta hegoamerikar handienetakotzat joa. Literaturako Sari Nazionala irabazi zuen 1942an eta Miguel de Cervantes Saria 2003an, beste batzuen artean. Mehatze ingeniari baten semea, lau urte zituela galdu zuen aita, eta esperientzia horri buruz hau esan zuen: "adierazpen guztietatik baino gehiago ikasi nuen". Zuzenbide eta Literatura ikasketak egin zituen Txileko Unibertsitatean, Institutu Pedagogikoan, geroago Valparaiso eta Concepciónen alor akademikoan egin zuen lan, eta bigarren horretan literatur estetikari buruzko eskolak eman zituen eta Gaztelera Saileko Zuzendari izan zen. Nicanor Parrarekin batera, azken garaietako pisurik handieneko poeta txiletarra da. 1938ko Literatur Belaunaldiko kidea eta hasieretan, Mandrágora taldetik hurbil egona. Testu askotan erakusten du estetika surrealistarekiko hurbiltasuna, bere lanak XX. mendeko abangoardia txiletar eta hegoamerikarren jarraitasun bidea marrazten du. Bere lehen liburuan, *La miseria del hombre* (1948), pisu existentzial handia nabari da, erotismoa, konpromiso soziala eta hitzaren soinu ahalmenarekin batera, bere obra poetikoan beti presente dauden elementuak. 1973ko estatu kolpearen ondoren erbeste luze batera ihes egin behar izan zuen, lehenik Alemaniara, eta ondoren Venezuelara, non Simón Bolívar Unibertsitateko irakaslea izan baitzen. Garai mingarri horretakoak dira "Cifrado en octubre" bezalako poemak, Miguel Enríquez Ezker Iraultzailea Mugimenduko buruaren heriotzari dedikatuak, eta garai haiei buruzko ikuspegia ematen du bertsoetan: "Egunik txarrenak, mingotsenak dira, haiek/ zeinetara ez dugun itzuli nahiko". Geroago Estatu Batuetara joan eta bertan bizi izan zen, 1994. urtean Txilera itzuli zen arte. Txileko Biblioteka, Artxibo eta Museoen Zuzendaritzak trilogia bat egin zuen Gonzalo Rojasen lanik onenekin, zeinaren barruan kokatzen diren ondorengoak: *Qué se ama cuando se ama* (2000), *Réquiem de la mariposa* (2001), y *Al Silencio* (2002). Lan poetiko ederraz gain, Rojas bakuntasun, ahots indartsu eta poesia esateko eduki zuen modu bakanagatik izango da gogoratua.

TESTUEN ITURRIAK

[BAT] MEXIKO LEPOAN

RECAPITULANDO «LABURBILDUZ», Luis Cernudarena: *Poesía del exilio* (arg.: Antonio Carreira), Madril, Fondo de Cultura Económica de España, 2003.

HAMBRE DE MÉXICO «MEXIKOREN GOSE», Gonzalo Rojasena. Mexikoko Arte Ederren Jauregiko Manuel M. Ponce Aretoan irakurri zuten lehen aldiz, 2006ko martxoaren 27an. Hemen argitaratua: *Hambre de México*, Colección Cenzontle, Fondo de Cultura Económica de México, 2012.

EL DESTINO FINAL DE WALTER BENJAMIN «WALTER BENJAMINEN AZKEN PATUA», María Virginia Jauarena: *Idea de la ceniza*, Edit. Periférica, 2015

ANÁHUAC de Luis Cardoza y Aragón en *El río. Novelas de caballería,* México, Fondo de Cultura Económica de México, 1986.

[BI] SUMENDIPEAN

UN SUDARIO NEGRO SOBRE EL PAISAJE Y EL VALLE DE MÉXICO «IZERDI-ZAPI BELTZ BAT PAISAIA GAINEAN» eta «El valle de México» («Mexikoko Harana»), José Revueltasenak: Carlos Monsiváis, *A ustedes les consta. Antología de la crónica en México*, Ediciones Era, 1980.

VISIÓN DE ANÁHUAC «ANÁHUACEN IKUSPEGIA», Alfonso Reyesena: *Visión de Anáhuac y otros ensayos,* Fondo de Cultura Económica de México, 2004.

ARQUEOLOGÍA DE LA BASURA «ZABORRAREN ARKEOLOGIA», Luigi Amararena: *Picnic,* Consumidores zk., Mexiko, 2004.

Y)UN PÁJARO(CANTÓ «TXORIA», Octavio Pazena. 1944an argitaratu zuten lehenengoz, eta gero beste argitalpen honetan: *Libertad bajo palabra. Obra poética (1935-1957).* 3. argitaraldia, Mexiko, Fondo de Cultura Económica, 1995, 51.-52. or. (Letras Mexicanas bilduma)

[HIRU] ESKAINTZA

EL CONSUMO EN LA CONCEPCIÓN DEL MUNDO DE LOS AZTECAS «KONTSUMOA ETA AZTEKEN MUNDUA ULERTZEA», Georges Bataillerena: *La part maudite,* Collection «Critique», Les Éditions de Minuit, 1967.

LA OFRENDA OBLICUA «ESKAINTZA ZEIHARRA», Jacques Derridarena: *Passion*, Galilée, 1993.

DE SANGRE Y DE SOL » («Odolez eta eguzkiz»), Sergio González Rodríguezena: *De sangre y de sol,* Sexto piso, 2008.

EPISODIO DE UNA LECTURA SOBRE LA NOCHE «EVOCACIÓN DE SALVADOR ELIZONDO» «GAUARI BURUZKO IRAKURGAI BATEN PASARTEA – SALVADOR ELIZONDOREN OROIPENA». Hemendik ateratako pasartea: «Noctuarios», *El mar de iguanas,* Atlanta, 2010.

[LAU] JOLAS SAKRATUA

JUEGO DE PELOTA FUNESTO «ZORITXARREKO PILOTA JOKOA». Hemen argitaratua: Ángel M. Garibay. *La literatura de los aztecas,* Joaquín Mortiz, 1989.

UN JUEGO EN EL INFRAMUNDO «JOKOAN AZPIMUNDUAN», Alfredo López Austinena: *Las razones del mito,* Ediciones Era, 2015.

EL JUEGO Y EL ARTE «JOLASA ETA ARTEA», Antonio Casorena: *Antología de la estética en México. Siglo XX*, Universidad Nacional Autónoma de México, 2006.

[BOST] ALDERDI MADARIKATUA

LA VÍCTIMA MALDITA Y SAGRADA «BIKTIMA MADARIKATUA ETA SAKRATUA», Georges Bataillerena: *La part maudite,* Collection «Critique», Les Éditions de Minuit, 1967.

LOS SIRVIENTES Y LOS POETAS «ZERBITZARIAK ETA POETAK», Luis Cardoza y Aragónena: *El río. Novelas de caballería*, Fondo de Cultura Económica de México, 1986.

LOS PAPELES PROPIOS DE MI OFICIO «NIRE OGIBIDEAREN PAPERAK», Mario Bellatinena: *Salonkritik*, 2012ko abuztuaren 26a.

[SEI] BARRE JAINKOTIARRA

SER DIOS ES ESTAR ENVENENADO, «JAINKOA IZATEA POZOITUTA EGOTEA DA», **EL LENGUAJE DE LA DIVINIDAD** «JAINKOTASUNAREN HIZKUNTZA» eta **LA EXPERIENCIA DE LOS HONGOS** «ONDDOEN ESPERIENTZIA», Fernando Benítezenak. Hemen argitaratuak: Carlos Monsiváis, *A ustedes les consta. Antología de la crónica en México*, Ediciones Era, 1980.

DIÁLOGO ENTRE UN CRÍTICO Y UN ARTISTA «KRITIKARI BAT ETA ARTISTA BAT ELKARRIZKETAN». Hemen argitaratua: Benjamin Buchloh, *Textos sobre la obra de Gabriel Orozco*, Turner-Conaculta, 2005.

EL PODER ENTRÓPICO DE LA RISA/SMITHSON EN MÉXICO «BARREAREN AHALMEN ENTROPIKOA – SMITHSON MEXIKON», María Virginia Jauarena: *Letras Libres,* azaroa, 2008.

RISA Y PENITENCIA «BARREA ETA PENITENTZIA». Hemen argitaratua: *México en la obra de Octavio Paz III. Los privilegios de la vista. Arte de México.* Egilearen argitalpena. Mexiko, Fondo de Cultura Económica, 1987, 102.-105. eta 109. or. (Letras Mexicanas bilduma).

[ZAZPI] EPILOGOA(K)

LA AUSENCIA DE MITO «MITORIK EZA», Georges Bataillerena: *Oeuvres complètes tome XI,* Èditions Gallimard, 1988.

EL PLAGIARIO «PLAGIATZAILEA», Malcolm Lowryrena: *Un trueno sobre el Popocatépetl,* Ediciones Era, 2000.

ARGAZKIEN KREDITUAK

I	ARTISTA BERA
II–XI	FUNDACIÓN TELEVISA FUNDAZIOA
XII–XV	ARTISTA BERA ETA ELBA BENÍTEZ GALERIA
XVI–XVII	MUSEO DE AMÉRICA MUSEOA
XVIII	MUSEO NACIONAL DE ARTE MUSEOA, INBA
XIX, XXV–XXVII	JOSÉ ANTONIO RODRÍGUEZ
XX–XXI	MUSEO NACIONAL DE ARTE MUSEOA, INBA
XXIII	ARTISTA BERA
XXVIII –XXXV	MUSEO NACIONAL DE ARTE MUSEOA, INBA
XXXVII	FUNDACIÓN ARCO FUNDAZIOA / IFEMA BILDUMA. CA2M DEPOSITOA, DOS DE MAYO ARTE-ZENTROA
XXXIX–XLIII	MUSEO NACIONAL DE ARTE MUSEOA, INBA
XLIV–XLV	ARTISTA BERA ETA KURIMANZUTTO
XLVI–XLVII	MEANA LARRUCEA BILDUMA
XLVIII–XLIX	ARTISTA BERA
L–LI	ARTISTA BERA ETA LABOR
LII–LIII	ESPAINIAKO ARKEOLOGI MUSEO NAZIONALA
LIV–LVII	ARTISTA BERA ETA KURIMANZUTTO
LVIII–LIX	ARTISTA BERA ETA JOSÉGARCÍA ,MX
LX–LXIII	IBERDROLA BILDUMA
LXIV–LXV	ARTISTA BERA ETA LABOR
LXVII	FUNDACIÓN ARCO FUNDAZIOA / IFEMA BILDUMA. CA2M DEPOSITOA, DOS DE MAYO ARTE-ZENTROA
LXVIII–LXIX	ARTISTA BERA ETA LABOR
LXX–LXXI	MEANA LARRUCEA BILDUMA
LXXII–LXXIII	MICHEL SOSKINE GALERIA
LXXIV–LXXV	ARTISTA BERA ETA ARREDONDO/AROZARENA
LXXVI–LXXVII	ARTISTA BERA ETA KURIMANZUTTO
LXXVIII–LXXIX	FUNDACIÓN ARCO FUNDAZIOA / IFEMA BILDUMA. CA2M DEPOSITOA, DOS DE MAYO ARTE-ZENTROA
LXXXI	MUSAC
LXXXII–LXXXIII	IBERDROLA BILDUMA
LXXXIV–LXXXV	ARTISTA BERA ETA JOSÉGARCÍA ,MX
LXXXVI	MUSEO DEL ESTANQUILLO MUSEOA CARLOS MONSIVÁIS BILDUMAK
LXXXVII	MICHEL SOSKINE GALERIA
LXXXVIII–LXXXIX	CANANA FILMS
XCI	MUSEO NACIONAL DE ARTE MUSEOA, INBA
XCII–XCIII	IBERDROLA BILDUMA
XCV	MUSEO NACIONAL DE ARTE MUSEOA, INBA

MEXIKO: MITO BATI BURUZKO SAIAKERA

PHILIPPE OLLÉ-LAPRUNE
JAIME SOLER FROST
MARIO BELLATIN
LUIGI AMARA
SERGIO GONZÁLEZ RODRÍGUEZ
RODRIGO ROJAS MACKENZIE
FABIENNE BRADU
MARÍA MINERA
ALEJANDRA PÉREZ
CARLOS RANC

✠

FONDO DE CULTURA ECONÓMICA ARGITALETXEA
ADRIANA ROMERO NIETO ETA LIVIA OROPEZA
GALLIMARD
ANNE SOLANGE NOBLE
ETA MARIVONNE LE DOUCEN
EDICIONES ERA ARGITALETXEA
PAOLA NIETO ETA MARCELO URIBE
INSTITUTO DE MÉXICO EN ESPAÑA ERAKUNDEA
PABLO RAPHAEL, MÓNICA SOTOS
ETA LIBURUTEGIKO LANTALDE OSOARI

ESKERRAK

MEXIKOKO GAI BATEN GAINEKO ALDAERAK

MARÍA VIRGINIA JAUA
PABLO DEL VAL
ELENA NAVARRO ETA SANTIAGO CALEYA
JOSÉ ANTONIO RODRÍGUEZ
JULIEN DEVAUX
OCTAVIO ITURBE
CARLOS DE LABORDE
ALAN GLASS
COLECCIÓN MEANA LARRUCEA

✠

MUNAL
AGUSTÍN ARTEAGA, CLAUDIA BARRAGÁN,
PAULINA BRAVO, REBECA RICHTER,
ANA CELIA VILLAGÓMEZ,
VÍCTOR RODRÍGUEZ RANGEL, TELY DUARTE,
ABIGAIL MOLLEDA ETA ILSE ORDAZ
MUSEO ARQUEOLÓGICO NACIONAL
ANDRÉS CARRETERO, PALOMA OTERO,
ÁNGELES CASTELLANO
ETA CARMEN DE MIGUEL
MUSEO DEL ESTANQUILLO
COLECCIONES CARLOS MONSIVÁIS
HENOC DE SANTIAGO, EVELIO ÁLVAREZ,
ETA ALDO SÁNCHEZ
FILMOTECA UNAM
MARÍA GUADALUPE FERRER
NAHÚN CALLEROS
ETA MIGUEL ÁNGEL RECILLAS
FUNDACIÓN TELEVISA
MAURICIO MAILLÉ
ETA FERNANDA MONTEVERDE
EMILIO MAILLÉ
ETA CAIMAN FILMS
MUSEO DE AMÉRICA
CONCEPCIÓN GARCÍA SÁNCHEZ
ETA CAROLINA NOTARIO
MUSAC
MANUEL OLVEIRA ETA KORE ESCOBAR
CA2M / COLECCIÓN FUNDACIÓN ARCO
MANUEL SEGADE,
MARÍA ASUNCIÓN LIZARAZU DE MESA
ETA TERESA CAVESTANY
GALERÍA MICHEL SOSKINE
MICHEL SOSKINE ETA CLAUDIA CARRASQUEIRA
GALERÍA ELBA BENÍTEZ
ELBA BENÍTEZ, GREGO PRIOR,
ETA CYNTHIA GONZÁLEZ
GALERÍA ARREDONDO AROZARENA
GEORGINA AROZARENA
ETA LUCÍA ENRÍQUEZ
GALERÍA LABOR
PAMELA ECHEVARRÍA, PAOLA PACHECO
ETA MARIANA GÜELL
GALERÍA KURIMANZUTTO
JOSÉ KURI, MÓNICA MANZUTTO,
ETA MARÍA EMILIA FERNÁNDEZ
GALERÍA JOSÉ GARCÍA, MX
JOSÉ GARCÍA ETA JAVIER ESTÉVEZ
CANANA FILMS

MEXIKO: MITO BATI BURUZKO SAIAKERA

ARGITALPENA	María Virginia Jaua
ARGITALPENAREN KOORDINAZIOA	María Virginia Jaua Guillermo Paneque
DISEINUA	Maricris (Estudio) Herrera
DISEINU LAGUNTZAILEA	Santiago Martínez Alberú (Estudio Herrera)
IRUDIAK	Martín Pech
ITZULPENAK	Tanya Huntington (inglés) Koldo Biguri eta Koro Navarro (euskera)
ZUZENKETA	Ana Martín Moreno
INPRIMATZEA	Brizzolis, Madrid
KOADERNAKETA	Ramos, Madrid
ARGITARATZAILEA	Iberdrola Plaza Euskadi, 5 48009 Bilbao www. iberdrola-arte. es

Argitalpen honen ©: Iberdrola, 2016
Testuen ©: Luigi Amara, Mario Bellatin, Benjamin Buchloh, Sergio González Rodríguez, María Virginia Jaua, Alfredo López Austin, Guillermo Paneque

Fernando Benítez, José Revueltas eta Malcolm Lowry
© Ediciones Era
Georges Bataille
© Gallimard
© Les Éditions de Minuit
Luis Cernuda
© FCE de España
Luis Cardoza y Aragón eta Alfonso Reyes
© FCE de México
Antonio Caso
© Dirección de publicaciones de la UNAM
Jacques Derrida
© Galilée
Octavio Paz
© Marie José Tramini de Paz
Gonzalo Rojas
© Fundación Gonzalo Rojas
Ignacio Zuloaga, Octavio Iturbe, Dan Flavin,
José Clemente Orozco eta César Manrique
© VEGAP, Bilbao, 2016.
© Center for Creative Photography, The University of Arizona Foundation / VEGAP, Bilbao, 2016.

LEGE GORDAILUA	BI-321-2016
ISBN	978-84-608-6360-1

Espainian inprimatua

Debekatuta dago argitalpen hau partzialki edo osorik kopiatzea eta edukiak erabiltzea, aldatzea, erregistratzea, kopiatzea, ustiatzea, banatzea, komunikatzea, transmititzea, bidaltzea edo edozein bitartekotan edo formatutan erabiltzea, argitaratzailearen idatzizko baimenik izan ezean. Eskubide guztiak gordeta.

MEXIKOKO GAI BATEN GAINEKO ALDAERAK

KOMISARIOTZA	Guillermo Paneque
ERAKUSKETAKO MUNTAKETAREN ZUZENDARITZA	Martín Gómez
MUNTAKETA TEKNIKOA	Equipo 7
BERRIZTAPENA	Equipo 7
GARRAIOAK	Feltrero División Arte
ASEGURUAK	AON
PRODUKZIOA	Iberdrola

MEXIKO: MITO BATI BURUZKO SAIAKERA
LANAREN INPRIMATZEA 2016KO
APIRILAREN 3AN AMAITU ZEN.
MADRILEN *INPRIMATU ZEN,*
BRIZZOLIS *TAILERRETAN.* MUNKEN
PAPERA ETA ESPINOSA NOVA
FAMILIA TIPOGRAFIKOKO ITURRIAK
ERABILI ZIREN, ANTONIO DE ESPINOSAK
DISEINATUTAKO TIPOGRAFIETAN
OINARRITUTA. ANTONIO ESPINOSA
ESPAINIA BERRIKO *BIGARREN*
INPRIMATZAILE GARRANTZITSUENA
IZAN ZEN, ETA XVI.
MENDEKO TIPOGRAFO ONENA.